

dbh



DBH-ko IKASLEEN HIZKUNTZA ATXIKIMENDUA HOBETZEKO IKERKETA ETA ESKU HARTZEA

Yolanda Olasagarre Mendinueta
Rosa Ramos Alfaro
Carlos Vilches Plaza

AITZINSOLASA

HITZAURRE TEKNIKOAK

1 IKERKETA EGITEKO
ARRAZOIAK

2 IKERKETAREN
HELBURUAK

3 DISEINUA ETA
METODOLOGIA

4 ANALISI
SINKRONIKOAK

5 ANALISI
DIAKRONIKOAK

6 ONDORIOAK

7 AURRERA
BEGIRA

8 ERANSKINAK

9 BIBLIOGRAFIA

Aitzinsolasa

Hezkuntzan ari garenon kezka nagusietako bat da antzematea eskolan lantzen diren edukiek, erreferentziek, portaerek eta oinarritzko gaitasunek, gero, zer nolako eragina duten ikasleen bizitzan eta jarreretan. Nolako transferentzia lortzen den, nolako emaitza. Hizkuntzekin ere, berdin. Zein da eskolan landutako hizkuntzetan ikasleek eskuratzen duten gaitasuna, derrigorrezko irakaskuntza amaitzen dutenean? Zergatik gaitasun hori? Zergatik da desberdina ikastetxe bereko ikasleen artean? Zein beste aldagaien arabera lortzen da lortzen dena?

Euskararen kasuan, aspaldiko kezka da gazteen hizkuntza gaitasuna. Eskola izan ohi da, maiz, gure hizkuntzarekiko ikasle askok duten erreferentzia bakarra, eta horrek eragin handia dauka gazteen euskara gaitasunean. Eta jakina da gaitasuna erabilerak zorrotzen duela, eta erabilera geletatik kanpo ere ziurtatzeko, erraztasuna behar dela. Sorgin gurpila da: landu ezean, ez da gaitasuna lortzen,

eta gaitasunik gabe, nekezagoa da erabilera.

Baina erabiltzeko, hizkuntza horrek baliagarria, hurbila, norberarena izan behar du. Ikasleek ezin dute euskara tresna huts gisa ikusi, eduki batzuk jasotzeko ikas sistemak eskaintzen dien tresna. Hain zuzen ere euskararekiko atxikimendua aztertzea da ikerketa honen helburu nagusia. Ezagutzetik erabiltzera bultzatu nahi baldin badira ikasleak, daukaten gaitasuna handitzeko, hizkuntzarekin zer nolako bizipenak eta sentimenduak dituzten ezagutzea garrantzitsua dela iritzi diote egileek, hizkuntzen eta erabileraren ikerketan eskarmentu handia dutenak hirurak.

Lan hau baliagarria dakigula ikasleen jarreraz gehiago jakin eta neurri eraginkorrak hartzeko. Eta kezka bera duten hezkuntza alorreko eragile guztiek ere ate berriak ikus ditzaten motibazioa, erabilera eta gaitasuna lantzeko.

Roberto Perez Elorza
Hezkuntza zuzendari nagusia

Hitzaurre teknikoa

Hitzaurre honetan aurkezten dugun «DBHko ikasleen hizkuntza atxikimendua hobetzeko ikerketa eta esku-hartzea» ikerketa lankidetzaren egitasmo baten emaitza da. Lankidetzaren maila ezberdinetan eman bada ere, alde guztiak ezinbestekoak izan dira ikerketa burutzeko. Aipatzekoak dira, batetik, EIBZ, NUP eta Berriozarko Udalaren lankidetzari esker burutu dela ikerketa; bestetik, euskarazko ereduak duten Nafarroako Bigarren Hezkuntzako zenbait ikastetxeen adostasuna izan dugula ikerketa burutzeko; hirugarrenik, ikastetxe horietako irakasleen ezinbesteko laguntza eta prestutasuna; eta azkenik, ikasleena, haiek izan baitira ikertzeko materiala eman digutenak.

Ikerketa honen helburua DBHko ikasleen hizkuntza atxikimendua ezagutzeko izan da, beti ere, atxikimendu hori hobetzeko

helburuarekin, eta hobetzeko bidean zein esku-hartze jorratu behar diren zehazten joatea.

Ikerketa gure ikasleen hizkuntza gaitasuna hobetzeko markoaren baitan txertatua dago, gure ikasleak hiztun gaituak (konpetenteak) izateko bidean irakaskuntzak eskaini behar dituen jakintzak, moduak eta baliabideak hobetze aldera.

Jarraian duzuen ikerketaren nondik norako nagusiak honako atal hauetan bildu ditugu: ikerketa egiteko arrazoiak eta helburuak, ikerketaren diseinua eta metodologia kualitatiboa erabiltzeko arrazoiak, esku-hartzea, irakasleen eginkizunak, datuen analisi sinkronikoa (hasierako argazkia), datuen analisi diakronikoa, ondorioak eta aurrera begirako proposamenak.

1

**Ikerketa egiteko
arrazoiak**

iea

Ikasleen euskararen erabilera, ezagutza eta motibazioa sustatzeko ekimen ugari eta askotarikoak egiten diren arren, gutxi dira horietatik gela barruan egin eta ikasleen bizipenetan eta esperientzian oinarritzen direnak. Irakasleengandik entzundakoak ditugu; batetik, ikasleek irakasleek nahiko luketena baino gutxiago erabiltzen dutela euskara (iruditzen zaie ikasleek ez dutela euskaraz hitz egin nahi) eta, bestetik, erabiltzen duten hizkuntza ez dela kalitate onekoa. Horrenbestez, alde batek dioena neurri batean jaso eta entzun dugu (irakasleen sentsazioak), baina ez beste aldeak dioena (ikasleen sentsazioak) (Mugertza eta Olasagarre, 2010).

Esan bezala, ikerketa egiteko arrazoi nagusia azkeneko urteotan ikastetxeetatik zein irakasleengandik etorri zaizkigun kezkei erantzuna bilatzea izan da, eta D ereduko ikasleen euskara gaitasuna ahalik eta hoberena izan dadin urratsak ematea.

Adituen arabera hizkuntza erabiltzeko atxikimendua eta erraztasuna behar dira (Ruiz Bikandi, 2009). Bestalde, ikasleen jarreran sakoneko aldaketa lortzeko emozioak landu behar dira eta aldaketa norberak erabakita behar da (sarritan aldaketa behartuek ez dute asko irauten). Ikaslearen sinismen eta portaera multzoa sistema oso bat da eta hari bat mugitzen badugu, dena mugitzen da. Berdin gertatzen da ikaslea beharrean ikastaldea hartzen badugu (Mugika, 2009).

Aspalditxo hasi ginen erabilerari begira ildo nagusiak diren atxikimenduaren eta

ahozko gaitasunaren inguruan lanean, horren emaitza dira, besteak beste, Ahozko Hizkuntza Irakastea **webgunea** eta Motibazioa Sustatzeko Baliabideak-MSB (2012) **bloga**. Azken horren helburua, hain zuzen ere, motibazioa elikatzea izan da, alegia, ikasleen euskararekiko atxikimendua lortzea edo lortzeko bidean urratsak ematea. Horretarako hainbat ariketa edo baliabide jaso, sortu eta bildu dira, ikasle horiekin lanean ari diren irakasleen esku uzteko, eta denon artean motibazioa lantzeko tresna praktikoa eta erabilerraz bat osatzeko.

Blogean bildutako baliabideen azken hartzaileek, DBHko ikasleek alegia, badute euskararen ezagutza, nahikoa ala ez beste kontu bat dugu. Ezagutzatik erabiltzera bultzatu nahi ditugu, haien motibazioan eraginez. Izan ere, erabiltzeko aukerak behar dituzte, baina baita motibazio indartsua ere. Hausnarketa eta aldaketa sustatu nahi ditugu, eta gazteak hizkuntzaren inguruan indartsuagoak egin.

Beraz, ikasleak euskararen inguruan gogoetan jarri nahi izan ditugu eta euskara erabiltzeko arrazoiak eman, baina gogoeta eta arrazoi horiek ikasleen sentimenduekin, sentsazioekin, emozioekin eta bizipenekin zerikusia izan dezaten lortu nahi izan dugu.

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak antolatutako formazio programen bidez aukera izan dugu MSB irakasleengana eramateko eta MSBn proposatutako jardueri ikasleek egindako harrera ikusteko. Oro har, proposamenek

harrera ona izan dute eta jarduera egokiak izan dira ikasleen gogoetarako zein irakasleek euren ikasleen hizkuntza egoera zein den ezagutzeko. Blogeko ariketak hiru atal nagusitan bilduta daude, ikasleen hausnarketak ere bide horietatik etor daitezkeelakoan: lehenengoa, norbera hiztun gisa; bigarrena, taldea eta ingurune hurbila; hirugarrena, euskara munduan eta hizkuntzen ekologia, oro har.

Blogean hasitako bidea sakontzeko ikerketa egitea beharrezkoa ikusi dugu. Hortaz, hizkuntzarekiko atxikimendua aztertzeke asmoa du ikerketa honek. Motibazioa Sustatzeko Baliabideak ekimenak egin dezakeen bidearen hasierako urratsak besterik ez ditu eman. Eman dezakeen guztia eman dezan, ikerketaren metodologia erantsi behar zaio planteatzen duen lanketari. Esate baterako: jarduerak zein taldetan (zein ikasmaila) landuko diren aukeratzeko; talde horien hasierako egoera (motibazioa, jarrerak, ingurua) eta hipotesiak behar bezala deskribatzeko; inplementazioan zaindu beharreko alde metodologikoa adosteko eta, azkenik, emaitzak behar bezala ebaluatzeke. Modu horretan izanen baitugu tresna hobea hezkuntza arloan gazteen motibazioa elikatzeke eta, motibazio horren bidez, egun maizegi gertatzen diren frustrazio egoerak gainditzeko.

Ikerketa, batetik, DBHko ikasleen hasierako egoera (euskararekiko motibazioa: sentimenduak, emozioak, sentsazioak) ezagutzeko burutu da eta, bestetik, alde aurretik diseinaturiko esku-hartzea

inplementatu ondoren, ikasleengan aldaketak gertatu diren ala ez ikusteko. Horrela, esku-hartzearen egokitasuna baloratu ahal izan dugu, gaztetxoek euskararekiko motibazioa, jarrerak, usteak aldatzen ote diren ikasleek euskararen inguruan gogoetan jarrita. Beste modu batera esanda, ikasleen artean euskararekiko gogoeta sustatu ondoren (esku-hartzearen bidez) ikasleen artean gutxieneko hausnarketa eta jarrera aldaketa sumatzen den ikusteko.

Aztertu nahi genuenerako bide egokiena ikerketa kualitatiboa egitea iruditu zaigu, egokiena eta emankorra, ikasleen sentimendu, sentsazio, emozio eta bizipenak aztertu behar eta nahi genituelako.

Azken batean, ikerketa honekin MSBk duen planteamenduari indarra eta oinarri zientifikoa erantsi nahi dizkiogu, MSBn jasotzen dena lortu nahi den helburuarekiko egokia den ala ez jakiteko, proposamenari zabalkundea eman aurretik oinarri sendoa emateko, baldintza horietan euskarazko erduei beharrezko eraginkortasuna lortzeko ekarpena egin ahalko dielakoan.

Ikerketaren mundua eta lan mundua, kasu honetan hezkuntza arautua, batera eta elkarlanean aritzea Nafarroako gizartearentzat bide emankorra izan daitekeela uste dugu eta, horretan aurrera eginez, ikerketa honetan Nafarroako Unibertsitate Publikoarengana jo du EIBZ-Euskara Atala-Hezkuntza Departamentuak.

2

Ikerketaren helburuak

ih

Helburu orokorra. Nafarroako D ereduko Bigarren Hezkuntzako ikasleen euskararekiko diskurtsoa eta motibazioak ezagutu eta, irakasleek gelan alde aurretik finkatutako esku-hartzea egin ondoren, diskurtso eta motibazioetan aldaketak gertatzen diren ikusi.

Helburu zehatzak

- Gaztetxoek hizkuntzekiko bizipen eta diskurtsoak ezagutu, euskararekiko iritzien eta jokabideen ardatz nagusiak hobeki ulertzeko.
- Identifikatutako ardatz nagusiak hainbat aldagairen arabera aztertu: egoera soziolinguistikoa, familiaren tipologia linguistikoa eta generoa.
- Motibazioan eragiteko esku-hartze bat diseinatzerakoan, «Motibazioa Sustatzeko Baliabideak» izeneko tresnan biltzen diren baliabideak eraginkorrak izan daitezkeen ala ez ikusi.
- Ikasleen motibazioa elikatzeko lanetan irakasleek izan ditzaketen gaitasunak eta zailtasunak ezagutu.

3

Diseinua eta metodologia

dm

3.1
IKERKETAREN
KOKAPENA HAINBAT
JAKINTZAGAIREN
IKUSPUNTUTIK

3.2
LANDUTAKO
LAGINA

3.3
ERABILITAKO
METODOLOGIARI
BURUZKO OHARRAK

3.4
IKERKETAREN
FASEAK: BI
ERREGISTROAK ETA
ESKU-HARTZEA

3.5
IRAKASLEEN
FUNTZIOAK

3.6
JASOTAKO
INFORMAZIOAREN
SAILKAPENA

3.7
PARTE-HARTZAILEAK:
IKERKETA TALDEA
ETA IRAKASLEAK

3.1

Ikerketaren kokapena hainbat jakintzagairen ikuspuntutik

IKUSPEGI SOZIOLINGUISTIKOA

Nafarroako hezkuntza sistemak hainbat hamarkadaz euskarazko irakaskuntza garatu du eta, ikasle askorentzat, murgiltze metodologiaren bidez, derrigorrezko hezkuntza euskara bera ikasteko bidea izan da.

Gurea bezalako hizkuntza komunitateetan gertatzen den bezala, eskolan ikasitako euskara kalean edo aisialdian erabiltzeko aukera ikaslearen bizitokian euskarak duen egoera soziolinguistikoak baldintzatzen du. Hori dela eta, eskolak hori kontuan hartu behar du ikasle horiek hizkuntza horretan hiztun osoen gaitasun komunikatiboak barnera ditzaten derrigorrezko hezkuntza bukatzean.

Ikaste prozesu horretan ikaslearen hizkuntzarekiko motibazioa eta atxikimendua elementu oso garrantzitsu bilakatzen dira.

Ikasleen ikaste prozesua hobetzeko (hizkuntzarena eta, hedaduraz, ikasgai guztiena), hizkuntzaren erabilera ahalik eta gehien laguntzeaz gain (erabilera testuinguru formaletan eta ez hain formaletan), garrantzitsua da haur

eta gazteen motibazioan eragitea; hizkuntzarekiko atxikimendua indartzeko urratsak emanez, egoera desorekatuek sortzen dituzten ondorioak txikiagotze aldera.

HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIAREN IKUSPEGIA

Eskola eremuan gertatzen eta burutzen dena ezagutzea ezinbestekoa da eskola bera zein bere egitekoa hobetzeko. Gure ikasle gehienek eskolan ikasi dute euskara, beraz, euskaraz eskolatu diren gaztetxoen euskararekiko atxikimendua zein ikaste-prozesua aztertzeko lagungarria zaigu hezkuntzaren soziologia.

Ikasgelek eta ikastetxeek pertsonen osatutako talde eta erakunde konplexu samarrak osatzen dituzte; hortaz, hezkuntzaren soziologiaren egitekoa ere bada eremu horiek zein bertan gauzatzen diren harreman sareak, loturak, ikaskuntzak aztertzea.

Gure gizartean eskolan garatzen da sozializazio prozesuaren parte handi bat, eta sozializazio prozesu horren zati bat aztertu nahi da, ikasleen hizkuntzarekiko atxikimendua eskolan nola hezur-mamitzen den edota nola hezur-mamitu daitekeen jakiteko.

Azkenik, hezkuntzan egindako esku-hartzeen eragina ikasleen euskararekiko motibazioan aztertzeko soziologiaren ikuspegia ere beharrezkoa zaigu.

3 DISEINUA ETA METODOLOGIA

3.1
IKERKETAREN
KOKAPENA HAINBAT
JAKINTZAGAIEN
IKUSPUNTUTIK

3.2
LANDUTAKO
LAGINA

3.3
ERABILITAKO
METODOLOGIARI
BURUZKO OHARRAK

3.4
IKERKETAREN
FASEAK: BI
ERREGISTROAK ETA
ESKU-HARTZEA

3.5
IRAKASLEEN
FUNTZIOAK

3.6
JASOTAKO
INFORMAZIOAREN
SAILKAPENA

3.7
PARTE-HARTZAILEAK:
IKERKETA TALDEA
ETA IRAKASLEAK

HIZKUNTZAREN DIDAKTIKAREN IKUSPEGIA

Eskola hizkuntza ikasteko, irakasteko eta erabiltzeko gunea izanik, horretarako erabiliko den didaktika erabakigarria da ikasleek hizkuntza horrekiko motibazioa areagotzeko garaian. Hizkuntza irakastearen helburu nagusienetakoa komunikazioa da, hizkuntza eta komunikazioaren gaineko gogoeta egitea, eta hizkuntza horrek dakartzan kultur erreferentziak eraikitzea.

Hiruki didaktikoa giltzarria da hizkuntzaren didaktikan, hau da: irakasleek, ikasleek eta edukiak osatutako egitura zein ondoren egiten den edukien transposizio didaktikoa. Horregatik interesatzen zaigu, besteak beste, ikasleen hizkuntzarekiko motibazioa aztertzea.

PSIKOLINGUISTIKAREN BEGIRADA

Ikasleen euskararekiko motibazioa modu zabalean ulertuta, barnean koka ditzakegu hizkuntzari buruz ikasleek dauzkaten emozio eta sentimenduak (alderdi afektiboa), ezagutza eta sinesmenak (alderdi kognitiboa) eta portaerak (alderdi konduktuala).

Ohikoa da kontraesanak gertatzea hiru alderdien artean, hots, inkoherentziak

izatea, esaterako, ikasleen sinesmen eta portaeren artean.

Bestalde, interesgarria da aztertzea norbanakoaren jokabidea nola aldatzen den taldearen dinamikan.

Beraz, ikasleekin alderdi kognitiboa eta afektiboa lantzea bidea izan daiteke portaerak moldatzeko, baina, lantzeko modu egokia asmatzeko ongi ezagutu behar ditugu alderdi kognitibo eta afektibo horiek aurretik.

Ikusi dugunez, jakintza arlo askotatik interesgarria da aztertzea gazteek euskararekin daukaten harremana, baita haien bizipenak eta jarrerak ezagutzea ere. Nafarroako Hezkuntza Komunitateak badu interes horren kontzientzia, baina baliabide faltarengatik, ziur aski, oraindik ez da proposamen egituratu eta orokorturik egin arlo honetan gazteekin lan egiteko.

Hutsune hori noizbait beteko bada, ongi ezagutu behar ditugu Nafarroako gaztetxoek euskararekiko atxikimenduan eragiten duten alderdiak. Hortaz, ikerketa honen interes nagusia da motibazio horiek elikatzeko interbentzio egokiak diseinatzeko eta antolatzeo oinarritzko ezagutza eskuratzea, gerora ezagutza hori hezkuntza komunitatearen eskura jarri ahal izateko.

3 DISEINUA ETA METODOLOGIA

3.1
IKERKETAREN
KOKAPENA HAINBAT
JAKINTZAGAIREN
IKUSPUNTUTIK

3.2
LANDUTAKO
LAGINA

3.3
ERABILITAKO
METODOLOGIARI
BURUZKO OHARRAK

3.4
IKERKETAREN
FASEAK: BI
ERREGISTROAK ETA
ESKU-HARTZEA

3.5
IRAKASLEEN
FUNTZIOAK

3.6
JASOTAKO
INFORMAZIOAREN
SAILKAPENA

3.7
PARTE-HARTZAILEAK:
IKERKETA TALDEA
ETA IRAKASLEAK

Landutako lagina

Ikerketa Nafarroako D ereduko Bigarren Hezkuntzako hainbat ikastetxe hautatuta egin da, ikastetxe horietako irakasleekin elkarlanean. Honakoak: Agoizko DBHI, Barañaingo Alaitz BHI, Berako Toki-Ona BHI, Iruñeko Eunat BHI, Garraldako DBHI, Iruñeko Jaso Ikastola, Leitzako BHI, Lekarotz-Elizondoko BHI (Lekarotz), Lizarrako BHI, Iruñeko Pedro de Ursua BHI, Sakanako Ikastola (Altsasu), Zizur Txikiko San Fermin Ikastola. Aurretik, Altsasuko BH Institutuan ikerketaren pre-testa egin genuen.

Ikastetxeen aukeraketa egiteko honako irizpideak kontuan hartu dira:

- Ikastetxearen eremu soziolinguistikoa.
- Ikastetxearen izaera publiko edo kontzertatua.
- Ikastetxeak D eredia bakarrik edo beste eredu batzuk ere izatea.

Irizpide horietaz gain, ikastetxeko zuzendaritza taldearen eta parte hartu behar zuen irakaslearen oniritzia ziurtatu dira ikerketa hasi aurretik.

Ikastetxeen kokapen eremua, euskaldunen kopurua kontuan hartuta:

Herria	Elebidunen %, 2011 (euskaraz ongi mintzo direnak)
Leitza	91
Baztan	75
Bortziriak	71
Altsasu	25
Garralda (Pirineoa)	18
Agoitz	14
Lizarra	14
Barañain	12
Iruñea	11

3 DISEINUA ETA METODOLOGIA

3.1
IKERKETAREN
KOKAPENA HAINBAT
JAKINTZAGAIREN
IKUSPUNTUTIK

3.2
LANDUTAKO
LAGINA

3.3
ERABILITAKO
METODOLOGIARI
BURUZKO OHARRAK

3.4
IKERKETAREN
FASEAK: BI
ERREGISTROAK ETA
ESKU-HARTZEA

3.5
IRAKASLEEN
FUNTZIOAK

3.6
JASOTAKO
INFORMAZIOAREN
SAILKAPENA

3.7
PARTE-HARTZAILEAK:
IKERKETA TALDEA
ETA IRAKASLEAK

Aztertu den populazioa ikastetxe horietako DBHko bigarren mailako ikastalde bana izan da. Ikasmilaren aukeraketa (ikasleen adina) bi irizpideren uztarketaren ondorioa izan da: batetik, proposatutako gaien gaineko gogoeta egiteko gaztetxoek, oro har, heldutasun nahikoa edukitzea eta, bestetik, hizkuntzari buruzko sinesmen eta iritzi propioak eraikitze bidearen hasieran egotea. Bi behar horiek kontuan hartuta, DBHko bigarren maila aukeratu genuen.

Ikastetxe gehienetan 2. DBHko talde bakarra zegoen ikerketa abiatu zen unean (2016/17 ikasturtearen hasieran). Talde bat baino gehiago zeuden ikastetxeetan irakasleak erabaki zuen zein taldetan egin. Ikastetxe baten kasuan, bertako bi irakasle izan ditugu lan taldean eta, horregatik, ikastetxe horretako talde bat kontrol taldea izan da.

3.3

Erabilitako metodologiari buruzko oharrak

Erreferentziako esparru teorikoa zehaztuta, ikertutako eskola-unibertsoa kokatuta eta ikerketaren helburuak enuntziatuta, ikerketa soziolinguistikoaren oinarri analitiko

sustengatzen duten diskurtsoak lortzeko baliatu den prozesu metodologikoa deskribatu behar da.

Hezkuntza-arloan egin ohi diren ikerketa soziolinguistiko gehienak bideratuta daude ikasleek hizkuntzei eta, zehazki, euskarari buruz dituzten iritziak eta, neurri apalagoan, jokabideak ezagutzera. Batez ere metodologia kuantitatibotik bideratzen dira ikerlanak, eta perspektiba **sinkroniko** batetik, alegia, une bakar batean neurtzen dute, galdetegia edo datuak biltzeko erabilitako beste edozein tresna betetzen ari den une horretan, zehazki. Ikerlan honetarako, ikuspuntu metodologiko **diakronikoa** baliatu da, perspektiba kualitatiboan oinarritua. Metodologia kualitatiboa erabiltzeak ikasleen diskurtso-kontakteta eragin du. Metodologia parte-hartzailea ere erabili da, non modu aktiboan parte hartu baitute irakasleek, bai ikerketaren prozesuan, bai hizkuntzarekiko jarrera-aldaketarako estrategia pedagogikoan.

Ikerketaren helburuen arabera, galdetegi-gidoi bat prestatu genuen (ikus 3. eranskina), zeina ikasleek modu indibidual eta anonimoan bete baitzuten Google-inprimakien bidez. Ikasleek erantzun beharreko galderak hamalau gai-esparruri zegozkien eta galdera gehien formatua diskurtso-kontaktetarena zen. Bi momentutan (ikuspuntu diakronikoa edo luzetarakoa) sekuentziatu zen datuen jasotzea: bata, prozesuaren hasieran,

3 DISEINUA ETA METODOLOGIA

3.1
IKERKETAREN
KOKAPENA HAINBAT
JAKINTZAGAIREN
IKUSPUNTUTIK

3.2
LANDUTAKO
LAGINA

3.3
ERABILITAKO
METODOLOGIARI
BURUZKO OHARRAK

3.4
IKERKETAREN
FASEAK: BI
ERREGISTROAK ETA
ESKU-HARTZEA

3.5
IRAKASLEEN
FUNTZIOAK

3.6
JASOTAKO
INFORMAZIOAREN
SAILKAPENA

3.7
PARTE-HARTZAILEAK:
IKERKETA TALDEA
ETA IRAKASLEAK

heziketa-jarduera baino lehen; bestea, irakasleek ikasgeletan heziketa-jarduera egin ondoren. Galdetegia, bi unetan, eredu eta item berberetan oinarritu zen. Galdetegiaren lehen erregistroan berrehun eta hirurogeita hamar ikasleren erantzunak jaso genituen; bigarrenean, berrehun eta hirurogeita hamazazpi ikaslek erantzun zuten.

Hurrengo ataletan zehatzago azaltzen den arren, ikastetxeetan egindako prozesua azaldu behar da, labor bada ere, egin ziren neurketa sekuentziatuko bi prozesuen zentzua ulertu ahal izateko:

1. Proiektua eta jarraitu beharreko metodologia ikastetxeetako zuzendariei eta esperientzian parte hartu zuten irakasleei aurkeztu zitzaizkien.
2. Prestakuntza-saioak irakasleekin:
 - Prozesua hasi aurretik, datu bilketa egin aurretik.
 - Esku hartzea hasi aurretik.
 - Bukaerako datu bilketa egin aurretik.
3. Ikasleen parte-hartzea:
 - Prozesuaren hasieran, galdetegiaren lehen erregistroa bete zuten.
 - Prozesuaren bukaeran, galdetegiaren bigarren erregistroa bete zuten.

Ikasleen bigarren erregistroa jaso eta gero, esperientzian parte hartutako irakasleen ikuspuntu analitikoak lortzeko, bi talde-dinamika egin ziren foku-taldeen formatupean. Ikastetxeak kokatuta dauden egoera linguistikoen arabera definitu ziren taldeak (arras desberdinak euskararen erabilera-mailaren arabera eta euskararen presentzia sozialaren arabera). Aurrez, gidoi bat egin zen talde-preskripziorako, eta ikerketa-taldeko kideek beraiek gidatu zituzten saioak. Euskarri digitalean grabatu ziren bi saioak, eta, transkribatu ondoren, diskurtsoaren azterketa sistematizatua egin zen, ikasleen kontaktaren materialarekin egin bezala.

Bukatzeko, datu-base espezifiko bat diseinatu da zenbakizko kodifikazio batera eramateko moduko itemekin, Barbwin 7.0 estatistika-programaren euskarripean. Ikasleen jarreraren ezagutzan bi aldagaiko azterketaren bidez sakontze aldera, ondoko aldagai independente hauek eraiki dira kontingentzia-taulak definitzeko: adina, sexua, ikasleen gurasoen euskara-ezagutza eta ikastetxearen testuinguru linguistikoa. Aldagaien arteko lotura neurtzeko, Jhi karratuaren estatistikoa erabili da, eta grafikoak eta taulak egin dira datuak errazago ulertu ahal izateko. Azterketa kuantitatiboaren emaitzak lehen eraskinean ikus daitezke.

3 DISEINUA ETA METODOLOGIA

3.1
IKERKETAREN
KOKAPENA HAINBAT
JAKINTZAGAIEN
IKUSPUNTUTIK

3.2
LANDUTAKO
LAGINA

3.3
ERABILITAKO
METODOLOGIARI
BURUZKO OHARRAK

3.4
IKERKETAREN
FASEAK: BI
ERREGISTROAK ETA
ESKU-HARTZEA

3.5
IRAKASLEEN
FUNTZIOAK

3.6
JASOTAKO
INFORMAZIOAREN
SAILKAPENA

3.7
PARTE-HARTZAILEAK:
IKERKETA TALDEA
ETA IRAKASLEAK

Ikerketaren faseak: bi erregistroak eta esku-hartzea

GALDETEGIAREN BIDEZKO ERREGISTROAK

Ikerketan ikasleek bi erregistro bete behar izan zituzten, hau da, galdetegi bera bi momentutan: lehenengoa ikerketaren hasieran eta bigarrena esku-hartzea burutu ondoren. Ikasle bakoitzak ordenagailuan bete zuen Google-inprimakien bidez sortutako galdetegia eskola saio batean. Erantzun guztiak Interneten bidez jaso genituen.

Irakasleei jarraibideak eman genizkien ikasleei zer esan behar zieten finkatzeko: hizkuntzei buruzko galdetegi bat bete behar zutela; zintzo erantzun zezaten, haien iritzia jakin nahi genuelako; galdera guztiak erantzuteko eskatu zitzaizen eta erantzuteko denbora hartzeko, hau da, pentsatzeko; sentitzen zutena esateko eta akatsengatik ez kezkatzeko; azkenik, erantzunak anonimoak izanzen zirela. Anonimotasuna bermatzeko, batetik, ikasle bakoitzari kode bat eman zion irakasleak eta, bestetik, irakasleak ez zuen ikaslearen

erantzunak ikusteko aukerarik izan, ikasleak berak zuzenean Interneten bidez bidaltzen zituelako.

ESKU-HARTZEA

Galdetegia lehen aldiz bete ondoren (lehenengo erregistroa), irakasleek hiru saioko esku-hartzea bideratu zuten, saio bakoitza eskola-saio batean. Horietan egindako jarduerak Motibazioa Sustatzeko Baliabideak blogean jasotako proposamenen moldaketak izan ziren (lehenengoak eta hirugarrenak Elhuyar Fundazioaren materiala dute iturri, bigarrenak Plataforma per la Lengua-EMUNena). Aukeraketa egin zen jarduera bakoitzak ikasleak maila hauetako batean kokatzeko xedearekin: lehena hiztuna eta bizipen pertsonalak, bigarrena hiztun-taldea eta hizkuntza ohiturak eta hirugarrena euskara eta hizkuntzen ekologia (ikus 2. eranskina). Hiru saioak egin eta gero, ikasleek hasierako galdetegia errepikatu zuten, ikerketan bigarren erregistroa deitu duguna.

Ikerketa 2016ko udazkenean egin genuen. Egutegian horiz markatutako egunetan irakasleekin aurrez aurreko prestakuntza saioak egin genituen, tartean egin beharrekoaz jarraibideak jaso zituzten Moodlen on line. Azkeneko

3

**DISEINUA ETA
METODOLOGIA**

3.1

 IKERKETAREN
KOKAPENA HAINBAT
JAKINTZAGAIREN
IKUSPUNTUTIK

3.2

 LANDUTAKO
LAGINA

3.3

 ERABILITAKO
METODOLOGIARI
BURUZKO OHARRAK

3.4

 IKERKETAREN
FASEAK: BI
ERREGISTROAK ETA
ESKU-HARTZEA

3.5

 IRAKASLEEN
FUNTZIOAK

3.6

 JASOTAKO
INFORMAZIOAREN
SAILKAPENA

3.7

 PARTE-HARTZAILEAK:
IKERKETA TALDEA
ETA IRAKASLEAK

saioan irakasleekin bi eztabaida-talde osatu genituen prozesuaren balorazioa egiteko. Egutegian morez margotuta daude erregistroak jasotzeko zentroei emandako

epeak (urrian lehenengoa eta azaroan bigarrena). Azkenik, berdez ikus daitezke esku-hartzea geletan inplementatzeko emandako denbora.

IRAILA						
	1	2	3	4		
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

URRIA						
	1	2				
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

AZAROA						
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30				

3.5

Irakasleen funtzioak

Ikusi denez, irakasle-taldea ezinbesteko eragilea izan da ikerketan. Haiek bideratu dituzte galdetegia eta esku-hartzea eta prozesuaren ebaluazio eta hausnarketa interesgarriak egin dituzte geletan gertatutakoa ulertzeko.

Ikerketan garrantzitsua izan da denek antzeko jokabidea izatea ikasleen aurrean: gaiak aurkeztu bideratu gabe eta, batez ere, ikasleen ekarpenak eta iritziak baloratu edo epaitu gabe. Argi izan behar zuten

proposatutako jardueretan ikasleen erantzun eta bide guztiak zirela balekoak eta irakasleen iritzi eta balioak ezkutuan geratu behar zirela. Hausnarketa prozesua zen sustatu behar zutena, ez emaitza jakin bat.

Irakasleen jokabide hori baldintza izan da ikerketan baina, gure ustez, bada motibazioa lantzeko edozein saiotan arrakasta izateko baldintza ere bai. Ez da irakasleek ikastaldearen aurrean jokatzen duten ohiko papera, beraz, zailtasunaz jabetzea eskatu genien.

3 DISEINUA ETA METODOLOGIA

3.1 IKERKETAREN KOKAPENA HAINBAT JAKINTZAGAIEN IKUSPUNTUTIK

3.2 LANDUTAKO LAGINA

3.3 ERABILITAKO METODOLOGIARI BURUZKO OHARRAK

3.4 IKERKETAREN FASEAK: BI ERREGISTROAK ETA ESKU-HARTZEA

3.5 IRAKASLEEN FUNTZIOAK

3.6 JASOTAKO INFORMAZIOAREN SAILKAPENA

3.7 PARTE-HARTZAILEAK: IKERKETA TALDEA ETA IRAKASLEAK

3.6

Jasotako informazioaren sailkapena

Jasotako informazio zatiak (*verbatimak*) bi aldagai nagusiren arabera sailkatu ditugu: eremuaren hiztun elebidunen dentsitatea eta familiaren tipologia; eta aldagai bakoitzaren arabera hiru kategoria sortu ditugu:

Eremu soziolinguistikoaren hiztun elebidunen dentsitatea:

- A. HdHE. Hiztun-dentsitate Handiko Eremua (hiztun elebidunak %70 edo gehiago): Leitza, Baztan, Bortziriak.
- B. HdEE. Hiztun-dentsitate Ertaineko Eremua (hiztun elebidunak: %16-%69): Altsasu, Garralda.

- C. HdTE. Hiztun-dentsitate Txikiko Eremua (hiztun elebidunak %15 edo gutxiago): Agoitz, Lizarra, Barañain, Iruñea.

Familiaren tipologia (gurasoen ezagutzaren arabera):

1. Familia euskalduna: bi gurasoak euskaldunak edo bat euskalduna eta besteak zerbait daki.
2. Tartean kokatzen diren familiak: guraso bat euskalduna da eta bestea erdalduna edo biek zerbait dakite.
3. Familia erdalduna: bi gurasoak erdaldunak edo bat erdalduna eta besteak zerbait daki.

Horren ondorioz gazteak sailkatzeko lortutako 9 tipologiak hizkiak (A, B, C eremu mota) eta zenbakiak (1, 2, 3 familiaren tipologia) konbinatuta izendatu ditugu.

Eremua / Familia	Familia euskalduna	Tarteko familia	Familia erdalduna
% 70 edo +	A1	A2	A3
% 16-% 69	B1	B2	B3
% 15 edo -	C1	C2	C3

Gazteen informazioaren analisisan tipologia horiek kontuan hartu ditugu, baita ikasleen generoa ere.

3 DISEINUA ETA METODOLOGIA

3.1
IKERKETAREN
KOKAPENA HAINBAT
JAKINTZAGAIREN
IKUSPUNTUTIK

3.2
LANDUTAKO
LAGINA

3.3
ERABILITAKO
METODOLOGIARI
BURUZKO OHARRAK

3.4
IKERKETAREN
FASEAK: BI
ERREGISTROAK ETA
ESKU-HARTZEA

3.5
IRAKASLEEN
FUNTZIOAK

3.6
JASOTAKO
INFORMAZIOAREN
SAILKAPENA

3.7
PARTE-HARTZAILEAK:
IKERKETA TALDEA
ETA IRAKASLEAK

3.7

Parte-hartzaileak: ikerketa taldea eta irakasleak

Ikerketa taldea (ikerketaren diseinua, proiektua eta jarraipena):

- Yolanda Olasagarre Mendiñueta, EIBZko irakaslea, soziologoa, soziolinguista.
- Rosa Ramos Alfaro, Berriozarko Udaleko euskara teknikaria, soziolinguista.
- Carlos Vilches Plaza, NUPeko irakaslea eta soziologia ikertzailea.

Ikerketan parte hartu duten Bigarren Hezkuntzako irakasleak:

- Gotzone Agirrezabala Agirrezabala (Lizarra BHI)
- Unai Arellano Lakabe (Jaso Ikastola)
- Patricia Armendariz Aristu (Agoitz BH)
- Josune Aznarez Alkat (Eunate BHI)
- Maider Basterra Mendioroz (Pedro de Ursua BHI)

- Erkuden Flores Mazkieran (Sakana Ikastola)
- Haritz Gorostidi Iriondo (Leitzako BHI)
- Txelo Inoriza Lorente (Lizarra BHI)
- Amelia Lapuente Jimenez (Sakana Ikastola)
- Nerea Mitxeltoarena Iparragirre (Berako Toki-Ona BHI)
- Idoia Mugica Alvarez (Lekarotz-Elizondo BHI)
- Garazi Otxagabia Letamendia (San Fermin Ikastola)
- Edurne Perez Landa (Alaitz BHI)
- Ainhoa Razkin Olazarán (Garraldako BH)
- Juantxu Zabala Etxebarria eta Marta Senar Berastegui (Altsasuko BHI) (Pretesta)

Parte hartu duten erakundeak:

Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa eta Euskara Atala (Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua), Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Berriozarko Udala.

3 DISEINUA ETA METODOLOGIA

3.1
IKERKETAREN
KOKAPENA HAINBAT
JAKINTZAGAIEN
IKUSPUNTUTIK

3.2
LANDUTAKO
LAGINA

3.3
ERABILITAKO
METODOLOGIARI
BURUZKO OHARRAK

3.4
IKERKETAREN
FASEAK: BI
ERREGISTROAK ETA
ESKU-HARTZEA

3.5
IRAKASLEEN
FUNTZIOAK

3.6
JASOTAKO
INFORMAZIOAREN
SAILKAPENA

3.7
PARTE-HARTZAILEAK:
IKERKETA TALDEA
ETA IRAKASLEAK

4

Analisi sinkronikoa

as

4.1.
HIZKUNTZAREKIKO
ATXIKIMENDUA EDO
LOTURA AFEKTIBOA

4.2.
HIZKUNTZA
GAITASUNA

4.3.
HIZKUNTZAREKIN
LOTUTAKO SENTIPEN
KONTRAJARRIAK
ETA DESOREKAK,
GATAZKAK ETA
ANBIBALENTZIAK

4.4.
HAINBAT OHAR
HIZTUN-DENTSITATE
HANDIKO EREMUKO
IKASLEEI BURUZ

4.5.
GENEROAREN
ARABERAKO
IRAKURKETA

4.1

Hizkuntzarekiko atxikimendua edo lotura afektiboa

Ikasleen hizkuntzarekiko atxikimendua nolakoa den jakiteko euskararekin izan dituzten bizipenak aztertu ditugu: nolako bizipenak gogoratzen dituzten hizkuntzarekin lotuta eta non jaso edo ikasi duten euskara. Gure ikasle askoren atxikimendua familiaratik dator, familia zentzu zabalean ulertuta. Dena dela, familia estua (aita, ama, anai-arrebak) eta familia zabala (aitona-amonak, osaba-izebak, lehengusuak...) bereizi ditugu analisirako beharrezkoa ikusi dugulako. Beste askorentzako haur eskola edota eskola ere atxikimendu iturri nagusia da eta izan da.

Atxikimenduaz gain (noren bidez egiten duten, eskuratzen duten) hizkuntzaren jabekuntza non eta nola egin duten (familiar, eskolan) eta noren bidez (familia estua, edota hezkuntza sistemaren bidez) agertzen da haien bizipenak irakurtzean.

Hortaz, atal honetan hizkuntzarekiko atxikimendua, lotura afektiboa (pertsona erreferenteak, elementu sinbolikoak) eta hizkuntzaren jabekuntza eta ikaskuntza nola katramilatzen diren ikusiko dugu. Jabekuntza eta ikaskuntza bereizi ditugu Azurmendik adierazitako eran:

«Denok dakigu ikaskuntza eta jabekuntza neurri batean gauza bera direla, baina beste

neurri batean ez. Eta badirudi bi urtera arte jabekuntza dela nagusi eta bi urtetik aurrera ikaskuntzak hartzen duela leku hori. Beraz, nik uste dut bi urterekin hiru urterekin hastea baino hobea litzatekeela, hizkuntza hori pertsonaren ama-hizkuntza gisa hartzeko.» (Azurmendi, 2008, 24.or.)

Soziologia klasikoan lehen mailako eta bigarren mailako sozializazioak bereizten dira. Gaur egungo gizarteetan baliteke bi sozializazio horiek hain garbi ez egotea, baina gure gaiari erreparatuta bereizketa esanguratsua dela iruditzen zaigu. Lehen mailako sozializazioa haurrak bere haurtzaroan egiten duen lehenengoa da, horren bidez gizarteko kide egiten da eta bertan emozioek pisu handia dute, baldintzak halakoak direlako. Sozializazio hori garrantzitsuena da eta normalean familian gertatzen da, bizitzako hasierako urtetan. Familia da lehenengo sozializazio eragilea. Bigarren mailako sozializazioa, aldiz, lehenengoaren ondoren, zenbaitetan batera ere, gertatzen dena da, eta norbanakoa bere inguruko beste mundu batzuetara zabaltzen da eta beste mundu batzuk ere badirela barneratzen hasten da, familia ez den beste eragile batzuen bidez, kasu, eskola, lagunak... (Berger eta Luckmann, 1986). Bestalde, azpimarratzekoa da Fishmanek dioena sozializazio prozesuan gizarte modernoetan gertatzen ari diren aldaketak azaltzeko:

«Ezaugarri bi ditu, besteak beste, hiri-bizitza modernoak: batetik, haurren sozializazio-lan osoan familiak geroz eta zeregin ahul-

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

bazterrekoagoa izatea; eta, bestetik, familiari laguntzeko sortutako gizarte-eragileen zatikatze edo desegite burokratikoak.

Hirigintza modernoaren emaitzatariko bat, mundu mailan, honako hau da: aita eta amarekin (biekin alegia) bizi diren eskoladineko haurren proportzioa geroz eta murriztagoa izatea. Horrelako gertaerek, jakina, asko zailtzen dute hizkuntzaren biziberritze-lana.» (Fishman, 1993, 43. or.)

Etxeko hizkuntza da haurrak ohiko egoera batean familian jasotzen duena eta hori familia estuko kideen bidez egiten du. Gure ikasle gehienek, aldiz, euskara eskolaren bidez jaso dute, horregatik garrantzitsua da ikaskuntza hori nola egin duten aztertzea.

4.1.1

EUSKARAREN JABEKUNTZA FAMILIAREN BIDEZ EGIN DUTENEN ATXIKIMENDUA

Euskara familia bidez jaso dutenei eta inguru euskaldunean bizi direnei euskararekiko oroitzapen on, txar eta sentimenduei buruz galdetzen zaienean galdera bera ere harriduraz hartzen dute.

«Txikitatik Euskera izan da nire ama hizkuntza, beti hala hitz egin dot eta hala seitzen dot.» (A1)

Hori sarritan gertatzen da hain ohikoa eta agerikoa den zerbaiti buruz galdetzen zaienean, ez dira inoiz horrelako zerbaiti buruz pentsatzen jarri eta. Euskara

haientzat ohikoa da, arrunta esan genezake eta, noski, familia eta lagunekin erabat lotzen dute, hizkuntzaren jabetze prozesua horretan agertzen da.

Hizkuntzaren jabetze prozesuan etengabe agertzen dira txikitako kontuak, nola hasi ziren hizketan etxe-giroan eta emozioen pisua atal honetan oso handia da. Inguru honetan ikasleek euskara familiaz gain lagunekin ere sarritan lotzen dute.

«*Ne amak ta attek, euskeraz hitzeitten due beti. Nik ordun hitzen bat burun gordetzen nun eta hurrengo eunen esan in nun. Amak kontatzen dit harrittuta geldittu zela.*» (A1)

«*Nere aitak euskeraz gauza politikak esaten zizkidan txikia nintzenean, oso oroipen onak ditut hortaz.*» (A1)

Bidenabar, hizkuntzarekin lotuta hasieran aipatu ditugun elementu sinbolikoak agertzen hasten dira: gauza goxoak, lotara joan aurreko lo-kantak, eta abar. Berrito lehen mailako sozializazio prozesuan, familia giroan agertzen diren pisu handiko emozioak, behin eta berriz.

«*Nire amonak esaten zidan gauza goxoak txikitari.*» (C1)

«*Nire lehen oroitzapena euskararekin nire gurasoak eta amatxik kantatzen zidatenean da.*» (A1)

Euskara familia bidez jaso dutenek eta inguru erdaldunean bizi direnek, ordea, galdera bera ez dute harriduraz hartzen. Euskara familia giroan ohikoa izanik ere,

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

inguruak ez die ohikotasun hori eskaintzen, atxikimendu ona dute, indartsua esanen genuke zenbait kasutan, baina bereziak edota bakanak direneko sentrazioa ere badute.

«Txikia nintzenetik euskara izan da entzun dudan hizkuntza... Euskaraz mintzatzen dudanean oso espeziala sentitzen naiz, hizkuntza oso polita eta bizia delako eta gainera, bizitzeko beste forma bat delako.» (C2)

«Euskerak kutsu desberdin bat dauka, zaharra da, bai, baina oso berezia.» (C1)

«Familia, haurtzaroa, segurtasuna, maitasuna, oroitzapen onak.» (C2)

Horrelakoak ez dira agertzen eremu euskaldunean, ez behintzat hain modu agerikoan.

Multzo honen barruan, gainerako guztietan bezala, aniztasun zabala dago. Ama edo aita, bietako bat, euskalduna denean, hizkuntza jabekuntzarako ezinbesteko osagaia da, nahiz eta gero erabileran bestelako eragina izan. Honela dio ama euskalduna duen ikasle batek eta inguru erdaldunean bizi denak:

«Txikia nintzenean ohean sartzerakoan nire amak esaten zidan 'ondo lo egin' eta hori asko lasaitu egiten zidan. (sentipen) Onak nire ama hizkuntza delako.» (C1)

Bakana izanik ere, aipatzekoa da beste egoera hau, batez ere gure iraganaren erakusle delako aipagarria iruditu zaigu, euskaldun elebakar baten sentipenak

gaztelania jakin gabe eskolara joan zen lehenengo egunean.

«Gogoratzen dut eskolara sartu nintzenean gaztelaniaz ez nekiela, eta klaseko gehienek gaztelaniaz hitz egiten zuten; horregatik momentu horietan gaizki sentitzen nintzen ez nielako ulertzen.» (B1)

Gertaera ez oso pozgarriak edo ez oso atseginak ere aipatzen dira, ikasleak jasotako erantzun txarra.

«Erdaldun batekin euskeraz hitz egiten hasi nintzen eta hark ez zekin euskera eta ez zuen ezer ulertzen, orduan nirekin haserretu zen ez zidalako ulertzen.» (B1)

«Egun batean denda batean sartu nintzenean dendariari gauza bat galdetu nion euskaraz eta bere erantzuna izan zen: A mi no me hables en ese idioma raro que estamos en España y se habla español.» (C1)

Horrelako bizipenek, atxikimenduan eraginik izan ala ez, hitzun horren erabilera ohituretan eragin dezakete.

4.1.2

EUSKARAREN JABEKUNTZA ESKOLAREN BIDEZ EGIN DUTENEN ATXIKIMENDUA

Gure ikasleen ehuneko handiena multzo honetan kokatzen da, hau da, hizkuntza eskolaren bidez jaso dutenen multzoan. Ikasle hauen erantzunetan, jada, oso garbi azaltzen da hizkuntza non ikasi duten (hizkuntzaren jabekuntza non egin duten)

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK, GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

eta norekin. Guraso erdaldunak dituzten ikasle horiek guztiek haur eskolan, eskolan edota ikastolan ikasi dute euskara. Hortaz, haien hizkuntza jabekuntzaren prozesuari buruzko aipamen gehiago agertzen dira eta jabekuntza bera hizketagai bihurtzen dute.

Eskolak gurean euskararen jabekuntzarako duen indarra eta balioa azpimarratzea ezinbestekoa da, baita, sozializatorako eragile gisa, motibazioan eta afektibitatean duen zeregina ere, hori garrantzitsua baita euskara ikasteko. (Azurmendik, 2008)

Beraz, eskolak hizkuntzarekiko atxikimendua landu beharko du, etxetik sendo heltzen ez bada, eta familiari, auzo-giroari eta gertuko komunitateari begira jarri, gertuko komunitate horretan belaunaldien arteko hizkuntza transmisioa eta sozializazioa gertatzen baitira. Fishmanen (1991) Hizkuntza Biziberritzeko Saiotako (HINBE-euskaraz, RLS-ingelesez) 8 urratsetatik 4. urratsa da eskola eta 6. urratsa, berriz, familia, auzo-giroa eta gertuko komunitatea, biek ala biek osagarriak izan behar dute.

Euskara eskolaren bidez (Hezkuntza sistemaren bidez) ikasi dutenei buruz ari garenean, aski egoera diferenteak agertzen dira, ikasle guztiek ez baitute ibilbide bera egin euskara ikasteko. Lehenago aipatu ditugu sozializazio prozesuan gertatzen ari diren aldaketak (Fishman, 1993). Adina kontuan hartuta ikasle horiek noiz hasi ziren euskara ikasten adieraziko

luke hizkuntza eureganatzeko prozesua jabekuntzatik edo ikaskuntzatik gertuago egon den (Azurmendi, 2008). Lehenengo talde batean eskolan edota ikastolan sartzean euskaraz ikasten hasi direnak ditugu, 2 edo 3 urterekin hasi ziren eskolan euskaraz ikasten, multzo hau ikaskuntzatik jabekuntzatik baino hurbilago dago.

«Nire lehen hitza euskeraz ikastolan izan zen, nire klaseko lagunekin konpartitu nuen oroitzapen hori.» (C2)

«Nik jaio nintzenean bakarrik gaztelania jakin nuen nire aita eta ama ez dakitelako euskara, haurtzaindegi batera joan nintzen gaztelaniaz hitz egiten. Orduan 3 urte nituenean nire aita eta ama erabaki zuten joatea ikastola batera euskera ikasteko.» (C3)

Bigarren taldean, Haur Eskolan euskaraz hasi zirenak daude, esate baterako, 6 hilabeterekin hasi zirenak eta euskaraz jarraitu dutenak eskolatze guztia. Multzo hau dugu jabekuntzatik hurbilen dagoena.

«Nik hasi nintzen euskara ikasten guarderian, eta jarraitu nuen eskolan, nire anaia besala.» (C3)

Ñabardura horiek eginda ere, gure ikerketan talde guztiak multzo handi bakar batean kokatu ditugu: euskararen ikaskuntza-jabekuntza, nagusiki, hezkuntza sistemaren bidez egin dutenen multzoa.

DBHko 2. mailako ikasleei eskolan eta hizkuntza «berri» batean eskolatzen hasi zirenean zer sentitu zuten galdetzen

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1.
HIZKUNTZAREKIKO
ATXIKIMENDUA EDO
LOTURA AFEKTIBOA

4.2.
HIZKUNTZA
GAITASUNA

4.3.
HIZKUNTZAREKIN
LOTUTAKO SENTIPEN
KONTRAJARRIAK
ETA DESOREKAK.
GATAZKAK ETA
ANBIBALENTZIAK

4.4.
HAINBAT OHAR
HIZTUN-DENTSITATE
HANDIKO EREMUKO
IKASLEEI BURUZ

4.5.
GENEROAREN
ARABERAKO
IRAKURKETA

zaienean askotariko erantzunak agertzen dira, besteak beste:

- **Lagun berriak** egin zituztela, jende berria ezagutu zutela, hortaz, pozik agertzen dira.
«(...) egun horretan jende asko ezagutu nuen.» (C3)
- **Urduri** egon zirela hasierako egun haietan, baina gero gaintitu zutela urduritasun hori. Gainera, beste batzuk ere urduri zeuden, hau da, ez ziren bakarrik egoera horretan.
«3 urte nituen, eta ikastolara lehenengo aldiz joan nintzen. Hor jende guztia zeuden eta nik bezala oso urduri geunden, irakaslea iritsi zenean ez genuen ezer ulertu.» (C3)
- **Hizkuntza ezezagun batean** hitz egiten zirela.
«Ikastolara sartzean, entzun nuela Irakasle bat euskeraz hitz egiten eta uste nuen 'txinoa' zela.» (C3)
- Hizkuntza ez ulertzea ez dute (oro har) gauza txartzat hartzen, izan ere, hizkuntza **ezezagun hori berehala ikasten hasi ziren**, trebatu ziren eta zailtasuna gaintitzean poztasuna ageritzen.
«Guarderiarra joan nintzenean ez nuen euskera ezagutzen, eta ikasi nuenean oso ondo sentitu nintzen.» (C3)

- Askok **kantekin eta abestearekin lotzen dute**, hortaz gauza atseginekin.
«Guztiok abesten komuntara joaten ginenan» (C3)
«Haurtzandegian euskaraz abesten genuenean» (C2)
- Zenbaitek ere **irakaslea atsegina izatearekin**
«Nire lehenengo oroitzapen ona izan zen ikastolan sartzerakoan irakasle bat zegoen oso majua ile kizkurrarekin eta betaurrekoekin» (C3)
- **Momentu dibertigarriekin**, hau da, ongi pasatzearekin.
«ikastolara joan nintzen lehengo eguna. oso momentu dibertigarria izan zen eta nire txikitako lagunekin gogoratzen dut.» (C1)

Maiz, familia estuko hizkuntza gaztelania dute baina familia zabaleko kideren bat edo batzuk euskaldunak dira. Hau da, aita eta ama erdaldunak izanda familiako beste kideren batekin lotzen dute hizkuntza: lehengusuak, osaba-izebak, aitona-amonak eta oso gauza gogoangarria eta goxoa bezala bizi dute. Kasu hauetan hizkuntzaren jabekuntza familiarik kanpo egin dute, baina erabilerari dagokionez eta errefortzu positiboari begira familiako erreferente horiek aipatzen dituzte, aita edo amaren aldeko familiako kide euskaldunak, lehengusuak (haien parekideak), osaba-izebak.

«Nire eibarreko familia etortzen denean beraiekin euskaraz hitz egiten dut.» (C3)

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

«Ni euskera nire lengusuekin lotzen dut beraiek ere txikitan ikasi zuten eta orain beraiekin bakarrik euskeraz hitz egiten dut.» (C3)

Gurasoen hizkuntza ikasteko prozesuak ere agertzen zaizkigu ikasleen diskurtsoetan, bere ama zerbait ikasten aritu delako eta zerbait badakielako, adibidez.

Eskola bidez euskara ikasi dutenen artean hizkuntzaren jabekuntzan izan dituzten bizipen txarrak eta desatseginak presentego daude familia bidez ikasi dutenen artean baino. Izan ere, familia bidez ikasi dutenen artean nekez agertzen dira oroitzapen txarrak hizkuntzarekiko. Horrek ez du esan nahi agertzen ez direnik edo ez daudenik, eskolatze-prozesuan, euskara irakasgaiarekin, esaterako.

Aipatu dugun bezala, hizkuntza eskolan ikasteak sentimendu desberdinak sortzen ditu, gozoak eta gaziak, edo gazi-gozoak. Ikaskideekin konpartitua bada, sentimendu «gaziak» utzitako arrastoa gozo bihur daiteke.

Kontrako egoera ere agertzen da, hasierako sentipen desatseginak utzi duen arrastoa erabat gazia bada, kostu handikoa. Sentimendu hori ez da konpartitua izan, bakana izan da, zuzenketa eta barrea pertsona horri egin zaizkiolako. Kostu horiek gaintitzea zailagoa da.

«Euskarako irakasleak zerbait galdetu zidan eta ez nekien, denak farreska hasi ziren.» (C3)

Zenbaiten kasuan, esperientzia txarra hizkuntza mailaren pertzepzioan oinarritzen da, haien ikaste prozesuan ikusten dituzten zailtasunetan.

«Euskerarekin izan dudana egoerarik txarrena izan zen azte urdinean jendearekin euskaraz hitz egin behar izan nuenean eta beste jendeari ulertzen ez nuenean.» (C3)

«Bestalde oroitzapen txar bat lehen hezkuntzan lehenengo mailan hitz arrunt bat ez zitzaidan ateratzen eta gaizki pasa nuen.» (C3)

Oroitzapen eta bizipen txarren ondorioz gerta daiteke hizkuntzarekiko atxikimendurik ez lortzea eta, noski, horrek ondorioak ditu. Kostua etekina baino handiagoa da eta horri aurre egitea zaila egiten da.

«Ez daukat euskararekin oroitzapen ona horregatik nire lagunekin gazteleraz hitz egiten dugu, aldiz, oroitzapen txarrak ematen dizkit adibidez, etxerako lana egitean zerbait ez dakit eta nire ama nola ez du ulertzen gaizki sentitzen naiz.» (C3)

Aldeko zein kontrako egoera horiek zenbait kasutan batera ere agertzen dira, alegia, ikasle berberak bizipen edo oroimen onak zein txarrak aipatzea eta biek arrastoa uztea. Arrasto horrek gerora gazirako edo gozorako egitea, hein handi batean, pertsona horrek lortzen duen hizkuntza gaitasunaren araberrakoa dela ikusten da. Adierazgarria da kostu-etekin, irabazi-galduen ekuazioa; beste era batera esanda, maitasun-gorroto anbibalentzia.

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

4.1.3

ELEMENTU SINBOLIKOEN PRESENTZIA HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUAN

Aurretik aipatu dugunez, pertsona erreferenteez gain, hizkuntzarekiko bizipenetan elementu sinbolikoak oso presente daude, ikasleentzat norbere ibilbidean esanguratsuak izan diren elementuak eta gertaerak agertzen dira: amak abestutako lo kanta, aitak edo aitona kontatutako istorioa edo pasadizoa, lagunekin Nafarroa Oinezen bizitutakoa, ezezagun batekin karrikan gertatutako bitxikeriaren bat.

Elementu sinboliko horiek bizipen onekin, pozgarriekin, alaiekin lotuta daude eta pertsona erreferenteekin, gertuko pertsonekin (familia estuko kide, familia zabaleko kide edo irakasleekin) gertatutakoak dira. Atal honetan ikusten da zer garrantzia hartzen duten bizipen on horiek hizkuntzarekiko atxikimendua egokiro gauzatzeko. Aipatzen dituzte, besteak beste: lo kantak, euskal kantak, oporrak, jaialdiak, ipuinak, liburu bat, aitak kontatutako istorio bat, abestiak, «zorionak zuri», edota kalean gertatutako pasadizoak euskararekin lotuta, ohikoak ez direlako.

Lo kantak, euskal Kantak	«Txikitán amonak niri kantatzen zizkidan euskal kantak dira.» (A1)
Oporrak	«Nik euskararekin gogoratzen dudán lehenengo oroitzapen ona, nire familiarekin txikitatit joaten garen herria da (lekeitio), herri orretan euskaraz hitz egiten da eta udan honela hitz egiten dut.» (C1)
Ipuinak	«Nire amarekin txikia nintzenean askotan euskerazko ipuinak irakurtzen zizkidan edo kotxean euskerazko abestiak jarri... asko gustatzen zitzaidan.» (C2)
Liburuak	«infantil-en izan zen, ze nire lehenengo liburua irakurtzen ikasi nuen. Euskeraz! eta asko gustatu zitzaidan.» (C3)
Familiakoek kontatutako istorioak	«Bera gaztea zeneko istorio bat kontatzen zigun eta beti kanta bat kantatzen zigun.» (A1) «Aitonak (agureak) euskaraz hitz egiten banekiela konturatzean, gauza oso dibertigarriak esaten hasi zidan hizkuntza honetan, oso ongi pasa nuen.» (C3)
Euskaraz hainbat jarduera egiten zituztenean	«Nire familiarekin (ama aita eta nire anaia, unairekin) mendira joaten ginenean da nire lehenengo oroitzapena euskaraz.» (C1) «Gogoratzen dut bost urtekin etxe rural batera joan nintzela nire aitaren lagunekin eta beren haurrekin ere. eskolako euskararen egunean izan zan. Oso ongi pasatu genuen dantzatzen eta lagunekin jolasten.» (C1)
Jolasak	«Gogoratzen dut nire lagun minarekin nengoela, Sarai, eta biak elkarrekin euskaraz jolasten genuela 'Littles Pet Shop'.» (C3)

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1.
HIZKUNTZAREKIKO
ATXIKIMENDUA EDO
LOTURA AFEKTIBOA

4.2.
HIZKUNTZA
GAITASUNA

4.3.
HIZKUNTZAREKIN
LOTUTAKO SENTIPEN
KONTRAJARRIAK
ETA DESOREKAK.
GATAZKAK ETA
ANBIBALENTZIAK

4.4.
HAINBAT OHAR
HIZTUN-DENTSITATE
HANDIKO EREMUKO
IKASLEEI BURUZ

4.5.
GENEREOAREN
ARABERAKO
IRAKURKETA

Esan genezake elementu horiek guztiak goxotasunarekin, lasaitasunarekin, lilurarekin, pozarekin, libertimenduarekin lotzen direla.

Aipatutako elementu sinbolikoek lortu duten atxikimendu maila edota indarrari buruzko ageriko aipamen handirik ez bada ageri ere, aipamenak berak erakusten du indar horrek gaur arte iraun duela, gure ustez, indarraren erakusle garbiena denboran irautea litzateke. Dena dela, zenbaiten kasuan horren indarra haien hitzetan islatzen da, denbora asko pasatu da kontu haietatik baina oraindik oso gogoan daude:

«Nik oaindik kantahoik guztik burun dauzket.» (A1)

Bestalde, atxikimendu hori, ohikoa den moduan, ia kasu guztietan ikasle hauen haurtzaroan gertatu da, alegia, ikasleak Haur Hezkuntzan edota Lehen Hezkuntzan zeudenean, edota atxikimenduan familiarian edo etxean izan baldin bada, haien haurtzaroan.

«Ni txikia nintzenean ama batzuetan irakurtzen zitzaidan ipuinak, baina orain ez.» (C2)

Badirudi, haurtzaroa bukatzen denean atxikimenduaren elikadura eten egiten dela bai etxean, bai eskolan. Ikasleek adinean gora egitean elementu sinbolikoen presentzia gutxitzeaz (edo desagertzeaz) hausnartu beharko litzateke. Haurrak direnean elementu sinboliko horiek badaude eta agerikoak dira, baina nerabezaroan gutxiago daude adinarekin

horiek desagertu egiten direlako. Neurri batean berezkoa izan daiteke, familia eta eskolaren denbora zati bat lagunek hartzen dutelako; baina, azpimarratu behar da, lagun-arteko giro horrek ez duela nahiko indarrak atxikimendua elikatzen jarraitzeko.

4.2

Hizkuntza gaitasuna

Gure ikasleen hizkuntza gaitasun aitortua, darabilten bi hizkuntzetan (euskara eta gaztelania), etengabe agertzen da euren diskurtsoetan. Hizkuntza gaitasuna faktore garrantzitsua da euskararen erabileran eta euskararekiko motibazio eta atxikimenduan. Gurpil moduan ulertu behar dugu neurri batean gaitasuna, horrek elikatzen baitu atxikimendua eta erabilera.

Ikasleen aipamenetatik abiatuta, atal honetan saiatuko gara hizkuntza gaitasun horren nolakotasuna eta xehetasunak aztertzen, lagungarria izan daiteke-eta euskararen didaktika egungo beharretara zein euskararen egoerara egokitze.

4.2.1

EUSKARA MAILAREN PERTZEPZIOA

Ikasleek norbere euskara maila edo gaitasuna aipatzen dute, behin eta berriz. Hizkuntza maila faktore garrantzitsua da edozein hizkuntzaren erabileran,

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

hizkuntzarekin eroso eta gustura sentitzeko «gutxieneko» maila ezinbestekoa baita. Ikerketa honetan ere ikasleek horixe garbi esaten dute eta argi ondorioztatzen da haien diskurtsoetatik.

Ikasle horietako gehienek euskara eskolaren bidez ikasi dute, hau da, euskara ikastearen prozesua ez da gune naturalenetan (familian, etxe-auzo giroan) gertatu, euren etxeko eta ingurune hurbileko hizkuntza gaztelania delako. Jakina da euskararen garapenerako ezinbesteko bitartekoa dela haur eta gaztetxoek murgiltze eredu bidez hizkuntza ikastea, beraz, gure ikasleak murgiltze ereduetan euskaraz eroso eta trebe senti daitezen lortzeak helburu garrantzitsua izan beharko luke.

Ikasleek egindako aipamenek erakusten dute, bestalde, badutela hizkuntza (euskara) ikasten ari diren prozesuaren kontzientzia eta ikusten dutela prozesu horretan aurrera egiten ari direla.

Euskarazko hizkuntza gaitasuna norberak aitortua da, hau da, gerta liteke zenbaiten kasuan maila pertzepzioa baino altuagoa izatea eta alderantziz. Hala ere, ezin da ukatu norberak duen mailaren pertzepzioak hizkuntzaren erabileran eragina duela. Aukera bagenu benetako maila hizkuntza mailaren pertzepzioarekin alderatzeko primerakoa litzateke, baina hori ezin dugu ikerketa honetan egin. Edozein modutara argitu beharrekoa honakoa litzateke: gure ikasleek benetan aitortzen duten maila hori dutenentz, edota euskara maila mugatuaren pertzepzio hori bizi izan

dituzten esperientzia txar, desegokien ondorioz indartua izan denentz; edota bien arteko nahasketa bat denentz.

Bizipenak ez badira «gustukoak, gogokoak, asebetegarriak» izan, pertzepzio horren azpian gutxiagotasun konplexua eraiki edo sortu den aztertu beharko genuke, konplexu horrekin zaila baita ikaste prozesuan aurrera egitea. Askok aipatzen dutenagatik zenbait bizipen «gazi» izan dituzte eta, zalantzarik gabe, horiek erabakigarriak ez ezik, kaltegarriak ere izan dira aurrera egiteko gogoan. Kostu-etekin ekuazioaren arabera, kostua etekina baino handiagoa izan denean, emaitzak ez du merezi, hortaz, nekeza da aurrera egitea.

4.2.1.1

Euskara mailarekin arazoak

Esan bezala, gaizki hitz egiteak, maila baxuak edo nahikotasun maila ez izateak kostu handia eragiten die. Hona hemen aipatzen dituzten kostuak (sentimendu negatiboak) euskaraz hitz egiten ari direnean: lotsa sentitzea, gaizki hitz egiten duela uste izatea, zailtasuna hitz egiteko garaian, hitzak ez ateratzea eta tratatzea, gaztelaniarekin konparatuta okerrago hitz egitea, aditzak ez jakitea, deseroso sentitzea.

Egoera horretan, Ruiz Bikandiren esanetan (2009), automatizaturik gabeko hizkuntzatik ihes egin nahi izaten dugu, ez gaudelako eroso, gustura, jariorik ez dugulako.

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1.
HIZKUNTZAREKIKO
ATXIKIMENDUA EDO
LOTURA AFEKTIBOA

4.2.
HIZKUNTZA
GAITASUNA

4.3.
HIZKUNTZAREKIN
LOTUTAKO SENTIPEN
KONTRAJARRIAK
ETA DESOREKAK.
GATAZKAK ETA
ANBIBALENTZIAK

4.4.
HAINBAT OHAR
HIZTUN-DENSITATE
HANDIKO EREMUKO
IKASLEEI BURUZ

4.5.
GENEROAREN
ARABERAKO
IRAKURKETA

Mari Jose Azurmendik (2008, 24. or.) aipatzen duen moduan «afektibitatearekin ere berdin, eroso sentitzea edo beldurrez egotea [...] horiek normalean gutxiengo egoeran dauden hizkuntzekin lotzen dira, ez besteekin.»

«Arraroa sentitzen naiz, uste dudalako gaizki hitz egin dudalako, asko tratatzen naiz...» (C2)

«Deserosoa zentitzen nahiz. nire euskara oso ona ez delako» (C3)

«Zaila egiten zait euskaraz hitz egitea, oraindik ez dakidalako aditzak konjugatzen» (C3)

Euskara mailarekin dituzten arazoek tamaina eta azalpen desberdinak ditzuzte tartean gertatzen diren fenomenoak kontuan hartuta. Xeheago azaltzea merezi duten hauek, bederen, ikusi ditugu: zailtasun maila eta garapen hurbileko eremua; erraztasuna, maiztasuna edota ohitura; zailtasun maila eta hizkuntza kontzientzia; bizipen, sentimenduen eta zailtasunen nolakotasuna eta gradua eta hizkuntza maila eta lagunen harreman sarea (lagunartea).

■ Zailtasun maila eta garapen hurbileko eremua

Hizkuntzaren ikaste prozesuak aukera gehiago ditu arrakastatsua izateko, edota baldintza egokiagoetan gerta daiteke, Vigotskyren «Garapen hurbileko eremua»-ren barruan mugitzen denean (eta horretarako osatu behar diren aldamiok [Wood, Bruner, Ross, 1976] egokiak direnean). Kasu horietan zailtasuna

ageri da, baina ikasle horiek badituzte aurrera egiteko baliabideak euskara ikasteko prozesuan eta horrek ongi eta pozik sentiarazten diete. Izan ere, ikaste prozesuan une oro neurriko erronka dutela aipatzen dute. Ikaste prozesu oro garapen hurbileko eremuan kokatzen denean, eta ikasleari horretarako baliabideak ematen zaizkionean, aurrera egiten du.

«Poza ikusten dudalako egunero hobeto ateratzen zaidala eta egunero normaltasunes gehiago hitz egiten dut.» (C3)

Eman beharreko urratsak garapen hurbileko eremutik kanpo ikusten direnean, ordea, prozesua blokea daiteke:

«D.B.H 1. mailan euskerako liburu bat irakurtzea eskatu zigun irakaslea eta ez zitzaidan ezer gustatu, bertan agertzen zen euskera ez nuen ulertzen eta oso gaizki pasatu nuen.» (C3)

Horregatik beharrezkoa da euskararen irakaskuntzan egokitasuna eta zuzentasunaren arteko oreka bilatzea, ikasleen euskara mailara egokitzea irakaste-prozesua, haien egoera mikrosoziolinguistikoa kontuan hartzea, oztopo txikiak gaindituz aurrera egiten dutela ikusaraztea, arrakasta bermatze aldera.

■ Erraztasuna, maiztasuna edota ohitura

Erraztasuna, maiztasuna eta ohituraren arteko lotura aipatzen dute ikasleek, ez baitakite oso argi haien hizkuntza

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

mailaren pertzepzioan zerk eragiten duen: erraztasunak, maiztasunak edota ohiturak.

«Bai, klasean, euskarako irakasleak, liburu bat euskaraz irakurtzea bidaltzen digunean, ez dut ezer ulertzen... Gauzak esatea gehiago kostatzen zait, ez dakit zergaitik, agian ohitura izan daiteke. zailtasuna, trabatzea, hitz batzuk gaizki esatea... Gaztelaniaz hitz egitean, dena errezagoa da niretzat. Ohiturarengatik izan daiteke.» (C1)

Non dago hiru elementu horien arteko muga? Hau da, noiz falta zaie erraztasuna ikasleei, noiz maiztasuna eta noiz den aurreko bi faktore horiek eragindako ohitura falta. Beste modu batera esanda, aurrera egiteko ezinbestekoa da ohitura faltaren azpian dauden arrazoiak ezagutzea. Ruiz Bikandik (2009) aipatzen duenez, hizkuntza batean trebatzeko «sarritan hitz egin behar da, sarritan errepikatu behar da, automatizatu egin behar da». Gutxieneko maiztasuna ezinbestekoa da erraztasuna (jarioa) lortu ahal izateko, horrek ohitura gauzatzen lagunduko baitu eta elikatuko baititu beste biak.

■ Zailtasun maila eta ikaste prozesuaren gaineko gogoeta (kontzientzia)

Euskara mailaren eta ikaste prozesuaren gaineko gogoetaren (kontzientzia) arteko lotura agertzen da zenbaiten kasuan. Hizkuntzaren gaineko gogoeta zailtasunei aurre egiteko baliabide gisa agertzen da, izan ere, zailtasunen atzean ez dago emozio txarrik edo baldin badaude

horiek ez dute indar nahikorik. Agertzen diren sentimenduak kontrajarriak dira zenbaitetan: alaitasuna eta urduritasuna; zailtasuna baina gustura; pozik egunero hobetzen ari delako. Lehenago aipatu dugun ekuazioaren pertzepzioan etekinak edo onurak kostuak baino handiagoak dira eta, gainera, aurrerapena ikusten dutenez, horrek ere ekuazioaren emaitza etekin eta onuraren aldekoa izatea lortzen du.

«Poza, pixka bat zailtasuna batzuetan hitz batzuk ez zaidalako ateratzen, gustura, jakintsua, eta betea.» (C1)

«Ongi sentitzen naiz beste hizkuntza bat dakidalako baina kostatzen zait pixka bat.» (C3)

Irakaskuntza ikasle hauen garapen hurbileko eremura egokitua dago eta zailtasun eta arazoaren kontzientzia (gogoeta) atxikimenduari lotua (poza, alaitasuna, gustura, jakintsua, beste hizkuntza bat). Horien ondorioz, zailtasunen nolabaiteko onarpena agertzen da.

■ Bizipen, sentimenduen eta zailtasunen nolakotasuna eta gradua

Gaitasuna zenbaitetan nahiko modu orokorrean agertzen da, baina beste zenbaitetan zailtasunaren nolakotasuna argi zehaztu eta adierazten dute, esate baterako: zailtasunak dituzte aditzak konjugatzeko, hitz egokiak ez zaizkie ateratzen, komunikatzeko hiztegi nahikorik ez dakite. Bestalde, haien bizipenak eta sentimenduak ez direla maila berekoak

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK


4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

edota gradu berean agertzen esan behar dugu. Batzuk beldurtuta, lotsatuta, deseroso eta urduri sentitzen dira; beste batzuek, aldiz, segurtasun falta sentitzen dute, edota arraro sentitzen dira. Hitz guzti horietatik ondorioztatzen dugu sentimendu eta bizipen horien gradua eta intentsitatea desberdina dela. Lehen aipatu dugun bezala, sentimenduen intentsitateak pisu handia dauka kostu-eteekin ekuazioan.

Beldurra sentitzen duenak ikaragarriko ahalegina egin behar du kostu hori etekin bihurtzeko eta gainditzeko, beraz, pagatu behar duen kostua oso altua da. Continuum horretan muturreko sentimenduak (beldurra) zein beste leunago batzuk (segurtasun falta, arraro sentitzea) agertzen dira. «Irabazi-galerak» lerroan ikasleak non kokatzen diren kontuan hartuta kalkulatu genuke bakoitzaren kostu-eteकिनaren emaitza.

SENTIMENDUEN GRADUA



Ikasleek zailtasunak non dituzten jakitea garrantzitsua da, «irakasleok gure ikasleek euskararen arazoak non dituzten zehaztu behar dugu, gero horiek gainditu ahal izateko» (Ruiz Bikandi, 2009). Ikasle bakoitzak bere-bereak dituen ezaugarriak zehaztea lagungarria ez ezik, komenigarria ere bada hizkuntza horretan ahalik eta baldintza egokienetan aurrera egiteko eta maila txukuna lortzeko. Euskararen irakaskuntzari dagokionez ikasle bakoitzak zailtasunak non eta zertan dituen zehazteak bidea erraztuko lukeela ez dago zalantzarik.

«Sentitzen naiz beldurtuta zeren aditzak ez ditut oso ongi dominatzen.» (C3)

«Deserosoa, urduri. Beldurra ematen didalako hitzekin tratatzea.» (C3)

«Euskaraz ez dakidala oso ongi hitz egiten batzutan ez zait ateratzen ongi aditza eta lotsatzen naiz.» (B1)

«Nik ez dut gogoratzen baina seguro izan ditudala (esperientzia txarrak), igual konfunditzen banaiz edo fara eiten dute nitaz.» (B1)

«Segurtasun ez askorekin, batzutan hitzak ateratzen ez zaizkidalako.» (C2)

Ikasle askok adierazten dute ikusten dutela zailtasunak dituztela baina ez dakitela zertan; beste batzuk, aldiz, gai dira

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

zailtasun horiek non dituzten zehazteko, eta horrela errazagoa da tresna egokiak ematea.

■ Maila eta lagunen harreman sarea

Gaztetxoek euskara mailari buruz daukaten pertzepzio eta sentimenduek lagunekin erabiltzen duten hizkuntza baldintzatzen dute, zenbaitetan. Eredu erdaldunetan lagunekin gaztelaniaz aritzen direla aitortzen dute, batzuek arrazoi berezirik adierazi gabe eta beste batzuek, aldiz, deserosotasuna aipatzen dute.

«Lagunekin gazteleraz hitz egiten dugu zeren euskaraz hitz egiten deserosoago sentitzen gara.» (C3)

«Saiatzen naiz euskeraz lagunekin hitz egiten, baina kostatzen. Hala ere, euskaldun izateko gogoia dut. Lotsa ematen dit ez dualako gaztelania bezain ongi kontrolatzen. Baina era berean ongi sentitzen naiz nire hizkuntzan hitz egiteaz.» (B1)

Ohitura jotzen dute deserosotasun horren arrazoitzat. Baina, lehen aipatu dugunez, ohituraren azpian sarritan erraztasuna dago eta horrekin lotuta, maiztasuna. Osagarriak dira: gehiago erabiliz ohitura hartu, ondorioz, erraztasun gehiago, eta berriro hasi gupil horretan.

4.2.1.2

Euskara mailarekin arazorik ez

Euskara mailarekin eta hizkuntza gaitasunarekin arazorik ez duten ikasleak ere badaude, haien hitzetan. Beraz, alde

on hori azpimarratu behar da eta horren azpian dagoena azaleratu. Mailarekin gustura eta eroso egoteak edo, beste modu batera esanda, maila ona izateak hizkuntza horrekiko lotura indartzen duela ondoriozta dezakegu. Besteak beste, honako sentimenduak agertzen dira: poza bi hizkuntza dakizkitelako, poza euskaraz hitz egiten, «sentimendurik ez» hori delako normala (ohikoa), ongi sentitzea, eroso, erraza egiten zaiolako, ongi hitz egiten duela sentitzen duelako, hobekien dakien hizkuntza delako, erraza delako. Aipamen horien guztien atzean euskara maila onaren pertzepzioa agertzen da. Horrek erakusten du, berriro ere, hizkuntza maila erabakigarria dela ikasleen hizkuntzarekiko pertzepzio eta bizipenetan.

«Ez dut ezer sentitzen urteak eta urteak eman ditut hitz egiten eta normal ateratzen zait.» (C3)

«Nire sentimenduak euskeraz hitz egiten dudanean onak dira, eroso sentitzen naizelako.» (C3)

«Eskola hasi nuenean euskara ez nuen oso ondo ulertzen, baino orain oso erraza egiten zait euskaraz hitz egitea. Lagunen artean ez gaude euskaraz hitz egitera ohituta, baina niri gustatuko litzaidake euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea.» (B2)

«Lagunekin nagoenean beti euskaraz hitz egiten dugu gure artean, erderaz hitz egitea arraroa egiten zaigu eta. Nire ustez, hizkuntz egoera denak oso antzekoa daukagu, agian beraiek nik baina gehiago erabiltzen dute euskara etxean, nik aita erdalduna dut eta, baina gure artean inoiz ez dugu erderaz hitz egiten.» (A2)

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

«Euskaraz ari naizenean, eroso sentitzen naiz, hanka sartzeari beldur gabe. Nire bizitzan pasa ditudan momentu onenatarikoak euskaraz hitz egiten izan direlako» (A2)

«Euskera delako hobekien dakiten hizkuntza ongi sentitzen naiz.» (A1)

Hizkuntza ikasteko prozesua nolakoa izan den azaltzeko orduan, batzuek oso ongi adierazten dute prozesu hori: nola hasi ziren euskara ikasten, non dauden une honetan, zer-nolako ibilbidea egin duten, eta ibilbide horretan hizkuntza ikasteko prozesua eta, zeharka, maila ere aipatzen dute. Norberaren ibilbidea adierazteko gai izate horrek haien egoera ulertzen laguntzen diela uste dugu. Prozesu hori ezagutzea aurrera begirako urratsa da, hizkuntzarekiko atxikimenduan zein hizkuntza mailaren pertzepzioan.

«3 urterekin Alaitzen hasi nintzen. Ez naiz gogoratzen zer egiten nuen 5 urte arte. Baina 5 urte neukanean Euskara banekien. Nik ez nintzen jaio euskara jakinda, baina 6. mailan fijatu nintzen ume txikiak ikasten ari zirela. Nik seguru berdina egingo nuke. Baina seguru hasi nintzenean ez nuela ulertzen ni erdarazko haurtzaindegira joan nintzelako. Beste batzuk Alaitzeko haurtzaindegira joan ziren eta agian Alaitzera pasatzean zerbait zekitela. Orain, institutuian nago eta etxean nire aitarekin euskaraz hitz egiten dut. Amak pixka bat badaki ikasi zuelako. Baina berarekin ez dut hitz egiten. Nire herrian daukadan lagunak, bik soilik euskaraz hitz egiten dute. Eta gehienak Barañainen bizi dira.» (C3)

Hizkuntza erregistroak. Etxeko euskararen eta eskolan ikasitakoaren arteko aldea aipatzen dute herriko hizkera darabiltenek. Hitzun dentsitate Txikiko Eremuan, ordea, ikasle gehien-gehienek erregistro bakarra dute, eskolakoa, herriko edo etxeko euskara dakiten gutxi batzuk kenduta.

Sarritan aipatzen da erregistro ez-formalen beharra, baliabide gisa, euskararen erabileran aurrera egiteko. Bestalde, ikasleak ez dira sobera kontziente etxean edo lagunekin hitz egiten dutenean (euskaraz nahiz gaztelaniaz) hizkera mota bat erabiltzen dutela eta eskolan irakasleekin eta ikaskideekin beste bat.

«Nire etxean euskara ezberdina hitz egiten dudala eta institutuian ez dudala euskara mota hori hitz egiten.» (C2)

«Ere bada beste herrikoak euskara perfektuagoa daukate guk bortzirietakoak euskara oso desberdina daukagu adibidez donostikoekin konparatua.» (A1)

Etxeko edo lagunarteko hizkera dutenek eta ez dutenek urruntasuna nabari dezakete hasierako harremanetan, bestearen egoera ulertzeko gauza ez badira.

Hori guztia nola josi garrantzitsua izanen da aurrera begira.

4.2.2

GAZTELANIA MAILAREN PERTZEPZIOA

Jatorriz erdaldunak diren ikasleek aipamen urriagoak egiten dituzte gaztelaniako mailari dagokionez Aipatzen badute,

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1.
HIZKUNTZAREKIKO
ATXIKIMENDUA EDO
LOTURA AFEKTIBOA

4.2.
HIZKUNTZA
GAITASUNA

4.3.
HIZKUNTZAREKIN
LOTUTAKO SENTIPEN
KONTRAJARRIAK
ETA DESOREKAK.
GATAZKAK ETA
ANBIBALENTZIAK

4.4.
HAINBAT OHAR
HIZTUN-DENSITATE
HANDIKO EREMUKO
IKASLEEI BURUZ

4.5.
GENEROAREN
ARABERAKO
IRAKURKETA

esaten dute haien hizkuntza dela eta normaltasunarekin eta segurtasunarekin lotzen dute. Haiendako ohikoa eta normala dena gaztelaniaz hitz egitea da.

«Normalago sentitzen nahiz normalean gaztelaniaz hitz egiten dudalako. seguruago eta trebeago sentitzen naiz» (C3)

«Normaltasunez hitz egiten dut eta lasaiago» (C2)

Nahiz eta gurasoak euskaldunak izan, zenbait kasutan ikasleek gaztelaniaz erraztasun handiago dutela aitortzen dute, gaztelaniaz seguruago eta trebeago daudela.

[Gaztelaniaz] «Normal sentitzen naiz, baino seguruago. Seguruago sentitzen naiz eta trebeago» (C1)

«Gaztelaniaz hitz egitean, dena errezagoa da niretzat. Ohiturarengatik izan daiteke» (C1)

Jatorriz euskaldunak diren ikasleek, berriz, gaztelaniari buruz galdetzen zaienean hauxe diote: ez daudela oso gustura, arraro samar sentitzen direla, ez dutelako gaztelaniaz ongi hitz egiten.

«Ez naiz horren ongi sentitzen. Gazteleraz ez dudalako oso ongi hitzegiten.» (A1)

«tarrak, eske ez dakit erdaz ongi hitzeitten denak esaten ditea kriston astakerik botatzetotela.» (A1)

«Ez naiz seguru sentitzen betidanik euskera solasten dudalako.» (A1)

«Urduritasuna. Batzuetan hitz batzuk ez ditudalako entenditzen.» (A1)

«Ez zait gaztelaniaz hitzegitea solasten oso ondo solasten ez dakidalako orduan, ez naiz gustura sentitzen agobiatzen naiz.» (A1)

Ez daude eroso gaztelaniaz hitz egiten, ez delako haien ohiko hizkuntza eta horrek sarritan erraztasunean eragiten duelako. Lehen aipatu dugun prozesu bera baina beste hizkuntzari dagokionez.

4.3

Hizkuntzarekin lotutako sentipen kontrajarriak eta desorekak. Gatazkak eta anbibalentziak

Ikasleek erabiltzen dituzten bi hizkuntzen arteko gatazka baino, haien barruko gatazkak eta sentimendu kontrajarriak aztertu ditugu. Izan ere, euskararekin duten harremanak sentimendu eta emozio kontrajarriak eragiten dizkie eta horiek barne gatazka gisa ageri dira.

Barne gatazka horren edo anbibalentzia horren nolakotasuna eta zergatiak zenbaitetan hizkuntza mailari lotuta agertzen dira, aurreko atalean ikusi dugun moduan; baina, beste zenbaitetan, kontua korapilatsuagoa da eta hari mutur gehiago ditu, beraz, barne gatazka hauek berezko nortasuna hartzen dute. Zenbait ikaslerengan sentimendu eta bizipen

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1.
HIZKUNTZAREKIKO
ATXIKIMENDUA EDO
LOTURA AFEKTIBOA

4.2.
HIZKUNTZA
GAITASUNA

4.3.
HIZKUNTZAREKIN
LOTUTAKO SENTIPEN
KONTRAJARRIAK
ETA DESOREKAK.
GATAZKAK ETA
ANBIBALENTZIAK

4.4.
HAINBAT OHAR
HIZTUN-DENTSITATE
HANDIKO EREMUKO
IKASLEEI BURUZ

4.5.
GENEROAREN
ARABERAKO
IRAKURKETA

kontrajarri horiek ezinegona eragiten dute: haien barruko nahia euskararekin agertzen da, euskara haien egunerokoan erabiliz arduraz jokatu nahi dute, baina, era berean, ezin dutela aitortzen dute. Gatazkaren kontzientziaren jakitun diren ere jakin nahi dugu, gatazkaren bizipenak bederen oso garbi ageri direlako. M^a Jose Azurmendik dioen moduan, garrantzitsua da hizkuntza ukipena zer den jakitea, horrek lagunduko duelako gatazkaren iturria jakiten eta, ondorioz, ulertzen. Honela dio M^a Jose Azurmendik hizkuntz ukipenei buruz Elebitasuna eta Eleaniztasuna eskolan gaia planteatzen zaionean:

«Soziologiara pasatuz, oso garrantzitsua da hizkuntz ukipena zer den jakitea eta zeintzuk diren ukipen horretan dauden hizkuntzak. Hizkuntza batzuk ukipen egoeran egoteak esan nahi du (eta gurean ere hala esan nahi du) haien artean asimetrikoak direla eta haien arteko asimetria, desoreka, geroz eta handiagoa izan, batek botere handiagoa izango du.» (Azurmendi, 2008, 25 or.)

Ikasleek bizi duten euskararekiko gatazka sentimendu anibalalenteen bidez ageri da, anibalalentzia afektiboa deitu izan dena. Hau da, pertsona berak (ikasle berak) sentimendu kontrajarriak ditu euskararekiko, poza eta tristura, poza eta pena, zoriontasuna eta pena, aldi berean.

Maitasun-gorroto ohiko anibalalentiaren formak azaldu dira ikerketan. Beraz, zera aztertu nahi dugu: noiz sortzen da anibalalentzia hori ikasleengan?, noiz gertatzen da maitasun-gorroto sentimendu

hori? Demagun ikasle batengan euskara poza eta plazer iturri dela, orduan, esanen dugu gaztetxo horrek hizkuntzarekin duen harremanaren balentzia positiboa dela; alderantzizko harremana dagoenean, hau da, tristura edo pena agertzen denean, ordea, balentzia negatiboa dela esanen dugu. Baina gaztetxo berarengan sentimendu kontrajarriak agertzen direnean, hau da, poza eta tristura batera, harremana anibalalentea dela esanen dugu, hots, maitasun-gorroto harremana. Harreman mota horrek dena dela, gure kasuan bertsio desberdinak dituela ikusi dugu: hau da, poza/tristura; harro/pena; ongi/marjinatua...

Gatazkak hari mutur ugari erakusten ditu, hau da, gatazka horren hainbat iturri agertzen dira: hizkuntza maila, hizkuntzak bizi duen egoerarekiko erantzukizuna eta erabilera eskasa, norbere hizkuntza izatea baina aldi berean eraman beharreko zama izatea.

Dena den, ikasle batzuek euskara ez dute gatazka gisa bizitzen edo behintzat ez dute horri dagokion aipamen garbirik egiten, esan dezakegu balentzia hori ez dela ez positiboa ez negatiboa, edota ez dela ageri ikasle horien diskurtso zatietan. Baina, oro har, anibalalentzia agerikoa da aztertutako diskurtsoetan. Gaztetxoei euskarak sorrarazten dizkien sentimenduei buruz galdetzen zaienean, zenbait sentimendu kontrajarri batera agertzen dira: poza eta tristura; zoriontsu (pozik) eta triste; zoriontsu egon, poztasuna sentitu, alaitsu egon eta, aldi berean, tristura/pena; harrotasuna

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1.
HIZKUNTZAREKIKO
ATXIKIMENDUA EDO
LOTURA AFEKTIBOA

4.2.
HIZKUNTZA
GAITASUNA

4.3.
HIZKUNTZAREKIN
LOTUTAKO SENTIPEN
KONTRAJARRIAK
ETA DESOREKAK.
GATAZKAK ETA
ANIBALENTZIAK

4.4.
HAINBAT OHAR
HIZTUN-DENTSITATE
HANDIKO EREMUKO
IKASLEEI BURUZ

4.5.
GENEROAREN
ARABERAKO
IRAKURKETA

(euskara jakiteaz harro daude) eta, aldi berean, halako zama (asperdura, tristura).

«**Zoriontsu**, *Poztasuna, Alaitsu, Tristura, Pena*. [Sentimenduak] *Onak dira, euskara jende gutxik daki horrek esan nahi jende zoriontsua garela euskara jakiteagatik.*» (C1)

«**Poza, tristura, zoriontsu**. [Sentimenduak] *Gaztelera euskara baino erresagoa da zeren txikitatik nekien.*» (C3)

Gaztetxoek «poza» adierazten dute euskararekiko eta gaztelaniarekiko, hau da, zenbait kasutan hitz berberak erabiltzen dituzte bi hizkuntzekin dituzten sentimenduak adierazteko, baina gero ematen dituzten arrazoiak desberdinak dira. Euskararen kasuan: hizkuntza polita, zaharra, gure hizkuntza... (balio sentimentala) delako, horregatik poza erakusten dute. Aldiz, gaztelaniaren kasuan: komunikatu ahal dut, espresatzen naiz, denek dakite, hau da, hizkuntzaren balio funtzionala nabarmentzen dute.

Hiztun-dentsitate Txikiko Eremuko familia euskalduneko zenbaitek ere halaxe ikusten dute.

[Euskaraz ari naizenean nire sentimenduak...]

«**Bitxiak dira, beste batzuk ez dakitelako nik dakidan hori. Arraroa, bitxia, pentsakorra, nekatua, urduria.**

Gaztelaniaz ari naizenean nire sentimenduak...

Gustokoak dira, askoz errazagoa delako hitz egitea. lasai, ongi, pentsakor, libre, nekatua» (C1)

Zenbait diskurtsotan anbibalentzia beste osagai edo ezaugarri batzuen bidez

agertzen da. Horietako batzuk neurri batean kontrajarriak dira: maitasuna eta lotsa; euskaraz gehiago hitz egin behar da baina ez da egiten; arraroa eta ohikoa; sufrikario eta gozamena. Azter ditzagun zeintzuk diren aipamen horien atzean dauden zergatiak:

1. Euskararekiko poza eta alaitasun sentimenduen atzean, besteak beste, hauexek daude: hizkuntza zaharra delako, gure hizkuntza delako, maite dudalako nire hizkuntza, hizkuntzarik zaharrena delako, hizkuntza sustatzen laguntzen ari direlako, lagunak dituztelako, gozamena sortzen dietelako, herriko ohitura delako.
2. Arraroa, espeziala eta marjinatua sentitzearen sentsazioaren atzean zer dugu: ingurukoek ez dakitelako, gehiago hitz egin beharko luketelako baina zaila egiten zaie mailarengatik, ingurukoek ez dakitelako, marjinatua iruditzen zaielako gizartean baztertuak daudelako.
3. Lotsa eta deseroso sentitzearen atzean dagoena: iruditzen zaielako beste batzuek baino okerrago hitz egiten dutela, gehiago hitz egin beharrak sortzen dizkielako ardura eta deserosotasuna.

«**Lotsa, Gure Hizkuntza, Euskal Herria, Eskola, Maitasuna** Lotsatuta eta deserosoa.

[Bizipenak] *Nire ama euskaraz hitz egiten zidan. Hori eskolarekin lotzen dut. Nire lagun batekin euskaraz egiten saiatzen nahiz eta bera nirekin baita ere. [...] Etxean gaztelera hitz egiten dut nire gurasoekin. Lotsa ematen dit zenbaitekin euskaraz hitz egitea, ni baina hobeto hitz egiten dutela pentsatzen dudalako.*» (B2)

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

«**Espeziala, marjinaua, ongi, arraroa, polita.** [Euskaraz] *Sentitzen naiz pixkat ezpeziala baino marjinaua societatearen gatik, ongi badakidalako hizkuntz bat galtzen ari dena.* [Gaztelaniaz] *oso ongi asko dakidalako eta dominatzen dudalako, normala, ulergarria, ongi, polita espeziala.*» (C3)

«**Maitasuna, lotsa, urduri, motibatuta, ongi.**» (C3)

Azken finean, sentimendu kontrajarri horien arteko anbigualtasuna. Espeziala, marjinala, arraroa baina aldi berean ongi; ongi baina aspertuta ere bai; hizkuntza mailarekin lotutakoa (segurtasun gutxi baina harro); urduritasuna eta beldurra baina eskuzabaltasuna.

■ Anbigualtasuna eta hizkuntza gaitasuna

Hainbat adibidetan ikusi dugunez, anbigualtasuna sortzen duen arrazoietako bat hizkuntza gaitasuna da, modu desberdinetan formulatuta baina ohikoa da arrazoi hori jartzea gatazkaren iturrian. Uri Ruiz Bikandik (2009) dioten moduan hizkuntza ikasteko eta hizkuntza erabiltzeko bi gauza behar dira: atxikimendua eta erraztasuna (gaitasuna). Gaitasuna falta denean ikasleek lotsa sentitzen dute, okertzeko lotsa edo hitzak ez zaizkiela ateratzen, alde batetik pozik baina bestetik urduri zerbait gaizki esateko, urduritasuna, beldurra hitzekin tratatzeko... eta hizkuntza hori alboratzeko gogoia, sarritan, ez beti. Hizkuntza-antsietatea ere deitu izan zaio fenomeno horri eta gurean ahozko ekoizpenari (erabilerari) buruz ari garenean

agertu da. Duela gutxi Cenoz eta Santosek (2017, 4. or) argitaratutako ikerketan euskara bigarren hizkuntza dutenengan komunikazio-antsietatea honela jaso dute:

«Antsietatea ahozko ekoizpenarekin lotu izan da sarritan, kontzeptuaren azpimota bat sortzeraino: komunikazio-uzkurdura (Horwitz et al., 1986; MacIntyre & Gardner, 1989). Antsietate-mota jakin bat da komunikazio-antsietatea, komunikazio-ekintza bat egin behar izatearen beldurra eragiten duena (Rubio, 2004). [...]

Hizkuntza-antsietatea ez da faktore isolatu bat; aitzitik, faktore indibidual, sozial, linguistiko eta egoerazko ugarirekin lotuta dago. Ikerketek antsietatearen eta beste hainbat faktoreren arteko erlazioa aztertu dute; faktore horietako batzuk dira adina, generoa, nortasuna, hizkuntza-maila, motibazioa eta eleaniztasuna, besteak beste (ikus, adibidez, Dewaele, 2007a, 2007b).»

«**Polita, zaila, libre, poza.**

Euskaras hitz egiten dudanean oso ongi sentitzen naiz. zeren oso hizkuntza polita delako. [...] Nire aiton-amonak euskaras hitz egiten zuten. [...] Txikitaz nire lagunekin euskaraz hitz egiten genuen, oso gaizki hitzegiten genuen. [...]

Gaztelania hitz egiten dudanean oso ongi sentitzen naiz. Libre sentitzen naiz. poza, libre, poza, erreza» (C3)

«**polita, saila, hitz egiteko deserosoa deserosoa zentitzen nahiz, nire euskara oso ona ez delako.** [Gaztelaniaz] *segurtasuna*» (C3)

Komunikazio-antsietatearen adierazletzat agertzen zaizkigu ikasleek esandako zenbait sentimendu.

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1.
HIZKUNTZAREKIKO
ATXIKIMENDUA EDO
LOTURA AFEKTIBOA

4.2.
HIZKUNTZA
GAITASUNA

4.3.
HIZKUNTZAREKIN
LOTUTAKO SENTIPEN
KONTRAJARRIAK
ETA DESOREKAK.
GATAZKAK ETA
ANBIBALENTZIAK

4.4.
HAINBAT OHAR
HIZTUN-DENTSITATE
HANDIKO EREMUJO
IKASLEEI BURUZ

4.5.
GENEROAREN
ARABERAKO
IRAKURKETA

■ Anbibalentzia eta hizkuntza gogoeta

Ikasleek bi hizkuntzen (euskara eta gaztelaniaren) arteko ukipen egoera (gatazka) nola bizi duten, egoerari buruz zer informazio duten (hizkuntz gogoeta) (Azurmendi 2008, 22-28), hau da, egoeraren berri ba ote duten ala ez aztertzea merezi du. Ikusi dugunez, gatazkaren formulazioan ikasleek duten hizkuntz kontzientzia esanguratsua da haien diskurtsoa egituratzeko orduan. Sarritan ez dute esplizituki adierazten baina bai zeharka, sentimendu horien zantzuak agertzen direlako haien hitzetan. Euskararen ukipen egoerak ikasleengan ezinegona sortzen du, oso garbi ez dakitelako zer gertatzen den edota zer gertatzen zaien, baina zerbait gertatzen dela bizi dute. Ez dakite zergatik hitz egiten duten gaztelaniaz, aldi berean, euskaraz hitz egin beharra ere aitortzen dute, euskararentzat garrantzitsuak direla uste dutelako. Pozik daude, baina aldi berean arraro sentitzen dira: euskaraz hitz egin behar dute, baina gutxi hitz egiten dute.

Anbibalentzia hori azaltzeko zenbait arrazoi edo gertatzen denaren zenbait azalpen ematen dituzte: «gutxi hitz egiten dut euskaraz»; zama gisa agertzen da; gaztelania handia da eta euskara txikia, horregatik zaila da euskaraz hitz egitea; deseroso eskolaz kanpo ez delako hitz egiten, jendeak badaki baina ez du hitz egiten... Eskolaz kanpo euskaraz hitz egiten ez dutelako triste daude. Euskaraz jakinda lagunartean gaztelaniaz hitz egiteak gustura ez egotea ekartzen die. Euskara zaindu egin

behar da. Egoerarekin haserre agertzen dira jendeak hitz egiten ez duelako. Euskara desagertu egingen da. Haien diskurtsoa ulertzeko gaztelaniari buruz esaten dutena adieraztea ere komeni da.

«*Poza baino arraro sentitzen naiz. Poza euskaraz hitz egin behar dudalako, eta arraro sentitzen naiz gutxi hitz egiten dudalako euskeraz*

[Bizipenak] [...] *Batzuk ni baino hobeto hitz egiten dute eta beste batzuk berriz gaizkiago.*
[Gaztelaniaz] *Euskaraz hitz egin behar dudala pentsatzen dut baina lasai sentitzen naiz.*»
[...] (B1)

«*Batzutan lotsaz beste batzutan gustora. Lotsa zeatik ez tut batzutan euskaraz hitz egin nahi, baino gustora nagoenean atsalde guztia egon nezake euskaraz hitz egiten.*

[Gaztelaniaz] *Gaizki ta eroso. Eroso sentitzen naiz zeren eta hobeto hitz egiten dut. Baina gaizki zeren euskalduna izanda ez dut ulertzen erderaz egin beharra.*» (B1)

[Euskaraz] «*Poza, hizkuntza zahar eta niretzat berezia hitz egiten dudalako eta sentitzen dut horrela ez dela galduko. Berezia, zaharra, polita, alaia, klasikoa*

[Gaztelaniaz] *Ez oso gustora, euskara jakinda koadrillako guztiak gaztelaniaz hitz egitea ez zait egokia iduritzen, euskara zaindu behar da eta.*» (C1)

«*Pozik sentitzen naiz, gure hizkuntza delako eta zaindu behar delako. Euskaraz dakiten jendearekin gaztelaniaz hitz egiten dudanean tristura sentitzen dut.*» (B1)

«*Pozik, ba euskera asko gustatzen zait baina nik hitz egitea ez.*» (C3)

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1.
HIZKUNTZAREKIKO
ATXIKIMENDUA EDO
LOTURA AFEKTIBOA

4.2.
HIZKUNTZA
GAITASUNA

4.3.
HIZKUNTZAREKIN
LOTUTAKO SENTIPEN
KONTRAJARRIAK
ETA DESOREKAK.
GATAZKAK ETA
ANBIBALENTZIAK

4.4.
HAINBAT OHAR
HIZTUN-DENTSITATE
HANDIKO EREMUKO
IKASLEEI BURUZ

4.5.
GENEROAREN
ARABERAKO
IRAKURKETA

Hizkuntzaren kontzientzia modu desberdinetara agertzen da, esan bezala, eta sarritan ikasleek duten informazioarekin eta izan dituzten bizipenekin lotuta ageri da. Batzuek oso garbi azaltzen dute, esate baterako, etxekoek emandako informazioa (atxikimendurako beharrezkoa) haien ikaste prozesuari buruz, izan ere, horrek egoera ulertzen lagundu die eta, ondorioz, aurrera egin nahi dute euskararekin. Beste batzuek esaten dute penagarria dela lagunekin ez hitz egitea eta hortxe gelditzen dira. Tarteko bidea aukeratu dutenak ere badira, koadrila osoa dagoenean ez dute euskaraz egiten, baina gutxiago direnean bai, bi, esaterako. Nolabaiteko irtenbideak aurkitu dituztela ageri da haien diskurtsoetan, gatazka kudeatzeko neurri batean erabilgarriak.

«Nik lehenago ikasi izan behar nuen baina haurtzaindegian ez zegoenez lekurik ezin nuen ikasi. Nire gurasoak ez dakite euskara, aldiz, nire aitona bakarrik euskera zekien zekien baina nire aitari ez zion erakutsi bera oso gaizki pasatzen zuelako bere lanbidean. Nire anaia eta ahizpa euskara badakite baina ez dugu gure artean hitz egiten, baina hori nire lagunekin ere gertatzen da bakarrik klasean haritzen garelako. Baina niri gustatuko litzaidake unibertsitatera jongo banintz euzkaraz egitea.» (C3)

«Nire lagunekin lotzen dut duela 10 urte edo horrelako zerbait. Batzuetan egiten dut koadrila osoa dagoenean ez baina bat edo birekin nagoenean bai.» (C3)

■ Anbibalentzia, ohitura eta taldearen presioa (lagunak)

Lagun taldearen presioa, sarritan, ohitura gisa agertzen da, hizkuntza bat edo beste lagun artean erabiltzeko ohitura; ohitura da, ez dago besterik, «horrela ateratzen zaigu». Kasu horietan badirudi ohituraren atzean dagoenari ez zaiola azalpenik bilatzen, modu neutroan interpretatzen dutela ere esan genezake. Hortaz, ez dago inolako loturarik hizkuntza kontzientzia eta hizkuntza ohituren artean. Bestalde, azpimarragarria eta txalotzekoa da zenbaitek egiten duten ahalegina euskaraz egiteko, nahiz eta, ahalegin horren ondorioa gehienetan, «ohiturak» eraginda, ikusgarria edo nabarmena ez izan.

«Lagunekin erderaz egiten dut kalean, baino klasean euskeraz. Ez da lotxa ematen digula, bakarrik da erderaz ateratzen zaigula, euskeraz atera ahal zaigun bezalaxe.» (C1)

«Ohituta gaudela gaztelaniaz hitz egitea, eta horregatik norbaitek euskaraz hitz egiten baldin badu, arraroa irudiko zaigu, hau da, es gaudela ohituta euskaraz hitz egitera.» (C3)

«Lagunekin normalean ez dut euskeraz egiten, batzuetan animatu egiten gara eta euskeraz asten gara hitz egiten baina azkenean gaztelaniaz bukatzen dugu, ohitura dugulako gaztelaniaz hitz egitea.» (C3)

Taldearen presioari dagokionez zenbait fenomeno, bederen, nahiko garbi azaltzen dira:

- Presioa ez da sumatu ere egiten, ez dago horren zantzurik, hau da, «horrela

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

da», ez dago inolako baloraziorik edota arrazoiketarik horri buruz, hori gertatzen da eta kitto.

- Pena da baina hala da, nolabaiteko balorazioa dago (pena), jarrera hau neutro faltsu gisa uler liteke, hau da, arrazoiren bat badago horretarako baina ez dute aipatu.
- Beste multzo batek hori zergatik gertatzen den adierazten du, hau da, zergatia aipatzen dute: «ez gaude gustura edo eroso», arraro sentitzen dira, lotsatuta, «pena edota nire lagun batzuek euskaraz ez dakite edota ez dute egin nahi».

«Bilbon bizi nintzenean, euskaraz aritzen nintzen nire lagunekin, baina hona etorri nintzenean, eskolan berriz, erderaz hitz egiten nuen. Erderaz hitz egiterakoan normal sentitzen nintzen, baina gero, handitzerakoan, ohartu nintzen irakasleak gogorrago izan zirela euskararekin, bainan igual igual esan behar dut, lagunekin... erderaz hitz egiten dugula. Pena bat da. Arraro sentitzen naiz, ohitua nago erderaz hitz egitea, familiarekin... Eta lotsa piska bat, zeren nire euskera ez da oso ona.» (C3)

«Pena bat da baina nire lagunekin euskera ez hitz egitea ohituta nago.» (C3)

«Lagunekin gazteleraz hitz eguiten dugu zeren euskaraz hitz egiten deseroasoago sentitzen gara.» (C3)

«Positiboak, euskara gustatzen zait baina, nire lagunak bakarrik gazteleraz egin nahi dute eta hori pena handia da.

[Euskara] Zoragarria, alaia, pisutzua, zaila eta oso polita.

[Gaztelania] Hitz egitea gazteraz erreza da, ez dut pentsatu behar hainbeste. Aspergarria, erresa, batzuk zaila, gendea hobeto ulertzen dizu...» (C1)

«Ikastolan euskaraz hitz egitea nahi zutenek, lehiaketa bat egiten genuen: euskaraz gehien hitz egiten zuen klasea irabazten zuen. baina jendea ez zuen euskaraz hitz egiten, bakarrik irakaslea ondoan zegoenean.» (C1)

Lagun-taldearen presioaz gain, euskara sustatzeko ikastetxean irakasleen aldetik hartu diren neurriak ere ageri dira zenbaitetan kanpoko presio gisa (irakaslearen presioa). Hartutako zenbait neurriren gaineko gogoeta egina dute, baina horien eraginkortasun eskasa argi eta garbi adierazten dute.

■ Anbibalentziarik eza

Gaztetxoen diskurtso gehienetan atzematen da euskararekiko anbibalentzia, batez ere C zonan, HdTE deitu dugun horretan (Hiztun-dentsitate Txikiko Eremua) bizi direnen gehiengoan. Oro har, euskararekiko afektibitate altua adierazten dute, baina ez dute erabiltzen; hau da, desoreka dute «teoria eta praktikaren artean». Multzo handi horrek nabaritzen ditu tentsio eta gatazkarik bizenak.

Hala ere, ikasle batzuek ez dute horrelako anbibalentziarik adierazten, baina ez denak arrazoi berarengatik. Batetik, batzuek balentzia positiboa erakusten dute: euskararekiko atxikimendua dute (pozgarria, alaitasuna, familia, jatorria, ongi sentitzea, polita, askea...) eta euskara erabiltzen dute. Are gehiago, hainbatek

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

hizkuntza ez galtzeko egiten ari diren ahalegina nabarmentzen dute.

«Nik euskaraz hitz egiten dudanean ongi zentitzen naiz izan ere ari naiz laguntzen hizkuntza bat ez galtzen. interesgarria, polita, dibertigarria, esnatzen dit entzuten dudanean eta oso ondo sentitzen nahiz jendeari entzuten diodanean euskaraz hitz egiten.» (C3)

«Poza, hizkuntza zahar eta niretzat berezia hitz egiten dudalako eta sentitzen dut horrela ez dela galduko.» (C1)

«Poza, dibertsioa... Euskaraz hitz egiten badakitelako eta solasteak dibertsioa sortarazten du batzuetan.» (A1)

«Ni harro nago nere hizkuntzaz.» (A1)

Bestetik, badaude beste batzuk lasai bizi direnak ere bai, gataztarik gabe, baina balentzia negatiboa dutelako; hizkuntzatik «urrunduta» daude: ez dute erabiltzen eta ez dute lotura emozionalik euskararekin.

«Ez dut euskararekin oroitzapen ona gogoratzen. Ez dut lagunekin euskaraz egiten. Irakasleak gaztelaniaz hitzegiten entzuten didanean eta bronka botatzen didanean (oroitzapen txarra). Nik gaztelaniaz hitz egiten dut.» (B3)

«Ez daukat euskararekin oroitzapen ona horregatik nire lagunekin gazteleraz hitz egiten dugu, aldiz, oroitzapen txarrak ematen dizkit adibidez, etxerako lana egitean zerbait ez dakit eta nire ama nola ez du ulertzen gaizki sentitzen naiz» (C3)

Horrelakoak ez dira asko, baina mereziko luke ikasle horien motibazio edo desmotibazioaren arrazoiak sakon aztertzea, ematen duelako, hipotesi mailan bederen, gaztetxo hauek ohikoa den aipatutako teoria eta praktikaren arteko desoreka edo gatazka «aldentze emozional»aren bidez ebatzi dutela.

Ikasleek aukeratutako hitzak euskararekin lotutako sentimenduak adierazteko:

Positiboak	Tartekoak	Negatiboak
Poza Zoriontasuna Alaitasuna Alegria Gozamina Maitasuna Lasaitasuna Eskuzabaltasuna Polita Harrotasuna Eroso Emozioa / zirrara Jatorria Dibertsioa Berdintasuna	Urduritasuna Espeziala Marjinatua Arraroa Zaila Azpergarria	Tristura Pena Haserrea Beldurra Amorrua Desagertu Deseroso Penagarria Lotsa

4 ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

Hainbat ohar Hiztun-dentsitate Handiko Eremuko ikasleei buruz

Hiztun-dentsitate Handiko Eremuko ikasleen diskurtsoei aparteko tokia eskaintzeko beharra ikusi dugu, egoera soziolinguistikoak zenbait kontu baldintzatzen dituelako. Eremu hauetako ikasleek baldintza bereziak dituzte, gehienek hizkuntza etxean jaso eta erabiltzen dute eta herriko, gertuko komunitatearen giroa aski euskalduna dute, hau da, arnasmuneetako (Zalbide, 2003) ikasleak direla esan genezake. Fishman-en esanetan (Fishman, 1991) ikasle hauek etxe-auzo giro euskalduna dute, hizkuntza biziberritzeko 6. urratsa «ziurtatua» izan dutelako orain arte. Hau da, familia eta lagunekin lotzen dute hizkuntza, etxeko hizkuntza eta lagunarteko hizkuntza baita. Hari horretatik tiraka, arnasmuneetako ikasleak izanik haien hizkera moldea ere badutela agertzen da, alegia, herriko hizkera. Horregatik guztiagatik, eremu horretako ikasleen diskurtsoak, neurri batean, desberdinak dira.

Ikasle hauen hizkuntza maila ona da, erabilerara jauzi egiteko nahikoa ona, alegia, hizkuntza maila horrek zein horren pertzepzioak euskararen alde jokatzeko du eremu honetako ikasleengan; noski, aipatutako arrazoiak direla medio, euskara maila ez da bakarrik eskolaren esku egon.

Hizkuntza maila ona euskararen erabilerarako indargarria da, bultzatzailea, Txepetxen esanetan «nahikotasun maila» dute faktore batetik bestera jauzi egiteko, hau da, motibazio, ezagutza eta erabileraren arteko fluxua arazorik gabe mugitzen da hiztun hauen kasuan (Sanchez Carrion, 1991)

Ikus daitekeenez, ikasleak harro daude euskaraz jakiteaz eta hitz egiteaz.

«Txikitatik Euskera izan da nire ama hizkuntza, beti hala hitz egin dot eta hala seitzen dot. Nere Leitzako familikin lotzen dot, denekin euskeraz hiz egiten dut eta. Lagunekin Euskeraz hitz egiten dot nahiz eta erdera eta ingelesa jakin ere. Beti hori dena normaltasunez hartzen du.

[Euskaraz] *Normal eta eroso sentitzen naiz, adibidez, ez dit lotsik ematen Iruñeko norbaitekin hitz egiteak, ez bazaio gustatzen Euskera, hor konpon! Garrantzizua, polita, gorde beharrekoa.*

[Gaztelaniaz] *Eroso sentitzen naiz baina ez da euskerakin bezala, gaztelania beharra dauket gainera nire aitaren aldeko familiarekin hitz egiteko.*

Garrantzitsua, erabilgarria, ona» (A1)

Etxean aita edo ama erdalduna dutenek ere aurre egiten diote erronka horri inguru hurbileko giroak lagunduta. Kasu horietan aztertu beharrekoa da ama euskalduna izateak berme gehiago eskaintzen ote duen aita izateak baino. «Euskararen belaunez belauneko transmisioa EAEn» izeneko 2008ko ikerketak honako ondorioa azaldu zuen gai hori aztertu ondoren:

«Kasu guztietan transmisio-prozesuak portzentaje handiagoak lortzen ditu hizkuntza hobeto hitz egiten duena ama

4

ANALISI
SINKRONIKOA4.1.
HIZKUNTZAREKIKO
ATXIKIMENDUA EDO
LOTURA AFEKTIBOA4.2.
HIZKUNTZA
GAITASUNA4.3.
HIZKUNTZAREKIN
LOTUTAKO SENTIPEN
KONTRAJARRIAK
ETA DESOREKAK.
GATAZKAK ETA
ANBIBALENTZIAK4.4.
HAINBAT OHAR
HIZTUN-DENTSITATE
HANDIKO EREMUKO
IKASLEEI BURUZ4.5.
GENEROAREN
ARABERAKO
IRAKURKETA

denean, eta alde hori bereziki deigarria da kide bien arteko hizkuntzazko aldea handiagoa denean, hau da, batak ondo hitz egin eta besteak batere hitz egiten ez duenean.» (EJ-GV, 2008, 60. or.)

Hona hemen guk ikusitako bi adibide, lehenengoan ama da euskalduna eta bigarrenean aita, diskurtsoan aldaketa ikusi dugu, baina hipotesi mailan utziko dugu.

Ama euskalduna:

«Gogoratzen dudan lehenengo oroitzapena, nire amonak haurtzaindegira eramaten zidanean beti euskarazko abesti bat kantatzen nuela da, beti alai joaten nintzalako. Lagunekin nagoenean beti euskaraz hitz egiten dugu gure artean, erderaz hitz egitea arraroa egiten zaigu eta. Nire ustez, hizkuntz egoera denak oso antzekoa daukagu, agian beraiek nik baina gehiago erabiltzen dute euskara etxean, nik aita erdalduna dut eta, baina gure artean inoiz ez dugu erderaz hitz egiten. Euskaraz ari naizenean euskalduna naizela sentitzen dut.

[Gaztelaniaz] Desberdinak. Ez naiz oso eroso sentitzen erdararekin euskararekin bezala.» (A2)

Aita euskalduna:

Nere aitak euskeraz gauza politikak esaten zizkidan txikia nintzenean, oso oroipen onak ditut hortaz. Euskal Herriko eta Nafarroako lagun gehienekin euskeraz hitz egiten dut. Beste lekukoak direnekin, beti gaztelaniaz haiek ez dakitelako euskeraz.

[...]

Orokorrean gustura sentitzen naiz euskaraz ari naizenean. Hizkuntz polita dirudi zait. Politia, interesgarria, ongi sonatzen du...

[Gaztelaniaz] Agian euskeraz baina gusturago sentitzen naiz gaztelera hitz egiten. Lehenengo hizkuntza izan zen eta hobeto moldatzen naiz hitz egiteko orduan. Interesgarria, oso garrantzitsua, dibertigarria...» (A2)

Nahiz eta ikasleek antzeko egoerak bizitu, bizipen horiek oso barruko berezitasunak dituztela ohartzen gara ikasleen diskurtsoak ezagututa, nahikoa da ezaugarriren bat desberdina izatea sentimendua bestelakoa izateko, hari bat mugitzea matazak alde batera edo bestera egiteko (Mujika, 2009).

Eremu honetan ikasleengan ere euskararen nahiz gaztelaniaren hizkuntza maila elementu garrantzitsua da hizkuntzekiko sentimenduak eta bizipenak azaltzerakoan. Gaztelaniaz duten hizkuntza maila, zenbaiten ustez baxua, eroso edo ez eroso sentitzearen arrazoi nagusi gisa ageri da. Bestalde, ikasleek duten hizkuntza mailaren pertzepzioan presente daude besteengandik jasotako oharrak eta kritikak.

«[Euskaraz] Seguruago sentitzen naiz euskara ongi hitz egiten dudalako eta dakitelako. (sentimendu) Onak euskara ez delako galdu behar eta euskalherrian denak ez dutelako zolasten euskaraz.

[Gaztelaniaz] Ez naiz oso gustora sentitzen. oraindik ez dudalako hitz batzuk ulertzen.» (A3)

«[Euskaraz] Txikia nintzenean, euskara ikasi nuen eta hortik aurrera, beti euskaraz hitz egiten dut. Gainera etxean ere beti euskaraz hitz egiten

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

dugu, denak badakitelako eta horrela, euskararekin aritzea errazago izaten da. Lagunekin beti euskararekin aritzen gara baita kalean, institutuan... ere. Batzuetan, erderaz hitzegiten duteneki, erderaz hitzegiteak lotsa pixka bat ematen dit baina nire ustez, pixka bat hitzegitea ere komeni da. Poza, alaitasuna, normaltasuna.

[Gaztelaniaz] *Lotsa, normaltasuna, urduritasuna.*» (A1)

«[Euskaraz] *Pribilejioa. Ez duelako euskaldun guztik euskeraz hitz eitteko aukera.*

[Gaztelaniaz] *Lotsa. Ingurukoak ni baño geio dakiela ustetelako ta ordun ez naiz ausartzen hitz eittea.*» (A1)

Gaztelania jakitea ongi ikusten dute, oro har, beste maila batzuetara jotzeko bidea da: ikerketara, hirira, jakin beharrekoa. Hizkuntza funtzional gisa ikusten dute.

«[Gaztelaniaz] *Ausardia, jakinmina, ikasteko modua, inbestgatzea. onak españa osotik joaten ahal naizelkoz*» (A3)

Euskara mailari dagokionez, kasu bakanen batean eremu euskaldunetan bizitzeak ez du bermatu euskara maila ona.

«*Nire klaseko lehenengo egunean, ez nakien solasten baino lagun berriak egin nuen. [...]* Gazki sentitzen naiz, ez dudalako oso ongi hitz egiten. gazki, lotsa, beldurra...

[Gaztelaniaz] *Ongi sentitzen naiz, ongi hitz egiten dudalako*» (A3)

Zalbidek dioen bezala, gutxienez lau faktorek eragiten dute gure ikasleen euskara mailan: irakaskuntzako hizkuntza ereduak; etxeko, auzo giroko, lagunarteko hizkuntzak; ikasleen adimen mailak eta

ikastetxearen hizkuntza planteamenduak (Zalbide, 2003). Hizkuntza maila faktore garrantzitsua da eta horretan bizitokiak zalantzarik gabe zerikusia du, baina beste faktore batzuek ere bai, esate baterako, norberak burutu duen ikas prozesuak. Ez dago zalantzarik hizkuntza maila on bateko poza eta asebetetasuna eragiten dituela eta hizkuntza maila on hori lotuta dagoela etxeko hizkuntzarekin eta erabiltzeko ohiturarekin.

4.5

Generoaren araberako irakurketa

Generoaren ikuspuntutik, Hiztun-dentsitate Txikiko Eremuko gazteen diskurtsoan ikus daitezke hainbat zantzu neskek eta mutilek esaten dutenaren arteko ñabardurak irudikatzen hasteko. Gainerako eremuetan aldeak oso txikiak dira eta ez ditugu adierazgarritzat hartu. Datu bilketa zabalagoa jaso beharko genuke Hiztun-dentsitate Handiko eta Ertaineko Eremuetan neskek eta mutilek adierazten duten aldaketan ezberdintasunak atzeman ahal izateko.

Hiztun-dentsitate Txikiko Eremuko mutilek zein neskek aurreko ataletan aurkeztutako ezaugarriak dituzte hizkuntzarekiko atxikimenduari, lotura afektiboari eta hizkuntzaren jabekuntzari dagokienez. Askok pena adierazten dute euskara gehiago ez erabiltzeagatik edo sentimendu

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

anbibalenteak azaltzen dituzte, harrotasuna eta lotsa edo urduritasuna batera.

Baina hainbat neskaren erantzunetan mutilenetan agertzen ez den hausnarketa sakonagoa ikus daiteke. Nolabait esateko, bigarren urrats bat ematen dute arrazoi en edo ondorioen katean, adibidez:

- Hainbat mutil eta neskak, modu berean, euskaraz aritzea harrotasunarekin eta, batera, lotsarekin lotzen dute. Baina neskak dira euskararekiko gaitasun falta arrazoi gisa esplizitatzen dutenak («gaztelaniaz errazago egiten dugu», «euskaraz deseroso gaude»...).

«Ez, lagunen artean ez dugu euskaraz hitz egiten, ez dakit zergaitik, euskaldunak garelako, baina beti gauzak azkarrago esaten ditugu gazteleraz euskeraz baizik.» (C1 neska)

- Euskara gehiago ez erabiltzeagatik pena sentimendua maiz agertzen da neska zein mutilen erantzunetan, baina neskek, mutilek ez bezala, egoera horretan gazteek beraiek duten ardura («gehiago egin beharko genuke») azaltzen dute jarraian.

«Euskararekin gogoratzen dudan oroitzapenak nire lehengusuak euskaraz hitz egiten zizkidatenean. Lotsa sentitzen nuen, ekibokatzeko beldurra nuen. Lagunekin ez dut euskaraz hitz egiten baina hitz egin beharko genuke gehiago...» (C2 neska)

«Nire sentimenduak dira ongi sentitzen naiz euskaraz hari gerenean nire aitona-amonen hizkuntza erabiltzen hari naizela sentitzen dut eta euskara ez galtzen saiatu behar gara.» (C2 neska)

Bestalde, euskararen egoera sozialaren gaineko gogoeta nesken erantzunetan agertu da (hizkuntza gutxitua, galtzeko arriskua, kalean arraroa da...). Bakarren batek, adibidez, eleaniztasuna aberastasun gisa aldarrikatzen du.

«Nire lehenengo oroitzapen ona nire familian denak ekartzen garenean eta euskeraz abesten asten garenean da. Lagunekin normalean ez dut euskeraz egiten, batzuetan animatu egiten gara eta euskeraz asten gara itzegiten baina azkenean gaztelaniaz bukatzen dugu, ohitura dugulako gaztelaniaz itzegitea. Batzutan nire osaba euskeraz hitzegiten didanean lotsa sentitzen dut kostatzen didalako hitzak ateratzea. Nik uste dut toki batean hizkuntza bat baino gehiago hitzegitea oso aberatsa dela.» (C3 neska)

Norberak etorkizun batean euskararekin irudikatzen duen loturari dagokionez, askoz argiagoa da neskek euskarari aitortzen dioten funtzioa beraien bizitzetan: unibertsitatean euskaraz ikastea, esaterako, eta, orokorrean, gehiago hitz egiteko nahia.

«Nire anaia eta ahizpa euskara badakite baina ez dugu gure artean hitz egiten, baina hori nire lagunekin ere gertatzen da bakarrik klasean haritzen garelako. Baina niri gustatuko litzaidake unibertsitatera jongo banintz euzkaraz egitea.» (C3 neska)

Aipatutako aldeak erabat orokortuta ez badaude ere, neska guztiek ez baitute horrelakorik adierazten, esan dezakegu, adin honetan bederen, neskek mutilek baino joera handiago dutela zergatiak edo ondorioak bilatzeko.

4

ANALISI SINKRONIKOA

4.1. HIZKUNTZAREKIKO ATXIKIMENDUA EDO LOTURA AFEKTIBOA

4.2. HIZKUNTZA GAITASUNA

4.3. HIZKUNTZAREKIN LOTUTAKO SENTIPEN KONTRAJARRIAK ETA DESOREKAK. GATAZKAK ETA ANBIBALENTZIAK

4.4. HAINBAT OHAR HIZTUN-DENTSITATE HANDIKO EREMUKO IKASLEEI BURUZ

4.5. GENEROAREN ARABERAKO IRAKURKETA

5

Analisi diakronikoa

ad

5.1.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
AFEKTIBOAN

5.2.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
KOGNITIBOAN

5.3.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
KONATIBO-
KONDUKTUALEAN

5.4.
KONTROL
TALDEA

Ikasleek betetako bi erregistroen arteko konparazioa

Konparazioa egiterakoan kontuan hartu behar dugu bi erregistroen arteko epean ikasleekin esku-hartzea gelaratu zela eta esku-hartze horren eragina izan dela aztertu nahi izan duguna.

Zaila zen egindako saioek ikasleengan eragina izatea: denbora gutxian (bi hilabete) hiru saio (hiru eskola ordu) besterik ez ziren izan; are zailagoa lortutako balizko eragina emandako erantzunetan jasotzea.

Zailtasunak zailtasun, ikasle bakoitzaren jarraipena egitea izan zen bide bakarra eragina atzemateko: bakoitzak esandakoaren nolakotasuna ikusi hasierako erantzunetan eta bukaerakoetan.

Jarraian azalduko dena, beraz, ikasle bakoitzaren garapena da; hau da, lehen erregistroarekin alderatuta, bigarren erregistroan adierazitako iritzi, sentimendu eta bizipen berriak, moldatuak edo osatuak, lehenengoan adierazi ez zituztenak.

Esan behar da bigarren erregistroko erantzunak, oro har, laburragoak izan zirela, batez ere euskararekin lotutako lehenengo bizipenak azaltzeko eskatzen zitzaienean. Bizipenei buruzko galdera erantzuteko idatzi behar zuten gehien eta, ziur aski, denbora gutxian bigarrenez gauza bera erantzun behar izateak ahalegintzeko gogoia apaldu zien. Edonola ere, kasu batzuetan lehenengo erregistroan azaldu gabeko bizipenak idatzi zituzten, gelan egindako lehen saioan horiei buruz pentsatzeko edo gogoratzeko emandako denboraren emaitza, ziur aski.

Azpimarratu behar da, dena den, kasu gehienetan bi erregistroetan gazteek oso erantzun antzekoak eman zituztela eta koherentzia handia ikusi dela hasieran eta bukaeran emandako erantzunetan. Nolabait esateko, diskurtso nahiko errotuak dauzkate, haien berezko iritzi eta usteak izan, edo gizartean daudenak izan bereganatu eta errepikatuta. Iritzien sendotasun hori aldaketarako oztopoa izan bada ere, erantzun askotan aldaketaren zantzuak daude, batez ere sentimenduei buruzko galderetan. Ikusitako aldaketa-zantzuak hiru multzotan sailka daitezke, jarreraren osagai afektiboarekin, kognitiboarekin edo konatibo-konduktualarekin duten loturaren arabera (Arratibel eta Ortiz, 2000; Irastortza, 2009).

5.1

Aldaketak jarreraren osagai afektiboan

Objektuarekiko emozio eta sentimenduak dira osagai afektiboa. Atal honetan kokatuta daude gazteen erantzunetan ikusitako aldaketa gehienak.

Kasu batzuetan hasierako galdetegian euskara ez erabiltzeagatik agertzen ez ziren lotsa eta damua agertzen dira bukaerako bigarren galdetegian:

[Galdera]: *Gaztelaniaz ari naizenean sentitzen naiz...*

[Erantzuna-2. erregistroa]: «*Gaizki, adibidez nago pertsona batekin euskara dakiena eta ez dut euskara erabiltzen.*» (C3)

[Gal.]: *Euskararekin lotutako bizipena:*

5
ANALISI
DIAKRONIKOA

5.1.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
AFEKTIBOAN

5.2.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
KOGNITIBOAN

5.3.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
KONATIBO-
KONDUKTUALEAN

5.4.
KONTROL
TALDEA

[E-2]: «Gogoratzen naiz ere norbaiti erdaraz hitz egiten nionean eta bera euskaraz erantzuten zidanean oso lotsatuta gelditzen nintzen.» (B1)

Beste kasu batzuetan bigarren erregistroan desagertu da lehen erregistroan azaldutako erruduntasun sentimendua gaztelania erabiltzeagatik:

[Gal.]: *Gaztelaniaz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-1]: «Lotsa, euskaraz hitz egiten ez dudalako»


[E-2]: «Errextasuna (Ez da sentimendu bat) eta poza: pertsona guztiekin komunikatzen ahal dudalako» (C1)

Azken kasu hauek azaltzeko hipotesia da lehenengo erregistroan diskurtso «zuzena», espero dena, errepikatu zutela erantzuterakoan eta bigarrenean «autozentsura» hori desagertu zela.

Gorago esan bezala, ikasleen erantzunetan jasotako aldaketa gehienak sentimenduekin lotuta egon dira, euskara edo gaztelania

erabiltzerakoan adierazi dituzten sentimenduen nolakotasuna aldatu da lehenengo eta bigarren erregistroen artean. Hasiera batean aldaketak norabide askotakoak direla ematen badu ere (sentimendu positiboagoak zein negatiboagoak euskara erabiltzerakoan, baita gaztelania erabiltzerakoan ere), sentimenduen ondoren idatzi dituzten azalpenek eman dute aldaketa ulertzeko giltza. Aldaketa positibotzat hartu da hasierako txarra edo neutroa hobetu bada edo txarra leundu. Aldaketa negatibotzat hartu da ona edo neutroa txar bihurtu bada, edo ona epeldu. Hau da, graduazio batean adierazitakoa +/- eskalan mugitu bada.

Ikasle batzuek aldaketa izan dute sentimendu hobek adieraziz euskara erabiltzerakoan, edo okerragoak gaztelania erabiltzerakoan (puntu urdinak). Modu bat eta bestearen artean ñabardurak badaude ere, harremanetan jar daitezke. Ikasle honek



5 ANALISI DIAKRONIKOA

5.1. ALDAKETAK JARREREN OSAGAI AFEKTIBOAN

5.2. ALDAKETAK JARREREN OSAGAI KOGNITIBOAN

5.3. ALDAKETAK JARREREN OSAGAI KONATIBO-KONDUKTUALEAN

5.4. KONTROL TALDEA

emandako erantzunak dira horren adibide garbia:

[Gal.]: *Euskaraz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-1]: «Sin mas.»

[E-2]: «Ongi nire izkuntza delakoz»

[Gal.]: *Gaztelaniaz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-1]: «Ongi.»

[E-2]: «Gaizki ez delako nire izkuntza» (A3)

Hau da, hizkuntza batekiko atxikimendu handiagoa adieraz daiteke hizkuntza horren lotura estutuz ala bestearen lotura laxatuz.

Gutxiago badira ere, esku hartu eta gero kasu batzuetan agertu dira hasieran agertu gabeko sentimendu onak gaztelaniarekiko edo, azaldu bezala, okerragoak euskararekiko (puntu moreak). Kasu horietan, ia guztietan (bi salbuespen) aldaketaaren arrazoia ikasleek beraiek ematen dute: sentimendu txarrak dituzte euskaraz aritzerakoan ezagutza nahikoa ez izateagatik, esan nahi dutena esateko

gaitasunik ez izateagatik eta gaztelaniaz sentimendu onak sortzen zaizkie esan nahi dutena ongi adierazteko gaitasuna dutelako:

[Gal.]: *Euskaraz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-1]: «Normalak ez txarrak ez onak.»

[E-2]: «Txarrak, hizkuntza arraroa, ez naiz ongi espresatzen» (C3)


Beste ikasle batek:

[Gal.]: *Gaztelaniaz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-1]: «Onak.»

[E-2]: «Poza, hire lengua materna delako eta ongi espresatzen naiz, pozaz zorutzen» (C3)

Gorago iradoki den bezala, ematen du bigarren erregistroan askeago erantzun dutela eta euskaraz aritzerakoan dituzten arazoek sortzen dien egonezina azaldu dutela. Esan behar da sentimenduen okertzea hizkuntzaren gaitasunarekin lotu duten ikasle guztiak euskaldunen dentsitate txikiko eremuan bizi direla (C zonaldea):



5 ANALISI DIAKRONIKOA

5.1. ALDAKETAK JARREREN OSAGAI AFEKTIBOAN

5.2. ALDAKETAK JARREREN OSAGAI KOGNITIBOAN

5.3. ALDAKETAK JARREREN OSAGAI KONATIBO-KONDUKTUALEAN

5.4. KONTROL TALDEA

5.2

Aldaketak jarrerren osagai kognitiboan

Subjektuak objektuarekiko duen ezagutza da osagai kognitiboa. Osagai afektiboan baino aldaketa gutxiago atzeman ziren bigarren erregistroko erantzunetan.

Agertutako ideia berriak hauek izan ziren: euskararen egoeraren eta galeraren kontzientzia, minorizazioaren ideia eta hizkuntzaren tamainarekin lotutako aipamenak (kontuan hartu behar da gelan proposatutako hirugarren jarduerak munduko hizkuntzen tamaina azaldu zuela).

Euskararen egoeraren kontzientzia:

[Gal.]: *Euskaraz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-2]: «Ondo sentitzen naiz, galtzen hari den hizkuntza bat delako.» (C2)

[E-2]: «Otso bat bezala sentitzen naiz zeren nik kalean hitz egiten badut beste guztiak erderaz hitz egiten dutelako eta da nola ni estintzioan nagoela.» (C3)

Minorizazioaren ideia:

«Euskera pena bat da Euskal Herrin jende askok ez hitz ittea» (A1)

Hizkuntzaren tamaina:

[Gal.]: *Gaztelaniaz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-2]: «alaia tristura lotsa, hizkuntza hau oso handia delako eta euskera txikia» (C2)

[Gal.]: *Euskara bost hitzekin lotu:*

[E-2]: «Harrigarria, txikia, handia, sorpresa eta mundua gure hizkuntza mundu osoko hizkuntzen artean bederatzigarren taldekoa delako» (C3)

5.3

Aldaketak jarrerren osagai konatibo-konduktualean

Osagai konatibo-konduktuala aurreko bien ondorioa da (osagai afektiboaren eta kognitiboaren ondorioa) eta subjektuak agertzen duen portaera-joera biltzen du; hau da, subjektuaren nahia eta asmoa objektuarekiko, azken portaera errealarekin koherentea izan daitekeena edo ez.

Atal honetan koka daitezkeen aldaketa batzuk agertu ziren bigarren erregistroko erantzunetan, gutxi, dena dela:

Euskara gehiago erabiltzeko nahia:

[Gal.]: *Gaztelaniaz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-2]: «Onak baiña euskaraz hitzegitea nahiago nuke.» (B1)

[Gal.]: *Euskaraz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-2]: «ongi sentitzen naiz. Nahi dudana euskera gehiago solastea da eta horregatik hain ongi sentitzen naiz.» (C1)

5 ANALISI DIAKRONIKOA

5.1.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
AFEKTIBOAN

5.2.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
KOGNITIBOAN

5.3.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
KONATIBO-
KONDUKTUALEAN

5.4.
KONTROL
TALDEA

Euskara ez erabiltzearen arrazoiak eta ondorioak modu kontzientean azalduta:

[Gal.]: *Euskara bost hitzekin lotu:*

[E-2]: «*Poza, ilusioa, nekatuta (ohituta ez gauden hizkuntza batean hitzegiten badugu, azkarrago nekatzen gara)...*» (C3)

5.4

Kontrol taldea

Hiztun-dentsitate Txikiko Eremuko ikastetxe batean bi talde zeudenez (ezaugarri berekoak), esku-hartzea bakar batean egitea erabaki zen. Erabakiaren helburua izan zen esku-hartzearen eragina neurtzea jarduerak egindako talde bat eta egin gabeko beste talde bat konparatuz. Hortaz, ikasle guztiek erantzun zuten galdetegia bi aldiz, esku-hartzea baino lehen eta ondoren, baina irakasleek proposatutako jarduerak talde bakar batek landu zituen.

Kontrol talde bakarra izan arren eta, ondorioz, ikasle gutxi izan arren, esan dezakegu kontrol taldearekin egindako konparaketak berretsi zituela ikasle guztien bi erregistroen artean egindako konparaketa orokorrean ikusitako zantzuak, hau da, esku-hartzearen eraginaren

zantzuak; izan ere, txikiak baina bi taldeen artean aldeak izan ziren.

Jarduerak landu zituen taldean:

Bakan batzuegan erantzun afektiboak aldatu ziren, euskararekiko sentimenduak hobetuz, gaztelaniarekikoak okertuz edo (eremu berean landutako beste taldeetan ere ikusi dugun bezala) euskararekiko sentimenduak okertuz gaitasun faltarengatik.

Kasu batean euskara gehiago erabiltzeko nahia agertu zen bigarren erregistroan:

[Gal.]: *Gaztelaniaz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-1]: «*Ez dut ezer sentitzen.*»

[E-2]: «*Ez dut sentimenduak sentitzen gaztelera hitz egiterakoan baina gustatuko litzaidake lagunekin eta familiarekin gehiago euskaraz hitz egitea.*» (C1)

Jarduerarik landu ez zuen taldea (kontrol taldea):

Euskararekiko sentimendua hobetu zela uler daiteke kasu bakar honetan:

[Gal.]: *Euskaraz ari naizenean nire sentimenduak dira...*

[E-1]: «*Lagunekin euskaraz hitz egitean arraro sentitzen naiz ez dugulako ia inoiz euskaraz hitz egiten.*»

[E-2]: «*aske sentitzen naiz*» (C2)

5 ANALISI DIAKRONIKOA

5.1.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
AFEKTIBOAN

5.2.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
KOGNITIBOAN

5.3.
ALDAKETAK
JARREREN OSAGAI
KONATIBO-
KONDUKTUALEAN

5.4.
KONTROL
TALDEA

6

Ondorioak

on

6.1.
GAZTEEK
AZALDUTAKO
EGOERA

6.2.
MOTIBAZIOA
ELIKATZEKO
EGINDAKO ESKU-
HARTZEAREN
ERAGINA

6.1

Gazteek azaldutako egoera

■ Hizkuntzarekiko atxikimendua

Nafarroako DBHko 2. mailako ikasleek esan dute, oro har, euskararekin duten lotura pozgarria eta betegarria zaiela. Familia euskaldunetako kasuan (A1, B1, C1) horrela da argi eta garbi, gainerakoen azalpenetan ñabardurak agertu dira. Izan ere, etxetik erdaldun direnen oroitzenpenetan ikusi dugu, esaterako, ikaste prozesuak sortutako harridura eta urduritasuna. Are gehiago, hainbat kasutan,

ikaste prozesu korapilatsuagoa atzeman daiteke, baita hainbat sentimendu gazi-gozo ere.

Familia erdaldunetako ikasleen azalpenetan (A3, B3 eta C3) ikusten da hizkuntzarekiko atxikimenduan eskolak protagonismo handiagoa izan duela gainerako kasuan baino. Familia ere badute lotura afektiborako iturri baina gainerako tipologietako ikasleetan baino ahulago.

Familia zabala (aitona-amonak, izeba-osabak, lehengusuak...) neurri batean bada lotura afektiboa egiteko ingurunea eta euskarri garrantzitsua ere bai. Kasu honetan ez da alde handirik ikusten tipologien artean.

Eragilea	Atxikimendua, lotura afektiboa
Familia estua	A1, A2, B1, B2, C1, C2 A3, B3, C3
Familia zabala	A1, A2, A3, B1, B2, B3, C1, C2, C3
Eskola	A3, B3, C3 A1, A2, B1, B2, C1, C2

Familia estuko kideek ematen dute, oro har, hizkuntza egoera naturaletan, hau da, hizkuntza familia estuko kideek transmititu da, eta, batez ere, ama edota aitarengandik jasotakoa. Aitona-amonak, osaba/izeba edo lehengusuak ez dira hizkuntzaz jabetzeko eragile nahiko indartsuak. Ahaide horiek,

baina, garrantzitsuak dira hizkuntza (euskara) eurekin lotzeko eta haiek emandako bizipenekin katramilatzeko. Hizkuntzaren jabetasuna baino, hizkuntzarekiko lotura afektiboa lortu dute haien medioz, eta bidenabar haiekin hitz egiten dute euskaraz, besteak beste.


6 ONDORIOAK

6.1.
GAZTEEK
AZALDUTAKO
EGOERA

6.2.
MOTIBAZIOA
ELIKATZEKO
EGINDAKO ESKU-
HARTZEAREN
ERAGINA

Lotura afektiboa eta hizkuntza jabekuntza batera hartuz gero, familia (estua eta zabala) eta eskola diren eragile nagusien

funtzioetan ñabardurak agertzen dira gazteen tipologia arabera (ikus irudia).



6 ONDORIOAK

6.1. GAZTEEK AZALDUTAKO EGOERA

6.2. MOTIBAZIOA ELIKATZEKO EGINDAKO ESKU-HARTZEAREN ERAGINA

Aurreko erreferenterik ez dagoenean, hots, familiako kide euskaldunik ez dagoenean pertsona erreferenteak haur eskolako (0-3 urte) zein eskolako/ikastolako (3-12 urte) irakasleak dira hizkuntza jabekuntzarako bitartekoak zein euskararekiko lotura afektiboa egiteko bide nagusiak (edota bakarrak). Familian euskararen erabilerarik ez dagoenean (ezinezkoa delako) bai agertzen da hizkuntz hautu horrekiko familiaren aldeko jarrera baina, hasierako erabakiaz gain, ez da lotura afektiborako iturri gisa agertzen. Ematen du tipologia honetako familia asko ez direla arduratu ikaste-prozesurako motibagarriak izan daitezkeen esperientziak haur eta gazteei eskaintzen.

Eskolak egindako ahaleginari dagokionez esan dezakegu haur eta lehen hezkuntzan egindako atxikimendua ageri dela ikasleen bizipenetan. Lotura afektibo hori goxoa, pozgarria eta gustagarria izan da, oroimen ona utzi duena. Horrek aipatutako hezkuntzako etapetan hizkuntzarekiko lotura afektiboa lortzeko bidean lan garrantzitsua egin dela adieraziko luke. Gaztetxoek ez dute, aldiz, Bigarren Hezkuntzan kokatutako bizipenik aipatzen. Etapa horretan ere lotura afektiboak elikatuko dituzten esperientziak, adinaren arabera, eskaintzeko beharra agerikoa da.

Ikasleek hizkuntzarekin batera datozen elementu sinboliko ugari aipatu dituzte. Pertsonen gain, hizkuntzarekiko bizipenetan elementu sinbolikoa oso presente dago, ikasleentzat norbere ibilbidean esanguratsuak izan diren elementu imajinarioak eta istorioak

agertzen dira: amak abestutako lo kanta, aitonak edo aitak kontatutako istorioa edo pasadizoa, haur eskolako ikaskideek abestutako «Zorionak zuri», Nafarroa Oinezen bizitutakoa, karrikan gertatutako bitxikeriaren bat, pertsonaia mitologikoa edo bestelakoa...

■ Hizkuntza gaitasuna

Ikerketan hizkuntza gaitasuna etengabe aipatu dute ikasleek, faktore garrantzitsua da euskararen erabileran zein hizkuntzarekiko atxikimenduan. Talde zabala agertzen da euskara mailarekin arazoa duela dioena eta arazo horren zergatiak adierazi dituzte.

Hizkuntzaren irakaskuntza garapen hurbileko eremuan kokatu denean, ikasleak maila hobea duela hautematen du, prozesua oso pertsonala dela kontuan hartuta ere. Irakaskuntza eremu horretatik kanpo izan denean, ordea, ikasleak bizipen gazi gisa jasotzen du eta sentipen horrek norberaren mailaren pertzepzioa okertzen du.

Gaztetxoek hitzetan hitz egiteko erraztasuna, maiztasuna edota ohitura agertzen dira hizkuntza erabili edo ez erabiltzeko arrazoi gisa. Gehienetan, ohitura faltaren azpian erraztasun eta maiztasun nahikorik ez ageri dira. Garbi dago ohitura lortzeko, egin egin behar dela eta horretarako eremuak aurkitzea ezinbestekoa dela, erraztasuna maiztasunaren bidetik eskuratuko baita.

6 ONDORIOAK

6.1.
GAZTEEK
AZALDUTAKO
EGOERA

6.2.
MOTIBAZIOA
ELIKATZEKO
EGINDAKO ESKU-
HARTZEAREN
ERAGINA

Zenbait ikaslek, hitz egiteko zailtasuna aitortzen badute ere, hizkuntzaren ikaste prozesuaren gaineko gogoeta egina dute eta euren burua animatu eta motibatzen gai dira. Gaitasun hori erabilerarako lagungarria da, dudarik gabe.

Garrantzitsua da ikasleen bizipen, sentimenduen eta zailtasunen nolakotasuna eta gradua aztertzea; izan ere, daukaten mailarekin komunikatzeko arazorik ez dutenak badaude, baina baita gaitasun nahikorik gabe, sentimendu negatiboak dauzkatenak ere. Horien testigantza zabala jaso dugu, hau da, ikasle askok arazoak eta zailtasunak zertan dituzten garbi adierazi dute. Azalpen horiek oso garrantzitsuak dira eskolak egin dezakeen lanari begira.

Euskara mailarekin arazorik ez duten ikasleak gustura daude duten mailarekin, pozik sentitzen dira eta bizipen gozoak dituzte, sarritan ohiko hizkuntzarekin lotzen dute, normaltasunarekin, euskara erraza izatearekin. Ikasle hauen artean haien ikaste prozesuaren berri emateko gai dira, aurrerapenak adierazteko.

Euskara mailarekin arazorik ez duten ikasle batzuek hizkuntza erregistroen aipamena egiten dute: eskolan ikasten duten euskara ez dela etxean erabiltzen duten berbera. Bestalde, eremu erdaldunetako ikasleen euskararekin sentitzen duten distantzia erabilerarako oztopo gisa ikusten dute. Beraz, zubi lana egitea ezinbestekoa da, gazteei zona soziolinguistiko ezberdinetako hitzunen baldintzak ikusaraztea, esaterako.

Komunikatzeko hizkuntza maila nahikorik ez dutela sentitzen duten gazteen kasuan, lehen esan bezala, graduak daude. Hainbatetan esan dezakegu barne gatazka sentitzen dutela, atxikimendu altuak eta gaitasun eskasak sortua.

■ Barne gatazka

Gure ikasle askok barneko hizkuntza gatazka bizi dute. Sentimendu anibalenteak edota kontrajarriak etengabe aipatzen dituzte, maitasun-gorroto anibalentzia agerikoa da.

Hizkuntza gaitasuna falta denean erabilera ezin da gauzatu. Nahiz eta hitz egiteko nahia edo gogoia adierazi, lotsa edo segurtasun faltak eraginda, ez dutela erabiltzen aitortzen dute. Hizkuntzan duten maila ez nahikoa gatazka iturria da eta sarritan hizkuntza-antsietatea sentitzen dute.

Ikasleek hizkuntzen egoeraren gaineko gogoeta eta informazioa izateak gatazka nola bizi duten baldintzatzen du. Hizkuntza ukipen egoeraz duten informazioa eta hori kudeatzeko baliabideak lagungarriak dira barne gatazkari aurre egiteko. Baina horren inguruko informazioa eskasa baldin bada, jakin badakite zerbait gertatzen dela, baina ez dakite zer egin dezaketean edota egoerari nola aurre egin. Horrelakoetan, ohitura falta, pena, tristura eta horrelako arrazoiak agertzen dira. Maite dute hizkuntza baina triste daude ez dutelako behar adina erabiltzen. Tipologia hauetako ikasleentzat hizkuntzarekiko harremana zama da.

6 ONDORIOAK


6.1. GAZTEEK AZALDUTAKO EGOERA

6.2. MOTIBAZIOA ELIKATZEKO EGINDAKO ESKU-HARTZEAREN ERAGINA

Norbanakoaren mailan gertatzen den hori lagun taldean errepikatzen da. Taldearen gaztelanirako joera nabaria da, batzuetan euskara erabiltzeko saiakera egiten dute baina aitortzen dute gaztelaniaz egiteko ohitura gailentzen dela. Zenbaitetan horrek ezinegona eta pena sortzen die.

Anbibalentziarik adierazten ez duten ikasleak badaude, gatazkatik kanpo agertzen direnak. Horien kasuan

atxikimendua eta ezagutza maila orekatuta agertzen dira. Kasu gehienetan oreka positiboa da, hau da, atxikimendua eta ezagutza ona dute eta horren ondorioz, gehienetan, erabilera ere ona da. Baina, asko ez badira ere, talde txiki bat oreka negatiboan ageri zaigu: ez dute ezagutza nahikorik, ezta lotura afektiborik ere hizkuntzarekin. Ez dute gatazkarik hizkuntzatik urrunduta daudelako.



Horrenbestez, hizkuntza maila faktore garrantzitsua eta ezinbestekoa dela esanien genuke. Eskolak hizkuntza maila txukuna ziurtatu beharko luke ikasleak euskara erabiltzeko gai izan daitezela. Bigarren Hezkuntzan ahalegin indartsua egin beharko litzateke ikusten diren

hutsuneak betetzeko; adin hauetan ikasleek konplizitatea, kontzientzia eta norberak bere prozesuaren ardura hartzeko nahikoa autonomia izan ditzaketelako; eta garaiz gabiltzalako oraindik derrigorrezko hezkuntzaren ibilbidean.

6 ONDORIOAK

6.1. GAZTEEK AZALDUTAKO EGOERA

6.2. MOTIBAZIOA ELIKATZEKO EGINDAKO ESKU-HARTZEAREN ERAGINA

Motibazioa elikatzeko egindako esku-hartzearen eragina

Gazteek adierazitako ideia eta jarreretan aldaketa orokorra ikusteko ikerketa honetan egin den esku-hartzea baino zerbait luzeagoa behar da eta, ziur aski, ikastetxe osoaren inplikazioa behar da, ez soilik irakasle batena hainbat saio berezitan.

Edonola ere, esku-hartze motzaren ondorioz ere, aldaketaren zantzuak ikusten dira, ez ikasle guztietan, baina bai multzo adierazgarri batean. Aldaketak, batez ere, osagai afektiboetan ikusten dira (hizkuntzekiko hurbiltasun maila eta sentimenduak); izan ere, gutxiago aldatzen dira osagai kognitiboak (objektuarekiko ezagutza) eta konduktualak (portaera-joera aitortuak).

Adierazpen afektiboak bi norabidetan mugitu dira, gehienetan euskararekiko sentimendu onak areagotu dira baina izan dira euskararekiko emozioa eta sentimendu txarrak areagotu dituzten gazteak. Garrantzitsua da azpimarratzea euskararen sentimenduak okertu diren kasu guztietan ikasleek azalpena eskaini dutela jarraian: gaizki sentitzen dira euskaraz gaitasun nahikorik ez dutelako. Ematen du, kasu horietan, hasierako erantzunetan aitortu gabeko arazoak eta frustrazioak azaldu direla hizkuntzari buruz gogoeta egin eta gero.

Aldagai kognitiboetan aldeak ikusi diren kasuetan erreferentzia egin diete saioetan landutako edukiei eta aldagai konduktuala aldatu denean, euskara gehiago erabiltzeko borondatea agertzeko izan da.


Laburpen gisa ondoko irudietan jaso ditugu gure ikasleengan eragiten duten elementu positibo garrantzitsuenak antidoto eta elikagai gisa irudikatuta.

6 ONDORIOAK

6.1.
GAZTEEK
AZALDUTAKO
EGOERA

6.2.
MOTIBAZIOA
ELIKATZEKO
EGINDAKO ESKU-
HARTZEAREN
ERAGINA

Antidotoak




6 ONDORIOAK

6.1. GAZTEEK AZALDUTAKO EGOERA

6.2. MOTIBAZIOA ELIKATZEKO EGINDAKO ESKU-HARTZEAREN ERAGINA

Elikagaiak



6 ONDORIOAK

6.1. GAZTEEK AZALDUTAKO EGOERA

6.2. MOTIBAZIOA ELIKATZEKO EGINDAKO ESKU-HARTZEAREN ERAGINA

7

Aurrera begira

ab

71.
IRAKASLEEN
BALORAZIOA

72.
IKERKETA
TALDEAREN
AURRERA
BEGIRAKO
PROPOSAMENAK

Irakasleen balorazioa

■ Irakasleek ikasleak nola ikusi zituzten

Oro har, irakasleek gustura ikusi zituzten ikasleak proposatutako jarduerak egiten. Irakasleen hitzetan ikasleek ongi pasa zuten eta eskertu zuten ohiko eskolen dinamika aldatzea. Hala ere, hori berak, ohiko dinamika haustek, harritu zituen eta hainbat kasutan ikasleei kostatu zitzairen irakasleak haiengandik zer espero zuten ulertzea. Izan ere, ikerketak horrela eskatuta, jardueren helbururik ez zitzairen azaldu ikasleei eta, esaterako, ez zuten ulertu azterketaren bezperan egonik, irakasleak ordu horiek hartzea beste gauza «ez ohiko» horiek egiteko.

Irakasleek azaldu zuten landutako hainbat ideia eta kontzeptu abstraktuegiak izan zirela eta ikasleak azaleko hausnarketan geratu zirela. Egia da proposatutako ariketek ez zutela ondorio bakar edo borobildu bat bilatzen, bideak erakutsi bai, baina irekita uzten zuten irakasleek beraiek ondorioak ateratzeko aukera, ez agian gelan bertan, ariketaren ondoren, baizik eta gero, ikasle bakoitzaren prozesuaren erritmoaren arabera. Ez irakasleek ez irakasleek ez dute gauzak horrela uzteko ohiturarik eta egindakoaren emaitza ondorio bakar eta ziurra ez izateak deseroso sentiarazten zituen.

Bestalde, irakasleak ados zeuden esku-hartzea motzegia izan zela (hiru saio 5 asteko epean) ikasleengan eragin iraunkorra sortzeko; aldaketa sumatu zutela hainbat ikaslerengan baina, irakasleen ustez, errotutako inertzirik hasierako puntura eramanez zituzten laster, esku-hartzearen jarraipenik egin ezean.

■ Zailtasunak

Irakasleek hainbat zailtasun gainditu zituzten proposatutako esku-hartzean. Haien hitzetan, irakasleen adin gaztea eta ariketak egiteko denbora mugatua zailtasunak izan ziren kontzeptu eta ideietan sakontzeko. Ikerketak beste muga bat ere jarri zien: ariketa multzo bera egin behar zuten institutu guztietan eta, ulergarritasuna bermatzeko ñabardura txiki batzuk kenduta, ariketak ezin zituzten egokitu herriaren egoera soziolinguistikoaren arabera edo ikasle taldearen ezaugarrien arabera.

Bestalde, tokian tokiko bestelako zailtasunak ere aurkitu zituzten: teknikoak batzuk (wifiaaren kalitatea, ordenagailu nahikorik ez izatea edo gelaren baldintza fisikoak, esaterako), beste batzuk taldearen nolakotasuna eta tamainarekin lotuak eta, azkenik, zenbaitetan zuzendaritza taldearen babes nahikorik ez izateak antolaketa zaildu zuten.

Irakasleek azken zailtasun orokor bat aipatu zuten, izan ere, irakasleek badute

pentsatu aurretik galdetzeko joera; hau da, pentsatzeak eskatzen duen ahalegina saihesten saiatzen direla galderak eginez, haiek beraiek erantzuna bilatu beharrean. Ikerketaren emaitzak ikusita, esan behar da irakasle gehienek jakin zutela ikasleen hasierako joera horri aurre egiten eta, pentsatzeko denbora emanez, ikasleak jarrera aktiboago eta sortzaileagora eramaten.

■ Aurrera begirako proposamenak

Irakasleen iritzi orokorra izan zen esku-hartze luzeagoa proposatu behar dela, garrantzitsua dela jarraipena eta maiztasun egokia aurkitzea eta, ahal den neurrian, esku-hartzea ikasketa programazioan txertatu behar dela.

Azpimarratu zuten beharrezkoa dela ikastetxe osoko irakasleen elkarlana, esku-hartzea koherentea izan dadin hezkuntza komunitateko gainerako erabaki eta jokabideekin. Garrantzitsutzat jo zuten, esaterako, irakasle guztiek erantzun eta jokabide bera izatea ikasleen gaztelaniaren erabileraren aurrean. Halaber, garrantzitsutzat jo zuten ikastetxetik kanpoko esparruak ere kontuan hartzea eta gurasoengan kezka piztea euskararen erabilera eskasarengatik.

Azkenik eskatu zuten material eta informazio gehiago izatea eskura, eztabaidatzeko eta informazioa trukatzeko foro bat sortuz, adibidez.

7.2

Ikerketa taldearen aurrera begirako proposamenak

Ikerketa gure ikasleen sentipenak, bizipenak eta hizkuntzaren gaineko gogoetak zeintzuk diren jakiteko baliagarria izan da, haiek nola bizi eta ikusten duten egoera hobeki ezagutzeko. Bestalde, ikerketak praktikarako bide batzuk zabaldu dituela ere iruditzen zaigu.

Ikerketaren emaitzak kontuan hartuta aurrera begirako lan lerro horiek zeintzuk diren azpimarratu nahi dugu, batez ere, eskoletan sortu diren kezkei erantzuteko praktikak burutze aldera.

Batetik, eskolak ikasleen hizkuntza maila hobetzeko bideak aztertu eta jartzeko beharra ikusi dugu, esate baterako, euskararen didaktikaren arloan (hizkuntzaren didaktika) gauzak egokitu edo moldatu beharra ezinbestekoa da. Ikasleek erabilerara modu errazagoan jauzi egiteko (erabiltzeko erraztasun gehiago izan dezaten) eskolan ahozkoa modu sistematiko eta planifikatuan ikasi behar dute, izan ere, ikasle askok aitortu dute zailtasuna dutela euskaraz hitz egiteko orduan.

Bestetik, DBHko ikasleen euskararekiko atxikimendua propio landu behar dela ikusi dugu, hizkuntzarekiko lotura afektiboa

7 AURRERA BEGIRA

7.1.
IRAKASLEEN
BALORAZIOA

7.2.
IKERKETA
TALDEAREN
AURRERA
BEGIRAKO
PROPOSAMENAK

elikatzen jarraitzeko, DBHn etena dagoela ematen baitu. Haur eta Lehen Hezkuntzan egindakoen ahaleginen indarra orain arte iritsi dela agertu da, baina elikagaia mantentzen joan behar da, ikasleen egoera eta beharrak beste batzuk direlako.

Hirugarrenik, barneko hizkuntza gatazka kudeatzeko baliabideak eskaini behar zaizkie ikasleei. Gainerakoan, ikasleak baliabiderik gabe daude egunero sortzen zaizkien hartu beharreko hizkuntza erabakien aurrean, izan ere, ohitura aipatzen da erabaki horien arrazoitzat baina ezkutuko beste arrazoi batzuk tartean direla ere ikusi dugu.

Laugarrenik, jakin badakigu eskolak ezin duela dena egin, eta ez dagokiola berari dena egitea. Bere egiteko nagusia hizkuntzaren arloan ikasleek hizkuntza maila ona eta atxikimendu ona lor ditzaten dela jakinda, helburu hori lortzeko haien inguruan eta eragin eremupean dauden eragileekin elkarlanean aritzea mesedegarria da. Esate baterako, familiei haien seme-alaben euskara maila onaren mesedetan hizkuntzarekiko lotura afektiboa

lan dezaten eskatzea; herrian edota auzoan egon daitezkeen beste eragileekin koordinatzea (udalarekin, esate baterako, udalekuak direla, aisialdia dela, kirola dela), horrek bai eskolaren lana bai aipatutako eragileena biderkatzeko aukera ematen duelako.

Azkenik, eskolan esku-hartzea eta ikerketa lotzea bide emankorra dela ikusi dugu, hartutako neurriak egoki garatzen diren eta behar den eragina lortzen ote duten baieztatu edo ezeztatzeko. Esku-hartzea eta ikerketa DBH osora zabaldu behar da eta hori guztia irakasleekin batera egin. Irakasleek ikerketaren eta metodologiaren parte izan behar dutelako, egitasmoak arrakasta izan dezan.

Zalantzarik gabe, ikerketa honetan hasitako bideak jarraipena behar du, egindako esku-hartzea mugatua izan delako. Esku-hartze gehiago eta luzeagoak inplementatzen diren neurrian, horien eragina zein egokitasuna hobeki neurtu ahalko dira eta egoera ezberdinen arabera ñabardurak diseinatu.

7

AURRERA BEGIRA

7.1.
IRAKASLEEN
BALORAZIOA

7.2.
IKERKETA
TALDEAREN
AURRERA
BEGIRAKO
PROPOSAMENAK

8

Eranskinak

er

8.1.
DATU
KUANTITATIBOAK

8.2.
ESKU-HARTZEKO
JARDUERAK

8.3.
GALDETEGIA

Datu kuantitatiboak

■ Unibertsoaren tipologia

Atal honetan modu kuantitatiboagoan azter litezkeen itemak deskribatuko dira, haietako asko galdera irekien bidez eraiki

badira ere, hots, ikasleek modu ez-iradokian erantzun badiete ere planteatutako galderei.


Lehenik eta behin, honakoa da prozesuan parte hartu duten ikasleen kopurua, bai termino absolutuetan, bai ehunekoetan, parte hartu duten hamabi ikastetxeen arabera sailkatuta. Ikerketa-unibertsoa 253 ikaslek osatu dute.

1. Taula. Ikasle-kopurua ikastetxez ikastetxe

Zentro	Kopurua	%
Jaso Ikastola	28	11,1
Sakana Ikastola	27	10,7
Leitzako BHI	27	10,7
San Fermín Ikastola	26	10,3
Eunate BHI	24	9,5
Lizarra BHI	21	8,3
Berako Toki-Ona	20	7,9
Lekaroz BHI	20	7,9
Pedro de Ursua BHI	18	7,1
Alaitz BHI	16	6,3
Agoitz DBH	15	5,9
Garraldako DBH	11	4,3
Total	253	100,0


Ikerlanaren xede diren ikasleen ezaugarriei buruzkoak dira lehenbiziko galderak. Batez besteko adina 12,9 urte da, hamabi urte eta hamabost urte muturrak izanik. Moda

hamahiru urte da (%75,1). Hamalau urtekoak %5,5 eskasa dira. Hurrengo grafikoak emaitza horiek erakusten ditu, ehunekoetan.



1. grafikoa. Ikasleak adinen arabera.


Ikerketa-erperientzian parte hartu duten ikasleen generoari dagokionez, gizonaezkoak bi puntu gehiago dira emakumezkoak baino: %51 eta %49, hurrenez hurren (jada hamabost urte bete dituztenen artean, gizonaezkoak %75 dira).



2. grafikoa. Ikasleen generoa.

Aztertzeke moduko aldagai independente gisa erabiltzeari begira, zer udalerritan kokatuta dauden sailkatu dira hamabi ikastetxeak; hiru multzotan sailkatu dira, zehazki, euskarak gizarte-ingurunean duen presentziaren arabera. Hona multzoak: Hitzun-dentsitate Handiko Eremua,

hemendik aurrera HdHE (Leitza, Bera eta Lekaroz); Hitzun-dentsitate Erdiko Eremua, hemendik aurrera HdEE (Altsasu eta Garralda); Hitzun-dentsitate Txikiko Eremua, hemendik aurrera HdTE (Iruñerria, Lizarra eta Agoitz). Beheko grafikoak eremu bakoitzak aldagaia eraikitzeke duen pisua erakusten du, ikerlanera ekarritako ikasle-kopuruaren arabera.




3. grafikoa. Ikastetxeak eremuetan banatuta.

Ehunekotan, emaitza hauek erakusten ditu banaketak: %26,5 HdHE, %15 HdEE eta %58,5 HdTE.

■ Egoera linguistikoa

Parte hartu duten ikasleen gurasoen euskara-ezagutzari dagokionez, heren bat, gutxi gorabehera, euskaldunak dira (amen %36,4 eta aiten %34); aiten artean amen artean baino erdaldun gehiago daude (%39,9 eta %30,4, hurrenez hurren); eta euskara zerbait dakitenak amen %33,2 dira, eta aiten %26,1.



4. grafikoa. Gurasoen euskara-ezagutza.

Gurasoen euskara-ezagutza nabarmen desberdina da bizi diren eremuen arabera.

Beheko kontingentzia-taulak argi eta garbi erakusten du hori:

2. taula. Gurasoen euskara-ezagutza eremuen arabera (%), Jhi² aplikatuta

	Guztira	Eremua		
		HdHE	HdEE	HdTE
AMA				
Euskalduna	36,4	>71,6	31,6	<21,6
Zer edo zer badaki	33,2	<19,4	>57,9	33,1
Erdalduna	30,4	<9,0	<10,5	>45,3
AITA				
Euskalduna	34	>68,7	42,1	<16,2
Zer edo zer badaki	26,1	16,4	34,2	28,4
Erdalduna	39,9	<14,9	23,7	>55,4

Taulen gelaxketan dauden < eta > ikurrek adierazten dute guztizko emaitzekiko esangura estatistikoa dagoela Jhi karratuan (X²), handiagoz zein txikiagoz.

8
ERANSKINAK

8.1.
DATU
KUANTITATIBOAK


8.2.
ESKU-HARTZEKO
JARDUERAK

8.3.
GALDETEGIA

Goiko taulak erakusten dituen datuen arabera (X^2 -aren esanahi estatistiko handia egiazta daiteke haietan), hiztun-dentsitate handiko eremuan (HdHE) eta tartekoan (HdEE) gurasoek euskara-ezagutza handiagoa daukate bestean baino, batez ere HdHE-n, non % 71,6 baitira ama euskaldunak eta % 68,7 aita euskaldunak (HdEE-n % 31,6 eta % 42,1 dira euskaldunak, hurrenez hurren). Hiztun-dentsitate txikiko eremuan (HdTE) amen euskara-ezagutza % 21,6 da eta aitena % 16,2 (aita gehienak erdaldunak dira eremu horretan: % 55,4; ama erdaldunak, aldiz, % 45,3 dira). HdEE-n zein HdTE-n asko dira zer edo zer dakienak, bi gurasoen kasuan (% 57,9, zehazki, HdEE-ko amen artean).

Gurasoen ezagutza-mailatik abiatuta, ikerlanaren unibertsoa osatzen duten ikasleak bizi diren familien sailkapen linguistikoa zehaztu da. Hona irizpideak: familia **euskalduna**, bi gurasoak dira euskaldunak edo bata euskalduna da eta besteak zerbait badaki; familia **mistoa**: aita edo ama euskalduna da eta bestea erdalduna edo biek

zerbait dakite; familia **erdalduna**: ez bata ez besteak ez daki edo bat erdalduna da eta besteak zerbait daki. Grafikoak multzoak erakusten ditu, ehunekotan.



5. grafikoa. Familien gaitasun linguistikoa

Familia euskaldunen multzoak eta erdaldunenak pareko ehunekoak dauzkate: % 39,9 eta % 39,1, hurrenez hurren; gainerako % 20,9a, beraz, familia mistoak deitu ditugunek osatzen dute.

Ikasleen familien tipologia linguistikoa eta ikastetxeen eremu soziolinguistikoa gurutzatuta, ondoko portzentaje-erlazioa ikusten da (Jhi karratuaren estatistikoa aplikatuta, erlazio-lotura nabarmenak antzeman daitezke).

3. taula. Familien tipologia linguistikoa eremu soziolinguistikoen arabera (% , Jhi² aplikatuta)

Familia tipologia	Guztira	Eremua		
		HdHE	HdEE	HdTE
Euskalduna	39,9	>74,6	52,6	<20,9
Mistoa	20,9	16,4	31,6	20,3
Erdalduna	39,1	<9,0	<15,8	>58,8

8 ERANSKINAK

8.1. DATU Kuantitatiboak


8.2. ESKU-HARTZEKO JARDUERAK

8.3. GALDETEGIA

Hiztun-dentsitate handiko eremuan (HdHE) gehienak dira euskara-ezagutza duten familiak: %74,6 (esanahia du Jhi karratuan). Tarteko eremuan (HdEE) %52,6 dira euskaldunak eta hiztun-dentsitate txikiko eremuan (HdTE) ehunekoa %20,9raino jaisten da. Mistoa deitu dugun familien eredu linguistikoa ugariagoa da hiztun-dentsitate erdiko eremu soziolinguistikoa (%31,6) beste

bietan baino. Euskara-ezagutzarik ez duten familiak, aldiz, nagusi dira HdTE-n: %58,8 (esanahia du Jhi karratuaren estatistikoan).

Ikerlanaren beste aurretiazko galderetako bat izan zen zer mailatan ezagutzen duten ikasleek euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntzaren bat. Ondoko ehuneko-grafikoak erakusten ditu emaitzak.



6. grafikoa. Beste hizkuntza batzuen ezagutza-maila (ikasleak)

Ikerlanean parte hartutako erdiak baino gehiagok (%57,7) dio oso ezagutza-maila apala duela beste hizkuntzetan («Ez dakit» erantzun dutenak barne). Hamabi urte dituztenen artean %71,1eraino igotzen da. Ingelesa da gehien aipatutako hizkuntza (%40,7), eta gero eta urte gehiagokoak

izan, orduan eta ezagutza-maila handiagoa dute (%64,3raino igotzen da hamalau urte dituztenen artean). Jarraian: frantsesa (%6,3), alemana (%1,2) edo portugalerara (%0,4). Ikasleen generoak ez du ematen esanahi estatistikoa duen baliorik beste hizkuntzen ezagutza-mailari dagokionez.

8 ERANSKINAK

8.1. DATU KUANTITATIBOAK


8.2. ESKU-HARTZEKO JARDUERAK

8.3. GALDETEGIA

4. taula. Hizkuntzen ezagutza-maila adin eta generoaren arabera (%. Jhi² aplikatuta)

	Guztira	Adina				Generoa	
		12	13	14	15	Mutila	Neska
Ez	51	66,7	48,4	28,6	75	52,7	49,2
Frantsesa	6,3	6,7	6,3	7,1		6,2	6,5
Ingelesa	40,7	28,9	42,1	64,3	25	40,3	41,1
Alemana	1,2	2,2	1,1	-	-	0,8	1,6
Portugalera	0,4	-	0,5	-	-	0,8	-
Ed/Ee	6,7	4,4	7,4	7,1	-	6,2	7,3

Hizkuntzei, oro har, eta, zehazki, euskarari buruzko ataleko beste itemetako batek galdetu zuen zer neurritan erabiltzen duten ikasleek euskara. Ondoko grafikoak galdera horren emaitzak erakusten ditu:



7. grafikoa. Euskararen ohiko erabilera

Erantzunak batu, eta %55,3k diote «nahiko edo asko» erabiltzen dutela euskara; %28,9k diote «zerbait» erabiltzen dutela; eta gainerako %12,7ak «gutxi edo oso gutxi» erabiltzen dutela. Hamar puntuko eskala batean (erabilera txikienak 1 balioa du eta handienak, 10), batez besteko aritmetikoa 6,8 puntu da. Adina handitu ahala, behera egiten du pixka bat euskararen ohiko erabilera (7 puntu hamabi urtekoen artean eta 6,3 hamalau urtetik gorako artean). Nesken artean 0,3 txikiagoa da batez bestekoa mutilen artean baino. Familien gaitasun linguistikoak eta ikastetxeen kokapenak ere esanahi estatistikodun aldeak erakusten dituzte Jhi karratua aplikatuta.

8 ERANSKINAK

8.1. DATU KUANTITATIBOAK

8.2. ESKU-HARTZEKO JARDUERAK

8.3. GALDETEGIA

5. taula. Euskara-erabilera eremu soziolinguistikoaren arabera (% Jhi² aplikatuta)

Erabilera	Guztira	Eremua		
		HdHE	HdEE	HdTE
Oso gutxi	1,2	-	2,6	1,4
Gutxi	11,5	<3,0	10,5	15,5
Zerbait	28,9	<7,5	36,8	36,5
Nahiko	32,4	20,9	39,5	35,8
Asko	22,9	>68,7	<5,3	<6,8
Ed/Ee	3,2	-	5,3	4,1

«Nahiko» eta «asko» balioak batuta, ikus daiteke hiztun-dentsitate handiko eremuan (HdHE) gehienek erabiltzen dutela euskara: %89,6 (%68,7k «asko» erabiltzen dutela diote); tarteko eremuan (HdEE) %44,8ra jaisten da ehunekoa; hiztun-dentsitate

txikiko eremuan (HdTE) %42,6ra. HdEE eta HdTE-ren artean alderatutako ehunekoek ez dute alde handirik erakusten, ehunekotan, erantzun-kategoria desberdinei dagokienez.

6. taula. Euskara-erabilera familien gaitasun linguistikoaren arabera (% Jhi² aplikatuta)

Erabilera	Guztira	Familia		
		Euskalduna	Mistoa	Erdalduna
Oso gutxi	1,2	-	3,8	1
Gutxi	11,5	5	7,5	>20,2
Zerbait	28,9	<15,8	34	39,4
Nahiko	32,4	32,7	37,7	29,3
Asko	22,9	>44,6	15,1	<5,1
Ed/Ee	3,2	2	1,9	5,1

Goiko kontingentzia-etaulak erakusten du familien gaitasun linguistikoak berebiziko eragina duela ikasleek euskara usuago edo urriago erabiltzeko orduan. Eskalako

baliorik altuena («asko») hartuta, %44,6ra iristen da familia euskaldunen kasuan (esanahia dago Jhi karratuaren estatistikoan), %15,1era jaisten da mistoaren

8 ERANSKINAK

8.1. DATU KUANTITATIBOAK

8.2. ESKU-HARTZEKO JARDUERAK

8.3. GALDETEGIA

kasuan eta %5,1era familia erdaldunenean (batez bestekoa baino 17,8 puntu gutxiago).


Item bera bigarren aldiz neurtu zenean, hots, egindako heziketa-jardueraren ondoren, euskara-erabileraren ehuneko orokorre ez zuten alde handirik erakutsi, eskalako mailarik altuenaren kasuan («asko») izan ezik: %22,9tik %25,3ra igo zen lehen neurketatik bigarrenera. «Askok» erantzunari dagokionez betiere, eta familien gaitasun linguistikoa kontuan hartuta, 0,9 puntu igo zen familia euskaldunetako ikasleetan, 7,1 familia mistoetakoetan eta %1 erdaldunetakoetan. Eredu soziolinguistikoei dagokienez, «asko» erantzuna 1,4 puntu igo zen HdHEan, 2,6 puntu HdEEan eta 2,7 puntu HdTE.

Datuek, beraz, erakusten dute euskara gehiago erabiltzeko joera aitortu dutela ikasleek heziketa-jarduera egin ondoren.

Ikerketak ez zigun aukerarik eman ikusteko bigarren erregistroan gertatutako aldaketa hori denbora gehiago igarota mantentzen zen ala ez.

■ Euskararen egoera eta etorkizuna irudikatzen ariketa

Hurrengo itemak erantzun irekiko formatuan proiektzio-ariketa eskatu zien ikasleei: «euskara animalia balitz, zeinek irudikatuko luke hobekien hizkuntzaren egungo egoera?». Erantzunak mota-kategorien arabera kodifikatu dira, hirurogeita bi animalia desberdin aipatu baitzituzten. Aipatuenak «txakurra» (%16,6), «desagertzeko zorian dagoen animalia bat» (%3,6) eta «azeria» (%3,2) izan ziren. Erantzunak multzokatu, eta emaitzak hauek izan dira:



8. grafikoa. Euskara animalia bat balitz, gaur izanen litzateke...

8 ERANSKINAK

8.1. DATU KUANTITATIBOAK

8.2. ESKU-HARTZEKO JARDUERAK


8.3. GALDETEGIA

Heren bat inguru (%30,4) «ohikotasuna, gertutasuna» adierazten duten animalien kategorian sartu da. «Indartsuak» izenlagunarekin definitutako animalien multzoa dator gero: %23,3. Jarraian, «otzanak» izenlagunarekin definitutakoena: %14,6. Desagertzeko zorian dauden animaliak adierazi zituzten erantzunak %6,7 dira.

Bukatzeko, zera galdetu zitzaien (proiektzio-ariketa oraingoan ere): zer animaliarekin

identifikatuko lukete euskara etorkizunean (20 urteko epean), haien esku egonen balitz. Galdera ireki honetan ere animalia ugari aipatu zituzten (berrogeita hemeretzi). Aurreko itemaren prozesu bera aplikatu da erantzunak multzokatzeko. «Txakurra» izan da animaliarik aipatuena berriro (%17), eta, gero, «lehoia» (%7,9) eta «zaldia» (%5,9).

Erantzunen hurrenkera ez da aldatzen: «ohikotasuna, gertutasuna» (%31,6),



9. grafikoa. Zure esku egongo balitz euskararen etorkizuna, zein animalia litzateke 20 urte barru?

«indartsuak» (%26,1) eta «otzanak» (%13,4). Laugarren postua, aldiz, «handiak» izenlagunak okupatzen du: %7,1.

■ Generoa

Ikerlanean parte hartu duten hamabi ikastetxeetako ikasleei egindako bi

erregistroen oinarri-formularioa osatzen duten item desberdinen emaitzak generoaren ikuspegitik aztertuz gero, ez dagoela alde nabarmenik esan beharra dago. Erreferentzia gisa, esan dezakegu Jhi karratuaren estatistikoak ez duela inongo asoziazio-erlazioirik erakusten generoaren aldagaia aplikatuz gero.

8 ERANSKINAK

8.1. DATU KUANTITATIBOAK

8.2. ESKU-HARTZEKO JARDUERAK

8.3. GALDETEGIA

Esku-hartzeko jarduerak

8.2.1

ERRETRATUA

(Elhuyar Fundazioaren materialean oinarritutako ariketa)

■ Irakaslearentzako argibide orokorrak

Ikasle bakoitzak berarekin euskaraz aritzen den pertsona baten erretratua eginen du (aita-ama, amona-aitona, senidea, etxekoa, auzokoa, herrikoa edo ikaskidea...). Erretratuan, pertsonaz gain, nahi duena marraz dezake, esaterako: toki bat, paisaia bat, tresna bat edo egokia iruditzen zaion beste zerbait.

Erretratuarekin batera, ikasleak pentsatuko du marraztutako pertsona horrekin izandako harremanetan bizi izan duen pasadizo bat, gogora ekartzen dion oroitzapena, hark aipatzen duen esaldi bat, erakutsi dion esaera zahar bat edo kanta bat.

Gero, talde txikitan jarrita, ikaskideei nolakoa den pertsona hori azalduko die: nor den, nongoa...; non eta nola ezagutu duen; zergatik hautatu duen; zergatik daukan euskararekiko lotura; eta, horrekin batera, prestatu duen kontu edo kanta kontatu edo kantatuko die. Taldekideak ondorio batzuk ateratzen saiatuko dira: zer antzekotasun dituzten pertsona horiek, zergatik izaten den lotura berezia pertsona horiek...

Bukatzeko, taldekide guztien artean lortu duten «argazki albuma» osatuko dute. Horretarako herrian edo auzoan euskararekin lotzen duten pertsonen zerrenda eginen dute. Herri euskaldunetan hori egin beharrean, euskararekin lotzen ez dituzten pertsonen zerrenda osatuko dute.

Talde bakoitzak gainerako ikaskideei bi gauza azalduko dizkie:

- norberak aukeratutako pertsoneri buruz ateratako ondorioak;
- herri edo auzoko zerrenda nola osatu duten (adostasunak, desadostasunak, zailtasunak, azken emaitza...)

■ Ikasleei eman beharreko argibideak:

1. Banakako lana

Euskararekin lotzen duzuen pertsona baten erretratua egin. Erretratuan, pertsonaz gain, nahi duzuen marraz dezakezue: toki edo paisaia bat, objekturen bat, egokia iruditzen zaizuen beste zerbait... Marrazkia egiteaz gain, pertsona horrekin lotzen duzuen oroitzapen bat pentsatu: pasadizoren bat, esaldi bat, kanta bat, azaldutako zerbait... marrazkiak jaso.

2. Talde txikian:

4 laguneko taldeetan jarri eta taldekideei azaldu nor eta nolakoa den aukeratutako pertsona, zergatik hautatu duzuen eta oroitutako kanta, pasadizoa edo dena delakoa kontatu.

Guztien artean saiatu galdera hauei erantzuten: Nolakoak dira aukeratutako pertsonak? Badute ezaugarri komun bat? Idatzi erantzunak.

Gero, taldeko guztien artean, osatu zuen herrian edo auzoan euskararekin lotzen dituzuen pertsonen zerrenda. (Herri euskaldunetan: Gero, taldeko guztien artean, osatu zuen herrian edo auzoan euskararekin lotzen ez dituzuen pertsonen zerrenda). Zerrenda adostu eta idatzi.

3. Osoko taldean:

Talde bakoitzak idatzitakoa azaldu:

- Nolakoak dira aukeratutako pertsonak? Badute ezaugarri komun bat?
- Adostutako zerrenda. Zaila izan da adostea eta osatzea? Zein izan da azken emaitza?

■ Ikasleek egindako erretratuei buruzko oharra:

Ikkerketaren hasierako diseinuan aurreikusita ez bazegoen ere, «Erretratua» deitutako jarduera honetan gazteen marrazki gehienak jaso ahal izan genituen (198 osotara) eta gehien aukeratutako pertsonen ezaugarriak eta izaera ikusi ahal izan genituen. Jasotako marrazkien %35 ezin izan genituen sailkatu marrazkiarekin batera idatzitako testuan ez zegoelako nahiko informaziorik. Gainerako %65 sailkatu ahal izan genituen aukeratutako pertsonaren esparruaren arabera. Belaunaldikideak: familiakoak (neba-arrebak eta lehengusuak) eta lagunak; aurreko belaunaldietakoak: familiakoak (atona-amonak, gurasoak eta izeba-osabak), irakasleak, aisialdiko begiraleak, dendariak eta kultur eta kirol erreferenteak (izen-abizenekin agertu zirenak). Horietaz gain, mitologiako pertsonaiak ere agertu dira, talde bakan batzuetan bilduak. Ikus daiteke esparru bakoitzaren maiztasuna asko aldatzen dela eta eremu soziolinguistikoaren artean ere aldeak badaudela:

		Esparruak	HdHE	HdEE	HdTE
Aurreko belaunaldiak	Familiakoak		%50	%17	%37
	Irakasleak		%9	%35	%33
	Aisialdiko begiraleak		%4	%0	%4
	Kultura-kirol erreferenteak		%1	%0	%4
	Dendariak		%0	%0	%2
Belaunaldi kideak	Lagunak-ikasleak		%25	%14	%8
	Familiakoak		%11	%3	%10
Beste batzuk	Mitologiako pertsonaiak		%0	%31	%2

8 ERANSKINAK

8.1. DATU KUANTITATIBOAK

8.2. ESKU-HARTZEKO JARDUERAK

8.3. GALDETEGIA

8.2.2

LEHENENGO HITZA EUSKARAZ

(Plataforma per la Llengua-EMUN materialean oinarritutako ariketa)

■ Irakaslearentzako argibideak

Ikasleei egun batez izan dituzten hizketaldiak sailkatzeko eskatuko diezue horretarako prestatutako taula batean: euskaraz ala gaztelaniaz egin zituzten eta pertsona ezagun edo ezezagunekin (taula betetzeko markak edo koloreak erabil ditzakete, nahi bezala).

Beheko testua irakurri eta gero (aukeran duzue zuek ozenki irakurri edo kopiak haiei banatu irakur dezaten) taula berriz beteko dute, baina bigarren honetan imajinatu behar dute taula nola geratuko zen elkarrizketa horietan haiek beti lehenengo hitza euskaraz eginda. Bigarrenez bete eta gero taula aldatu den galdetuko diegu.

Jarraian Donostiako Egia auzoko esperientziaren berri emanen diegu (hainbat herritara zabaltzen ari dena: Lasarte, Hernani...). Egia auzoko hitzunen bideoa ikusi eta ikasleen iritzia eskatuko dugu.

Bukatzeko «Estres linguistikoa» bideoa jarriko dugu. Ikasleen aldetik ulermen maila ezberdinak egon daitezke. Beraz, bideoa ikusi eta jarduera bukatuko da, ez dugu horren gaineko lanketarik egingen. Hala ere, ikasleek zerbait esan nahi badute, bidea emanen zaio haien arteko elkarrizketari, iritziak eman ditzaten.

■ Ikasleentzako argibideak:

Egunean zehar hainbat pertsonarekin mintzatzen gara, asko ezagunak, beste batzuk ezezagunak.

1. taula bete behar duzue atzo izandako hizketaldiak jasoz, horretarako hizketaldi bakoitza sailkatu behar duzue bi galdera haiek erantzunez:

- Hizketakidea ezaguna edo ezezaguna zen?
- Hizketaldia euskaraz edo gaztelaniaz (edo beste hizkuntza batean) egin zenuten?

2. Testu hau irakurri / entzun:

«Euskaraz hitz egitea. Ahal dugun guztietan euskaraz mintzatu, idatzi eta irakurri; gutxienez hizkuntzaz aldatzeko eskatzen diguten arte; edo solaskideak ez digula ulertzen argi eta garbi ikusi arte. Euskaldun guztiok hori egingo bagenu, urrats handia izango litzateke gure hizkuntzarentzat eta euskaldunontzat. Euskara eroso eta normaltasunez egiten badugu, gure eredia imitatzerara joko dute inguruko batzuek behintzat.»

Hori da gure inguruko euskaldun batzuen iritzia. Zer gertatuko zen taulan zerrendatu dituzun hizketaldi horietan guztietan zuk lehenengo hitza euskaraz egin izan bazenu? Zerbait aldatuko litzateke?

3. Bete ezazu berriro taula baina orain saia zaitez irudikatzen nola geldituko zen zuk beti lehenengo hitza euskaraz eginda.

Donostiako Egia auzoan hainbat herritar aste betez saiatu ziren euskaraz bizitzen

8 ERANSKINAK

8.1.
DATU
KUANTITATIBOAK

8.2.
ESKU-HARTZEKO
JARDUERAK

8.3.
GALDETEGIA

eta horretarako lehen hitza beti euskaraz egiten zuten. Ezagutzen zuten aurretik Lutxo Egi idazleak hilabete oso batez Bilbon izandako esperientzia. Horrelako ekimenak zabaltzen ari dira; orain, esaterako, Lasarten eta Hernanin ari dira horrelakoak egiten. Bideo honetan Donostiako Egiako auzokide batzuen lekukotzak entzun daitezke: (Bideoa)

Horrelako gertakariak aztertzen dituztenek lehenengo hitza euskaraz egiteko zalantzak sortzen digun ezinegonari «Estres Linguistikoa» deitzen diote: (Bideoa)

8.2.3

ZUBIA

(Elhuyar Fundazioaren materialean oinarritutako ariketa)

■ Irakaslearentzako argibideak

Zintaz edo zelo lodiz lurrean ibilbide estu bat markatuko dugu. Ibilbideak 25 cm-ko zabalera izanen du, bi oinak elkarren ondoan sartzeko adinakoa eta luzera 12 bat ikasle sartzeko moduan. Ikasle kopuruaren arabera egingen dugu zubi bat edo bi zubi, ikasleak bi taldetan multzokatzeko. Taldekide guztiei zintaren gainean eta norabide berean jartzeko eskatuko diegu.

Pirañaz betetako ibai batean daudela esanen diegu, eta zintan dagoen ibilbideak dela pirañetatik libratzeko zubi bakarra. Beraz, zubitik atera gabe aritu beharko dute ariketa osoan zehar.

Errenkan kokatuta daudenean (hasieran zoriz, ikasleek nahi bezala), hurrenkera jakin

batean jartzeko esanen diegu, horretarako toki batetik bestera mugitu beharko dutenez, ezinen dituzte oinak zintaz edo zelo markatu dugun ibilbidetik atera. Ikasle guztiei hurrenkera horren arabera kokatzeko eskatuko diegu.

Ilaran kokatzeko hainbat irizpide erabiliko ditugu. Hasieran, berehala ikusi eta egiazta daitezkeen irizpideen arabera:

1. adinaren arabera,
2. altueraren arabera.

Gero, ariketa zaildu egingen da, baina aldi berean aberastu, hau da, kokatzeko irizpideak euskararekin eta beste hizkuntzekin lotuta egonen dira:

3. Nafarroako hainbat herritako hiztun elebidunen ehunekoen arabera.
4. Munduko hizkuntzen tamaina (hiztun kopurua).

Azkeneko irizpide horiek guztiek ikasleen arteko elkarrizketa, adostasuna eta ikuspegiak azalaratuko dituzte, eta horixe da, hain zuzen ere, helburua, hausnarketa horiek jasotzea eta partekatzea. Egin ahal izateko irakasleak ikasleei txartel bana emanen die: zerrendetako Nafarroako herri baten izena eta hizkuntza baten izena, hurrenez hurren.

Irakasleak ikasleak toki batetik bestera mugitzerakoan zubitik ez direla ateratzen zainduko du. Ateraz gero beren tokira itzularazi eta berriz saiatzeko eskatuko die, ariketa bukatu eta eskatutako hurrenkera

8 ERANSKINAK

8.1.
DATU
KUANTITATIBOAK

8.2.
ESKU-HARTZEKO
JARDUERAK

8.3.
GALDETEGIA

kokatu direla egiaztatu arte. Zalantzarik gabe, hirugarren eta laugarren aldian irakasleak malgutasunez jokatu du eta haien hurrenkera onartu beharko du iradokizunik eman gabe. Behin kokatuta, irakasleak erantzun zuzena («adituek ematen dutena») zabalduko du.

Bukatzeko, ikasleek «Tribuaren Berbak-Euskararen tamaina» telebista saioaren lehenengo zatia ikusiko dute (13'30" arte).

Ikasleek iritziak, adostasunak edo desadostasunak adierazi nahi badituzte, horiei bidea emanen zaie.

■ **Ikasleentzako argibideak**

Pirañaz betetako ibai batean zaudete eta zintak markatutako ibilbidea da pirañetatik libratzeko zubi bakarra. Beraz, zubitik atera

gabe aritu beharko duzue joko osoan zehar. Sartu zubian.

Orain ilara adinaren arabera ordenatu, baina erne! oinak zubitik atera gabe, pirañak daude eta!

Orain altueraren arabera.

Jarrain Nafarroako herri bana izanen zarete, eta herri horietan dauden biztanle euskaldunen ehunekoen arabera ordenatu ilara. Euskaldunena mutur batean eta erdaldunena beste muturrean. Gogoratu, zubitik atera gabe!

Jarraian munduko hizkuntza bana izanen zarete eta hizkuntzen tamainaren arabera ordenatu beharko duzue ilara; hau da, daukaten hiztun kopuruaren arabera: handiena mutur batean eta txikiena beste muturrean.

8 ERANSKINAK

8.1.
DATU
KUANTITATIBOAK

8.2.
ESKU-HARTZEKO
JARDUERAK

8.3.
GALDETEGIA

Galdetegia

1. ERREGISTROA

ESKOLA ETA HIZKUNTZAK

1. ERREGISTROA

* Derrigorrezkoa

Hasierako datuak

1. Ikaslearen kodea*

2. Zein herritan bizi zara?*

3. Adina*

4. Generoa

- Neska
 Mutila

Etxeko en euskararen ezagutza

5. Ama*

- Euskalduna
 Zer edo zer badaki
 Erdalduna

6. Aita*

- Euskalduna
 Zer edo zer badaki
 Erdalduna

Bizipenak

7. Irakurri 4 ikasle/gaztetxo hauen bizipenak eta ondoren erantzun beheko galderak testu batean.

1. bizipena

Nire lehenengo oroitzapena da nire amak euskaraz abesten zidanean lasaitzeko eta goxo-goxo egoteko. Gero haurtzaindegian hasi nintzanean gaztelaniaz hitz egiten hasi zitzaizkidan eta ez nien ulertzen, nik bakarrik ordurarte euskaraz nekielako, baina berehala ohartu ziren eta euskaraz egiten zidaten orduan. Nire lagun gehienak, aldiz, alderantziz, gaztelaniaz bakarrik hitz egiten zuten, besterik ez zekitelako. Baina, gero berehala euskara ikasi zuten.

Eta lagunekin gehienbat gaztelaniaz egiten dugula esanen nuke -eta ez dakit zergatik, zer denak euskaldunak gara-, baliteke ohitura izatea, zenbaitetan lotxa edo deseroso sentitzen garela euskaraz ari garenean.

Orain etxean eta institutuan egiten dut euskaraz. Unibertsitatean karrera euskaraz egitea gustatuko litzaidake.

2. bizipena

Gui herriyen, itxen beli euskias hitz ein duu. Ni toki erdaldun betia faten nintzenien, hasieran, euskias etten nubuen nei atatzen zakiten lehenengo hitza euskias zelako, eta erantzun txarren bat de jasoa naiz kontu horrengati. Ordubuen batzuten zailantza sortzen dakit nola hitz ein herriti kanpoako toki hoiten.

Geñakoen, gu oso pozik gaude iaun tartien euskias etten, hitzek sortzen ttu, txiste berriyek ta pasadizoek kontatzen. Ikusten duzubien bezela gui hizkera de bakau. Askotan eztaikiu ongi ai gan, ze gurasoek esaten diu hoi ez tela hola esaten, ta holako kontubek, beya guk hola ongi pasatzen du.

3. bizipena

3 urterekin eskolan hasi nintzanean klasean sartu eta hor zegoen maistrak arraro hitz egiten zuen. Etxera joandakoan amari esan nion maistra horrek ez zekiela hitz egiten. Dena keinuz eta mugimenduekin azaltzen zuela eta ez niola ezer ere ulertzen, eta ez nuela eskolara joan nahi. Amak esan zidan euskaraz ari zela, eta euskaraz ikasiko nuela, eta orduan ulertu eta jakin nituen hainbat kontu, ba nire amonak euskaraz hitz egiten zuela, nahiz eta ahaztu samarra izan, eta batzuetan kanturen bat edo hitz goxoren bat ere esaten zidan. Etxean gaztelaniaz hitz egiten dugu, nire gurasoek ez dakitelako, zenbaitetan ez naiz eroso sentitzen euskaraz ari naizenean, lotsa ere ematen dit zenbaitekin euskaraz egitea, pentsatzen dut nik baino hobeto egiten dutela.

8 ERANSKINAK

8.1. DATU KUANTITATIBOAK

8.2. ESKU-HARTZEKO JARDUERAK

8.3. GALDETEGIA

4. bizipena

Nere amaxi ta aitetxin artian eskuaraz aitzen ziren, ta herrien ere, feritan ta hola batzutan eskuaraz aitzen zen

Etxian ere eskuaraz in izen dugu gehienbat, baina gero karrikarat atra ta erderaz iten ginuen. Peditrak ere etzekin eskuaraz.

Gurasoek erraten zataten eskuara jakitea ongi zela, baina arras inportantia dela erderaz ongi solastia, ze Iruñerat gatekuan, ongi iten ez bauzu irri iten datzute.

Galderak

-Zein da euskararekin gogoratzen duzun lehenengo oroitzapen ona?, zer egoera eta pertsonekin lotzen duzu? Lagunekin euskaraz egiten duzu?

-Gogoratzen duzu oroitzapen txarren bat?, zer egoera eta pertsonekin lotzen duzu?

-Zertan da desberdina zure hizkuntz egoera zure ingurukoekin alderatuta?

7. Bizipenak*

Sentipenak

Euskaraz ari naizenean...

8. Euskaraz ari naizenean nire sentimenduak dira... Zergatik sentitzen zara esan bezala?*

9. Euskara bost hitz hauekin lotuko nuke nire sentimenduak kontuan hartuta:*

Gaztelaniaz ari naizenean

10. Gaztelaniaz ari naizenean nire sentimenduak dira... Zergatik sentitzen zara esan bezala?*

11. Gaztelania bost hitz hauekin lotuko nuke nire sentimenduak kontuan hartuta:

Etorkizuna

12. Euskara animalia bat balitz, gaur zein izanen litzateke?*

13. Zure esku egongo balitz euskararen etorkizuna zein animalia litzateke 20 urte barru:*

14. Euskara eta gaztelaniaz gain beste hizkuntzaren bat erabiltzen duzu eguneroko bizitzan?*

Bukatzeko

15. Zein da zure euskararen erabilera 1etik 10era*

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Gutxi	0	0	0	0	0	0	0	0	0	Asko

8 ERANSKINAK

8.1.
DATU
KUANTITATIBOAK

8.2.
ESKU-HARTZEKO
JARDUERAK

8.3.
GALDETEGIA

2. ERREGISTROA

ESKOLA ETA HIZKUNTZAK

1. ERREGISTROA

* Derrigorrezkoa

Hasierako datuak

1. Ikaslearen kodea*

2. Zein herritan bizi zara?*

3. Adina*

4. Generoa

- Neska
 Mutila

Etxekoek euskararen ezagutza

5. Ama*

- Euskalduna
 Zer edo zer badaki
 Erdalduna

6. Aita*

- Euskalduna
 Zer edo zer badaki
 Erdalduna

Bizipenak

7. Irakurri 4 ikasle/gaztetxo hauen bizipenak eta ondoren erantzun beheko galderak testu batean.

1. bizipena

Nire lehenengo oroitzapena da nire amak euskaraz abesten zidanean lasaitzeko eta goxo-goxo egoteko. Gero haurtzaindegian hasi nintzanean gaztelaniaz hitz egiten hasi zitzaizkidan eta ez nien ulertzen, nik bakarrik ordurarte euskaraz nekielako, baina berehala ohartu ziren eta euskaraz egiten zidaten orduan. Nire lagun gehienak, aldiz, alderantziz, gaztelaniaz bakarrik hitz egiten zuten, besterik ez zekitelako. Baina, gero berehala euskara ikasi zuten.

Eta lagunekin gehienbat gaztelaniaz egiten dugula esanen nuke -eta ez dakit zergatik, zer denak euskaldunak gara-, baliteke ohitura izatea, zenbaitetan lotxa edo deseroso sentitzen garela euskaraz ari garenean.

Orain etxean eta institutuan egiten dut euskaraz. Unibertsitatean karrera euskaraz egitea gustatuko litzaidake.

2. bizipena

Gui herriyen, itxen beli euskias hitz ein duu. Ni toki erdaldun betia faten nintzenien, hasieran, euskias etten nubuen nei atatzen zakiten lehenengo hitza euskias zelako, eta erantzun txarren bat de jasoa naiz kontu horrengati. Ordubuen batzuten zailantza sortzen dakit nola hitz ein herriti kanpoako toki hoiten.

Geñakoen, gu oso pozik gaude iaun tartien euskias etten, hitzek sortzen ttu, txiste berriyek ta pasadizoez kontaktzen. Ikusten duzubien bezela gui hizkera de bakau. Askotan eztakiu ongi ai gan, ze gurasoez esaten diu hoi ez tela hola esaten, ta holako kontubek, beya guk hola ongi pasatzen du.

3. bizipena

3 urterekin eskolan hasi nintzanean klasean sartu eta hor zegoen maistrak arraro hitz egiten zuen. Etxera joandakoan amari esan nion maistra horrek ez zekiela hitz egiten. Dena keinuz eta mugimenduekin azaltzen zuela eta ez niola ezer ere ulertzen, eta ez nuela eskolara joan nahi. Amak esan zidan euskaraz ari zela, eta euskaraz ikasiko nuela, eta orduan ulertu eta jakin nituen hainbat kontu, ba nire amonak euskaraz hitz egiten zuela, nahiz eta ahaztu samarra izan, eta batzuetan kanturen bat edo hitz goxoren bat ere esaten zidan. Etxean gaztelaniaz hitz egiten dugu, nire gurasoez ez dakitelako, zenbaitetan ez naiz eroso sentitzen euskaraz ari naizenean, lotsa ere ematen dit zenbaitekin euskaraz egitea, pentsatzen dut nik baino hobeto egiten dutela.

8 ERANSKINAK

8.1.
DATU
KUANTITATIBOAK

8.2.
ESKU-HARTZEKO
JARDUERAK

8.3.
GALDETEGIA

4. bizipena

Nere amatxi ta aitetxin artian eskuaraz aitzen ziren, ta herrien ere, feritan ta hola batzutan eskuaraz aitzen zen

Etgian ere eskuaraz in izen dugu gehienbat, baina gero karrikarat atra ta erderaz iten ginuen. Peditrak ere etzekin eskuaraz.

Gurasoek erraten zataten eskuara jakitea ongi zela, baina arras inportantia dela erderaz ongi solastia, ze Iruñerat gatekuan, ongi iten ez bauzu irri iten datzute.

Galderak

-Zein da euskararekin gogoratzen duzun lehenengo oroitzapen ona?, zer egoera eta pertsonekin lotzen duzu? Lagunekin euskaraz egiten duzu?

-Gogoratzen duzu oroitzapen txarren bat?, zer egoera eta pertsonekin lotzen duzu?

-Zertan da desberdina zure hizkuntz egoera zure ingurukoekin alderatuta?

7. Bizipenak*

Sentipenak

Euskaraz ari naizenean...

8. Euskaraz ari naizenean nire sentimenduak dira... Zergatik sentitzen zara esan bezala?*

9. Euskara bost hitz hauekin lotuko nuke nire sentimenduak kontuan hartuta:*

Gaztelaniaz ari naizenean

10. Gaztelaniaz ari naizenean nire sentimenduak dira... Zergatik sentitzen zara esan bezala?*

11. Gaztelania bost hitz hauekin lotuko nuke nire sentimenduak kontuan hartuta:

Etorkizuna

12. Euskara animalia bat balitz, gaur zein izanen litzateke?*

13. Zure esku egongo balitz euskararen etorkizuna zein animalia litzateke 20 urte barru:*

14. Euskara eta gaztelaniaz gain beste hizkuntzaren bat erabiltzen duzu eguneroko bizitzan?*

Bukatzeko

15. Zein da zure euskararen erabilera 1etik 10era*

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Gutxi	0	0	0	0	0	0	0	0	0	Asko

8 ERANSKINAK

8.1.
DATU
KUANTITATIBOAK

8.2.
ESKU-HARTZEKO
JARDUERAK

8.3.
GALDETEGIA

Glosarioa

Verbatimak: ikasleek idatzitako testu zatiak, haiek adierazi dituzten moduan.

HdHE: Hitzun-dentsitate Handiko Eremua (hitzun elebidunak %70 edo gehiago): Leitza, Baztan, Bortziriak.

HdEE: Hitzun-dentsitate Ertaineko Eremua (hitzun elebidunak: %16-%69): Altsasu, Garralda.

HdTE: Hitzun-dentsitate Txikiko Eremua (hitzun elebidunak %15 edo gutxiago): Agoitz, Lizarra, Barañain, Iruñea.

Familia euskalduna: bi gurasoak euskaldunak edo bat euskalduna eta besteak zerbait daki.

Tarteko familia/ Mistoia: guraso bat euskalduna da eta bestea erdalduna edo biek zerbait dakite.

Familia erdalduna: bi gurasoak erdaldunak edo bat erdalduna eta besteak zerbait daki.

Gazteak sailkatzeko lortutako 9 tipologiak hizkiak (A, B, C eremu mota) eta zenbakiak (1, 2, 3 familiaren tipologia) konbinatuta izendatu ditugu.

A1: Familia euskalduna eta Hitzun-dentsitate Handiko Eremua (hitzun elebidunak %70 edo gehiago)

A2: Tarteko familia eta Hitzun-dentsitate Handiko Eremua (hitzun elebidunak %70 edo gehiago)

A3: Familia erdalduna eta Hitzun-dentsitate Handiko Eremua (hitzun elebidunak %70 edo gehiago)

B1: Familia euskalduna eta Hitzun-dentsitate Ertaineko Eremua (hitzun elebidunak: %16-%69)

B2: Tarteko familia eta Hitzun-dentsitate Ertaineko Eremua (hitzun elebidunak: %16-%69)

B3: Familia erdalduna eta Hitzun-dentsitate Ertaineko Eremua (hitzun elebidunak: %16-%69)

C1: Familia euskalduna eta Hitzun-dentsitate Txikiko Eremua (hitzun elebidunak %15 edo gutxiago)

C2: Tarteko familia eta Hitzun-dentsitate Txikiko Eremua (hitzun elebidunak %15 edo gutxiago)

C3: Familia erdalduna eta Hitzun-dentsitate Txikiko Eremua (hitzun elebidunak %15 edo gutxiago)

[Euskaraz]: euskaraz ari naizenean nire sentimenduak dira...

[Gaztelaniaz]: gaztelaniaz ari naizenean nire sentimenduak dira...

[Gal.]: Galdera

[E-1]: 1. erregistroan emandako erantzuna

[E-2]: 2. erregistroan emandako erantzuna

Bibliografia

- Aldasoro E., Anaut D., Mugertza E., Olasagarre Y., Ramos R. (2012). Motibazioa Sustatzeko Baliabideak bloga. [Bloga] Hemendik eskuratua: <http://eibz.educacion.navarra.es/blogak/msb/sarrera/>
- Aldekoa, J. (2012). Euskararen Normalizazioa Hezkuntzan (2000-2010): Ulibarri Programa. Euskarri teorikoa, metodologia eta faktore azalgarriak. UPV-EHU. Hemendik eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Jasone_Aldekoa_TESIA.pdf
- Arratibel N. & Ortiz G. (2000). Motibazioa, jarrerak eta inplikazioak. UEU soziolinguistika ikastaroa, Iruñea
- Azurmendi, M.J. (2008). Elebitasunetik eleanitzasunera. *Hik Hasi* (22, monografikoa), 22-28.
- Berger, P. eta Luckmann, T. (1986). La construcción social de la realidad. Madril: Amorrortu-Murguía.
- Cenoz, J. & Santos, A. (2017). Komunikazio antsietatea euskara bigarren hizkuntza dutenengan. *Fontes Linguae Vasconum (FLV)*, (124), 369-387. Hemendik eskuratua: <http://www.culturana Navarra.es/uploads/files/06-FLV124.pdf>
- Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra (2012). Ebaluazio Diagnostikoa 2011: ikasleen hizkuntza erabileraren datuak Arrue proiektua 2011. Hemendik eskuratua: http://www.soziolinguistika.eus/files/ED2011_Emaitza_nagusien_txostena.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2011). V. Inkesta Soziolinguistikoa. Vitoria_Gasteiz, 2013. Hemendik eskuratua: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf
- Eusko Jaurlaritza (2008). Euskararen belaunez belauneko transmisioa EAEn. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Hemendik hartua: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/Euskararen%20transmisioa%20EAEn%20Eus.pdf
- Fishman, J. (1991). *Reversing language Shift: Theory and Practice of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Fishman, J. (1993). Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* (10). Hemendik eskuratua: <http://www.soziolinguistika.eus/files/04%20Fishman.pdf>
- Garzia, J., Egaña, A. eta Amonarriz, K. (2004). Euskararen kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako. Hemendik hartuta: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1098805402
- Goikoetxea, N. (2006). Gaitasun komunikatiboa eta hizkuntzen arteko elkar eragina EAE-ko hizkuntza eleanitzean. UPV-EHU. Hemendik eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/nekane_goikoetxea_TESIS.pdf
- Imaz Bengoetxea, J.I. (2008). Hezkuntzari soziologiatik begira. *Tanttak*, 39, 51-85.
- Irastortza J. (2009). Lan munduko euskara planetako langile euskaldunen jarrera, portaera eta motibazioak: pentsamendua garzatek helburuak lortzera. Mondragon Unibertsitatea. Hemendik eskuratua: http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Joxpi_Irastortza_TESI.pdf

- Llanos Luque, M. (2003). Euskararen irakaskuntza eta jabekuntza-ikaskuntza estrategiak (2-4 urtekoek) D ereduan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* (49). Hemendik eskuratua: <http://www.soziolinguistika.eus/node/1310>
- Mugertza, E., Olasagarre, Y. (2010). Nafarroako hainbat ikastetxetan euskararen erabilera sustatzen ari zarete. Nola? *Hik Hasi*, 149, 28-32. Hemendik eskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20100601/nafarroako-hainbat-ikastetxetan-euskararen-erabilera-sustatzen-ari-zarete-nola>
- Mugertza, E., Olasagarre, Y. (2015). Ahozko komunikazioa eskolan: azken hamarkadako ikerketa eta esperientzia berriak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* (96), 2015 (3), 69-101. Hemendik eskuratua: http://www.soziolinguistika.eus/files/yolanda_olasagarre_et_al_bat96.pdf
- Mujika, T.; Altuna, J.; Hernandez, L.; Moreno, I. (2009). Erabileran eragin nahian, ikasleak motibatu eta girotu. Eskola Hiztun Bila, XIII. Jardunaldia, Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Bilbo, [3 DVD].
- Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Erakunde Publikoa (2017). VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Nafarroako Foru Komunitatea. Hemendik eskuratua: <http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/irudiak/fckeditor/NAFINkesta2016euskaraz.pdf>
- Ruiz Bikandi, U.; Ozaeta, A.; Iturria, M. (2009). Metodologia eta interakzio didaktikoa. Eskola Hiztun Bila, XIII. Jardunaldia, Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Bilbo, [2. DVD].
- Ruiz Bikandi, U. (2012). Ahozko hizkuntza irakastea. Hemendik eskuratua: https://issuu.com/eskolatxikiak/docs/uri_ruiz_bikandi_ahozko_hizkuntza_j
- Sanchez Carrion, J.M. «Txepetx». (1991). Un futuro para nuestro pasado. Donostia: Elkar. Hemendik eskuratua: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/viewFile/8593/8341>
- Soziolinguistika Klusterra (2013). Ikasleak Hiztun. 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Wood, D., Bruner, J., & Ross, G. (1976). The role of tutoring in problem solving. *Journal of Child Psychology and Psychiatry and Allied Disciplines*, 17, 89-100. Hemendik eskuratua: <https://onlinelibrary.wiley.com/doi/epdf/10.1111/j.1469-7610.1976.tb00381.x>
- Zalbide, M. (2003). *Ahuldutako Hizkuntza Indarberritzea: teoriak zer dio?* Hemendik eskuratua: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1056974834

Laburpena: Gure ikasgeletan hizkuntzarekiko motibazioa lantzeko beharra ikusi ondoren, ekin genion MSB bloga sortu eta han jasotako jarduerak gelaratzeari. Urte batzuk pasatu dira bloga sortu genuenetik eta irakasleen aldetik jaso dugun erantzuna ona izan da jarduerak gelaratzean ikasleengan sortutako emaitzei begira. Bide horretan sakondu nahi izan dugu, jakiteko gure planteamendua egokia zen ala ez. Batetik, hizkuntzarekiko ikasleen bizipenak, sentimenduak eta emozioak ezagutzeko beharra genuen; eta, bestetik, bizipen eta sentimendu horiek hobetzeko bidean zein esku-hartze egin zitekeen aztertu nahi genuen. Ondoko orrietan jasotzen dena bi helburu horiek aztertzeko ikerketaren eta esku-hartzearen nondik norakoak zein emaitzak aurkezten ditugu. Egindako ikerketa eta esku-hartzea jasotzen du artikulu honek.

Hitz gakoak: motibazioa, atxikimendua, irakaskuntza, Bigarren Hezkuntza, hizkuntza gaitasuna, gatazka, esku-hartzea, erabilera.

Resumen: Vista la necesidad de impulsar la motivación hacia la lengua en las aulas, decidimos crear el blog MSB y llevar a la práctica las actividades que se recogen en el mismo. Transcurridos ya unos años desde que lo creamos y teniendo en cuenta que la acogida que percibíamos desde el profesorado era buena, hemos creído oportuno profundizar en el tema para y analizar si el planteamiento es adecuado o no. Por una parte, teníamos la necesidad de conocer las vivencias, sentimientos y emociones del alumnado respecto a la lengua; por otra parte, queríamos analizar qué tipo de intervención puede ser idónea para mejorar dichas vivencias y sentimientos. En las siguientes páginas presentamos la investigación e intervención realizada al efecto así como sus resultados.

Palabras clave: motivación, apego, enseñanza, Educación Secundaria, competencia lingüística, conflicto, intervención, uso

Abstract: After becoming aware of the need to develop motivation language in our classrooms, we embarked on working on MSB blog with activities in order to encourage that motivation. We created that blog several years ago, meanwhile teachers have been setting up these activities in their classroom and they have told us that the result is good. We have wanted to deep in that way in order to know if the approach is fitted for our purpose. On the one hand, we needed to know the experiences, feelings and emotions of students regarding language; on the other hand, we wanted to analyze what kind of intervention can be done to improve those experiences and feelings. What is contained in the following pages presents the results of research and intervention in order to analyze these two objectives. This article includes the research and intervention carried out.

Keywords: motivation, attachment, teaching, Secondary Education, language competence, conflict, intervention, use.

Parte hartu duten erakundeak:

- Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa eta Euskara Atala (Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua). Ikerketaren sustapena eta finantzazioa.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Berriozarko Udala.

Oharra: Ikerketa aipatutako hiru erakundeen arteko elkarlanaren bidez burutu da eta EIBZk eta NUPek sinatu zuten kontratuaren babespean. OTRI kodea: 2016 018 053

Parte hartu duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak:

Lizarra BHI, Jaso Ikastola, Agoitz DBHI, Eunete BHI, Pedro de Ursua BHI, Sakana Ikastola, Leitzako BHI, Berako Toki-Ona BHI, Lekarotz-Elizondo BHI, San Fermin Ikastola, Alaitz BHI, Garraldako DBHI, Altsasuko BHI.

Ikerketan lagundu duten irakasleak:

Gotzone Agirrezabala Agirrezabala
Unai Arellano Lakabe
Patricia Armendariz Aristu
Josune Aznarez Alkat
Maider Basterra Mendioroz
Erkuden Flores Mazkiaran
Haritz Gorostidi Iriondo
Txelo Inoriza Lorente
Amelia Lapuente Jimenez
Nerea Mitxeltorena Iparragirre
Idoia Mugica Alvarez
Garazi Otxagabia Letamendia
Eduarne Perez Landa
Ainhoa Razkin Olazaran
Marta Senar Berastegui
Juantxu Zabala Etxebarria



Lan hau Creative Commons 4.0 Nazioarteko lizentzia baten mende dago Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin, (CC BY-NC-SA 4.0)

Edizioa:

Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra
Hezkuntza Departamentua / Departamento de Educación

Izenburua:

DBH-ko IKASLEEN HIZKUNTZA ATXIKIMENDUA HOBETZEKO IKERKETA ETA ESKU HARTZEA

Egileak:

Yolanda Olasagarre Mendiñeta, EIBZko irakaslea, soziologoa, soziolinguista
Rosa Ramos Alfaro, Berriozarko Udaleko euskara teknikaria, soziolinguista
Carlos Vilches Plaza, NUPeko soziologia irakaslea eta ikertzailea

Azaleko irudiak:

Haizea Azpiroz eta Mikel Lakabe

ISBN:

978-84-235-3511-8

LG:

NA 747-2019

Fotokonposizioa:

Pretexto